



# ttipi-ttapa



## SEI URRE, BI ZILAR ETA HIRU BRONTZE

Errepikaezina zirudiena hobetu egin du aurten Beti Gazte sokatira taldeak Suediako Munduko Txapelketan. Hamaika domina eskuratu ditu eta tartean emakumezkoek lehenbiziko aldiz urrea lortu dute. / 55

ANA ERRANDONEA

## Sei preso politiko eskualdean

Euskal preso politikoaren eta haien senideen egoera hurbiletik ezagutzeko Eli Iturria eta Gaizka Sarasola senideekin bildu da TTIPI-TTAPA. / 11



**Alaitz Rekondo gai jartzailearekin bertsolaritzan egin duen ibilbideaz** / 8



**Mikel Irujoren ustez, eskualdeko «proiektu eolikoak ez dira egingarriak»** / 24



**Itziar Torres Palestinan gertatzen ari denaz mintzatu da** / 42



ESTI VEINTEMILLAS

**Oskar Urrutiak erremonte profesionala utzi du** / 54

# #Eman Odola Eguna

EGIN SALTO BIZITZAREKIN

adona

adona.es

**ttipi-ttapa**

**LIDERRAK GURE ESKUALDEAN**  
 baita azterketa egiterakoan CIESeK Nafarroa Garaiko mendialdean hartu duen ITI udalerrien eremuan ere.

**SEXUAREN ARABERA**

- EMAKUMEAK % 54
- GIZONAK % 46

**IKASKETA MAILAREN ARABERA**

- ONARRIZKO BATXILERGOA % 11,5
- ONARRIZKO IKASKETAK % 19,1
- UNIBERTSITADEA % 29,2
- GOI MAILAKO BATXILERGOA % 40,1

**ADINAREN ARABERA**

- 14-19 % 6,1
- 20-24 % 6,7
- 25-34 % 12,5
- 35-44 % 14,5
- 45-54 % 20,4
- 55-64 % 14,9
- 65-74 % 24,8

**TTIPI-TTAPA**  
22000 iruzule

**DIARIO DE NAFARRA**  
5000 iruzule

**DIARIO DE NOTICIAS**  
9000 iruzule

**GARA**  
4000 iruzule

**BERRIKA**  
4000 iruzule

**NOTIZIAKAZPI**  
3000 iruzule

\*1. Osotara, azkeneko hamabostaldian  
 \*2. Nafarroa Garaiko mendialdean, azkeneko aldan

DATU ITURRIA: CIES, 2023ko metatuak





NIRE TXANDA

MIEL M. ELOSEGI IRURTIA LUZE

## Gaztainondoei bultzada

Gaztainondoa azkar hazi eta fruitu bikainak ematen dituen zuhaitz dotorea da. Zuretarako, jateko zein aziendak bazkatzeko garrantzi ikaragarria zuen eta gure herrietan jakinduria zoragarria zegoen haren inguruan. Zoritxarrez, duela 100 urte inguru kanpotik ekarritako landareekin iritsitako ondoko gaitzak ekarri zituzten eta gaztainondoen artean hilkortasun handia eragin zuten.

Hemen bezala, Galizia aldean ere ondoko osasun arazo handiak sortu zituzten gaztainondoetan, baina urteetako ikerketa eta lanari esker Lourizango BasoIkerketa Zentroan gaitza ongi xamar jasaten duten klon hibridoak lortu zituzten. Azken urteotan nafarrak haiekin elkarlanean hasi dira bertako gaztainondoen egoera hobetzeko: herriz herri informazioa bildu eta bertako gaztaina barietateak gorde dituzte, eta gaitzen aurka hobekien erantzun duten klonak lortu eta landatzen hasiak dira gure eskualdean. Zorionak ekimen hau bultzatu dutenei eta ea lan eder honek etorkizunean fruitu onak dakartzan!

«AZKAR HAZI ETA FRUITU BIKAINAK EMATEN DITU GAZTAINONDOAK»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

## Txapela buruan, ibili munduan

Harrotasunez, baina harrokeriarik gabe: Zein klub da munduko txapeldun emakumezkoetan, gizonezkoetan eta mistoan, denetan batera? FC Barcelona? Real Madrid? PSG? Bayern Munich? LA Lakers? Boston Celtics? Ez, Beti Gazte! Lehen aldiz mundiala irabaztea lortu zutenetik 25 urte bete direnean urrez estalirik ospatu dituzte Zilarrezko Ezteiak.

## NABARMENTZEKOAK

JOSE MANUEL  
IÑARREA  
MENDIZALEAERNESTO  
PRAT  
IDAZLEA

Dravet gaixotasunari ikusgarritasuna emateko erronka bat baino gehiago eginak ditu Jose Manuel Iñarrea erratzuarrak. Berriki Afrikako tontorrik handiena igo du, Kilimanjaro.

Ernesto Prat idazle baztandarrak *Mendeku eskubidea* nobela beltza kaleratu berri du Elkarrekin. Baztango egungo testuinguruan kokatu du nobela.

## GIBELERA BEGIRA



2014-02-20 · TTIPI-TTAPA · 608 zk.

## Errekako triatloi taldea martxan

Duela hamar urteko otsailaren 2an aurkeztu zuten Doneztebeko Kasino elkartearen Erreka elkartearen triatloi atala. «Duela urte pare bat, triatloia kanpoan egiten genuen doneztehar batzuei, Errekan triatloiko atala sortzeko gogoa piztu zitzaigun, hala, joan den urtean hasi ginen hori gauzatzeko lehendabiziko bilerak egiten. Erran beharra dago, inoiz espero ez genuen erantzuna izan dugula, 42 kirolariko taldea osatu baitugu», azaldu zuen proiektuaren sustatzaile Gorka Bidegainek. Kontatu zuenez, «kirolari bakoitzak bere helburua partikularrak ditu. Hala, batzuk duatloietan parte hartzea dute helburu, bertze batzuk triatloi olinpikoetan, eta bakarren batek ironman batean...».

### Argitaratzailea

Ttiipi-Ttapa Fundazioa  
Koskontako bidea, 7 - 1.  
31770 LESAKA  
T. (+34) 948 63 54 58  
F. (+34) 948 63 54 57  
WhatsApp 744 48 43 61  
info@ttiipi.eus

### Zuzendaria

Aitor Arotzena

### Erredakzioa

Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,  
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea

### Publizitatea

Amaia Odriozola

Arantza Agirre

### Berriemaileak

Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,  
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,  
Arantza Etxeberria, Iraia Jaurena,  
Irene Elizagoien, Maider Petrirena,Ainhoa Ansa, Fermin Ebekolonea,  
Aintzane Leiza, Ana Iturbide,  
Itziar Mitxelena, Juan Mari Barriola,  
Maitane Maritorea, Arantza  
Iturralde, Arantza Gamio, Jaione  
Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea  
Mortalena, Jean Louis Bessonart,  
Ganex Etxeberrigarai, Maialen  
Iantzi, Olatz Mutuberria, Oier  
Zulaika.

### Fundazioaren Presidentea

Paskual Rekalde

### Kudeatzailea

Joxemanuel Irigoien

### Administrazioa

Amaia Goia

### Lege Gordailua

NA-1324/85

### ISSN

1578-4673

### Tirada

6.000 ale

### Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,  
Baztan, Sara eta Senpereko  
udalak, Malerrekako Zerbitzuen  
Mankomunitatea.

### 2024ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi  
eta Malerrekako 47€  
Leitza 40€  
Hego Euskal Herria 50€  
Ipar Euskal Herria, Europa 110€  
Amerika eta Australia 155€



## KOLABORAZIOAK

MIKEL SAGASTIBELTZA LASARTE

## Hitzak eta esanahiak

Polisemia eta bakoitzak eman nahi dion zentzua.

Zer betaurrekorekin –esan nahi baita interes– begiratzen den.

13 eta 12 ez da berdin irakurtzen matematika liburuan edo kaleko paretetan.

Justizia ez da berdin irakurtzen epaitegiko atean edo kartel batean. Batzuen justizia besteen heriotza denean posible al zaio justizia deitu?

Ideien heriotza egungo krisi. Egungo krisia batzuentzat irabazi.

Agortuta dago askatasun hitza. Edonork erabiltzen du. Agortuta al dago askatasun hitza?


Berdintasuna ere bandera zarratatua da. Edonork haizeratzen du eta gutxi hitz egiten da bakoitzak ematen dion esanahiari eta inplikazioei buruz. Burgesiaren diskurtsoetan hitz bakoitza da Troyako zaldi.

Bakea. Noren bakea. Norentzat eta zertarako. Bakea Palestinan. Palestina aske izanen bada baldintzarik gabe izanen da eta inolaz zapaltzailearen bakea inposaturik.

Ez dugu denok bakea berdinean ulertzen. Ez dugu denok ezer berdinean ulertzen.

Aitor Bizkarrak jarritako hitzak dituen Desgaraian taldearen abestiak ederki dio:  
*Hitzak ez badira balak  
Ta hiztunak soldadu  
Zer da ba irabaztea  
Zer da haiek, zer da gu  
Euskararen hitz bakoitzak  
Esanahirik ez badu  
Orduan erabiltzeko  
Beharrik ez daukagu.*

## «EZ DUGU DENOK EZER BERDIN ULERTZEN»



MAIALEN SOBRINO LOPEZ

## Hitzeman

Ingurukoei pasatuko zitzaizuen berbera, batik bat duela urte batzuk: eskualdetik urrundu ahala, ahoa ireki eta solaskideak «bertze» edo «erran» aditu orduko botako zizuen Estitxu Fernandezek bezala solastatzen zinetela. Bera zen gure («gure» zabal baten) erreferente, kasik bakarra. Telebistan bertze batzuk agertzen zirelarik Euskal Herriko txoko aunitzetan adi aritzen ziren azentuari, hiztegiari edo doinuari, aurkezlearen eskualdea ez ezik herria edo, ahal zenetan, auzoa zein zen asmatu nahian, eta oraindik ere halatsu aritzen dira han-hemen. Aldiz, Estitxu Fernandeztarron erreinua arras zabala zen eta, exotizatzen dugun guztiarekin egin ohi dugun bezala, ez zuen ñabardura edo zehaztapen gehiagorik eskatzen, nonbait, gure auzoak edo herriak berdinean zuen. Dena den, nik eskertzen nuen heldulekua, «gutar» bat bederen hor ikustea, eta zeinen dotore, gainera! Erakutsi zidan moldatzea eta moztarotzea ez zirela berbera, telebistan edo bertze edozein tokitan aritzen ahal ginela, praktikaturik gero, gure euskarari uko egin gabe; funtsean, euskara batua gurea ere bazela.

Duela pare bat urte bidera atera zitzaidan berriz ere Estitxu Fernandez, oraingoan Erika Lagomarekin batera, eta bertze behin irakaspen franko zituzten altzoan. Bi eskutara idatzi zuten liburua mardula bada ere, bada burutik kendu ezin dudana esaldi bat: «Izan zaindu ditzakezun adina harreman». Bortz hitz bizitzari eusteko. Ez du iduri sobera eskatzea denik eta, haatik, hori izanen dugu

bulkada nagusi aurten ere martxoaren 8an karraketan zintzurak urratzeko.

Aldarrikapen batzuen bezpera eta bertze batzuen biharamuna, otsailaren 21a joan berri zaigu eta, Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Eguna. Hizkuntza gutxituen biziraupenaren aldeko aldarria egiteko eguna denez, pentsatzen ahal da orain arte aipatu ditudan bi gaiak biltzen dituela, hein batean. Izan ere, bi egunetan eskatzen ditugu baliabideak, kontzientzia, bizitzea ahalbidetzen digun sistema oso bat behar dugula, oraingoa ez dela jasangarria. Hortaz, bi daten arteko zubia eraikitzen ahal dugu, elkarri hitzeman, negoziatu zenbat hitzekin murriztuko ditugun arrakalak, ez baitu iduri bortz hitz eskatzea sobera denik gure hizkuntza politiken irizpide gisa. Akaso, euskara zaintzearen ardura duten instituzioendako hauxe izaten ahal da irakaspen eratorrietako bat: izan zaindu ditzakezun adina hiztun.

## «IZAN ZAINDU DITZAKEZUN ADINA HARREMAN»



## 11 GALDERA LABUR

ASIER ANTUÑA ZELAIETA SUNBILLAKO KIROLARIA

# «Neure buruari erronka gogor bat jarri nahiko nioke»

## Nola definituko zenuke zeure burua?

Sunbillako mutiko alai eta kirolaria. Lagunekin zein hurbileko pertsonekin egotea aunitz gustatzen zait.

## Zein dira zure zaletasunak?

Bizikletan eta lasterka ibiltzea nabarmenduko nituzke. Nire egunerokoaren parte dira bi kirol horiek eta tartetxo bat behintzat eskaintzea aunitz gustatzen zait, arazoak ahazten laguntzen bainaute.

## Zeinekin hasi zinen lehenbizi?

Bizikletan betitiki ibili naiz, aitarene zaletasunari segida emanez. Ttikitan Donejakue bidea egitera eramaten gin-duen anaia eta biok.

## Noiz hasi zinen lasterketetan?

Konfinamenduaren ondotik, lagunak lasterketa bat proba-

tza animatu nindutenean. Nahiz eta kirola zaletasun gisa hartu, polita da lasterketako tentsioaren bizipena.

## Kirol exijentea da?

Exijentzia maila norberaren araberakoa da. Noski, lasterketa bat egiterakoan ordu gehiago eskaini behar zaizkio, baina bakoitzaren helburuak markatzen dute exijentzia maila.

## Lekurik gustukoena bizikletan ibiltzeko?

Nire herri inguruan, Mendaur aldera joatea adibidez, xenda politak izaten baitira.

## Eta lasterka aritzeko?

Oteixon mendi aldera joatea gustatzen zait, bertako bistak eta ilunabarrak ikaragarri mi-resten baitituz. Ahal dudan guztietan hara joaten naiz.



## Duatloietan bikoteka lehiatu izan duzu, ezta?

Bai, emakume eta mutilekin, eta aunitz gustatu zait esperientzia, lagunaren artean ongi pasatzeko moduztat hartu ditugulako. Esperientzia aberasgarria da, frogetan giro polita izaten da eta lagunak egiten ditugu.

## Zer nahiago duzu, lasterka edo bizikletan?

Bizikleta, ttikitatik izan dudana zaletasuna delako. Gainera, bizikletan ibiltzean eta lehia-

tzean sentsazio hobearrekin ateratzen naiz.

**Bete nahiko zenukeen ametsik?** Neure buruari erronka luze eta gogor bat jarri nahiko nioke; barne borroka horrek emaitza izateak polita izan behar du.

## Zure asmoak etorkizunean?

Lagun artean martxa eta lasterketa batzuk egin nahi dituz, eta duatloi bat nik bakarrik egitea ere gustatuko litzaidake. Froga osoa nire kabuz burutzearen sentsazioa sentitu nahi dut.



1951tik  
*Casa Cambra*  
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

*Albornozak*  
*Mantelak*  
*Kuxinak*  
*Edredoi nordikoak*  
*Ohe estalkiak*  
*Maindireak*  
*Toallak*  
*Edredoi-azal nordikoak*



## IRAKURLEAK MINTZO

### Esker mila, bihotzez!

#### ENARA MITXELTORENA SANSIÑENA

JESUS MARI SANSIÑENAREN FAMILIA OSOAREN IZENEAN

Urtarrilaren 31 arratsaldean, Jesus Mari Sansiñena Martiarena etxera bueltatzen ez zela ikusirik, 112ra deitu eta berehalako erantzuna izan genuen. Foruzaingoa etxera etorri, eta instant batez hasi zen bilaketa zurrunbiloa: foruzainak, suhiltzaileak, udaltzainak, ... eta guk gure aldetik, desagerpena ingurukoaren artean zabaltzea.

Harrituta eta hunkituta gelditu gara, jendearen erantzun olatuarekin. Instant batean, Baztango herri anizteta jendea gure inguruan ikusteak, ez du hitzik. Denak Jesus Mari bilatzera, linterna eta fokuekin prest Urbaloko puntara, gaueko iluntasun eta hoztasuna lagun, etxeokoa eta gainontzeko planak alde batera utzi, eta mendira, zerekin topatuko ziren jakin gabe. Jendea deika, Whatsapp, «zer egin dezaket?», «kotxea hartu eta bagazi», uff...

Ikaragarria, ederra, hunkigarria, bua, ... Zein hitz erabili emozio hori adierazteko? Ez dakigu, baina familia guztiaren izenean MILESKER BIHOTZETZ modu batean edo bertzean gurekin egon zaretan guztiei, baita foruzain, suhiltzaile eta udaltzainei ere, egoera bideratu eta koordinatzeko orduan egindako lana, txapela kentzeko modukoa izan baita!

Lerro hauek idazterako orduan, zoriekoak gu, gorputzeko sustoa baita gelditu zaigun bakarra. Jesus Mari ongi dago, etxean goxo-goxo indarrak hartzen.

Berriz ere, eta behar den aldi guztietan, MILESKER DENEI, BIBA ZUEKI!

### N-121-A: bideak handitu edo ekonomia birtokiratu?

#### GORKA LAURNAGA

BAZTANGO TALDE EKOSOZIALAREN IZENEAN

Belateko tunelak lizitatu berri ditu Nafarroako Gobernuak, polemika zerbaitekin gainera. Aldi berean, N-121-A errepide guztian hirugarren erreia egiten ari da, hori guztia segurtasunaren izenean, nazioarteko zama garraioaren gorakadari buruzkoak bazter batean utzita.

N-121-A errepidea Europa Barneko Garraio Sarean dago (EBGS), bere garaian Nafarroako Gobernuak hor sartzea erabaki zuelako. Sarearen helburu nagusia Europa komunikazio azpiegiturekin antolatzea da, kapitalaren erreproduktzio zabalduari bide emateko, hau da, kapital-metaketa faboretan toki bakoitzeko lehiarako abantailak baliatzeko, produktio prozesuaren zatiketa bultzatuz, tokiko ehun produktiboa deseginez.

Oraingo Europa kapitalaren alde eraikitako egitura da, barnera begira langileak diziplinatzeko eta kanpora begira potentzia bezala aritzeko, nahiz ez beti interes bateratu eta koherentearekin. Doktrina neoliberala gogorki aplikatu dute horretarako, ekonomiaren liberalizazioa eta nazioartekotzea bultzatuz eta langileen eskubideak estutuz.

Azpiegitura horiek guztiak aurrekontu publikoekin finantzatzen ari dira. Horrela, urtetik urtera kapitalaren ekarpena zerga bilketan proportzionalki ttipitu ahala, langileen ekarpena handitu da; hala, diru horren zati bat produktio prozesuaren zatiketa

eta deslokalizazioa ahalbidetu duten komunikazio ardatz handietan inbertitzeko erabili dute. Langileen eta tokiko ehun produktiboaren kaltetan etorri dena.

Hortaz, produktu eta salgaiak harat honat, Europako mutur batetik bertzerat mugitzen ahal dituzte, merkatu bakar eta handi horren geografian barna. Horrek, errepideen eta azpiegituren gainezkatzeta ekarri du, aldiro berriak egin behar izanez edo zeudenak handituz.

Testuinguru horretan, kontuan hartu behar da nazioarteko zama garraioaren zati handiena konbustio erregaiekin egiten dela, CO<sub>2</sub> isuriak handituz eta beroketa globalean txarrerako eraginez. Horregatik, krisi klimatiko eta energia krisi garai honetan erroko aldaketak egitea beharrezkoa da, bertzeren artean, ekonomia birtokiratu eta prozesu produktiboak lurralde eskala tikiagoetan integratuz, betiere, jendeen beharrak helburu nagusia izanez. Izan ere, kapitalaren irabazi nahian oinarritzen den ekonomiaren lurralde antolaketa bateraezina da ekonomiaren deskarbonizazio sozialki bidezko batekin eta mendearen akaberarako munduko tenperatura 1,5° baino gehiago ez igateko erronka globalarekin.

Horiek guztiak N-121-A errepidea zabaltzeko eztabaidatik baztertu dira jakinik, segurtasuna hobetzeko aldagai garrantzitsu bat trafikoaren guttitzeta dela, kasu honetan, nazioarteko zama garraioa.

### IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTAPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58



# Zaindu maite duzun hori...

## Nola erran?

\* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

### ‘Zu etortzea espero dut / Etorriko zarela espero dut’

Bai -(z)ea moldea (horixe da modurik ohikoena), bai -(e)la menderagailuarena, bi jokamoldeak onartzen ditu espero izan aditz-lokuzioak. Hala dio Euskaltzaindiak.

- Zu etortzea espero dut / (Zu) etorriko zarela espero dut.

- Denek espero zuten txapeldun izatera ailegatuko zela / Denek espero zuten txapeldun izatera ailegatzea.

Esaldia ezezka ere eman daiteke, eta hala izatera, **-tzerik** eta **-(e)nik** formekin:

- Ez dut espero zu etortzerik / Ez dut espero zu etorriko zarenik.

Ez du onartzen subjuntiboa.

-\*Espero dut ongi egon zaitezen > Espero dut zu ongi egotea.

-\*Espero dugu liburu hau atsegin izan dakizun > Liburu hau atsegina izatea / gustatzea espero dugu.

Erregimen berbera dute bertze aditz batzuek ere; konparazio batera, *aginduk* (‘promes egin’):

- Jaialdira joatea agindu nion. Jaialdira joanen nintzela agindu nion.

## Hizki zopa

Trumoi eta tximistarekin lotutako zortzi hitz bildu ditugu hemen.

T	T	M	A	O	I	N	A	Z	T	U	R	A	D
I	R	Z	A	A	R	O	N	A	I	E	P	E	E
T	E	U	K	R	I	H	U	R	T	Z	U	R	I
I	T	A	M	A	B	I	K	R	I	M	A	A	K
M	O	R	T	O	T	S	E	R	A	H	R	E	I
O	Z	U	O	R	I	L	R	K	U	A	R	E	N
R	O	T	Z	U	K	D	E	L	A	X	E	Z	U
T	U	N	B	O	P	A	R	E	U	I	E	B	E
Z	T	A	U	R	U	T	O	S	T	O	T	S	I
A	S	A	N	B	K	I	N	I	I	M	A	Z	A
N	B	I	T	A	N	X	U	N	Z	A	I	A	T
T	G	B	O	Z	M	Z	U	E	N	R	T	I	R
Z	O	N	I	O	N	A	T	E	Z	O	A	K	U
I	N	T	X	I	M	I	S	T	A	I	K	A	N



## Zein da zuzena

**Aurreko urte ≠ iaz**  
**Aurreko urtean ≠ joan zen (den) urtean**

Euskaltzaindiak dioenez, *iaz* eta *joan zen (den) urtean / iragan urtean* baliokideak dira, baina *aurreko/aitzineko urtean* ez da haien baliokide. Edozein urteren aurrekoa izan daiteke *aurreko urte*, baina ez du balio gauden urtearen aurrekoa adierazteko; horretarako, *iaz* eta *joan zen (den) urtean / iragan urtean* dira tradizioko esapideak.


- **iaz joan nintzen**  
**Bartzelonara (= gauden urtea baino urte bat lehenago) ≠ Aurreko urtean joan nintzen Bartzelonara (testuinguruak adierazten duen data baino urte bat lehenago).**

Analogia bera dago atzo eta *aurreko egunean* esapideen artean ere. Euskaltzaindiaren arabera, horiek ere ez dira baliokideak.

## Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!

 [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)

 744 48 43 61

## «Jendartea aldatu den heinean aldatu da bertsolaritza ere»

ALAITZ REKONDO FERRERO GAI JARTZAILEA

Ikastolan bertsozaletu, eta 11 urte zituela hasi zen bertso eskolan Alaitz Rekondo Ferrero lesakarra. Geroztik, bertsolari hasieran eta gai jartzaile ondoko urteetan, ibilbide oparoa osatu du. Berea izan zen Nafarroako Bertsolari Txapelketako txapeldunari txapela paratzeko ardura

### A. LARRETXE

Hunkituta eta pozik paratu zion Alaitz Rekondo Ferrerok Julio Soto Ezkurdiari 2023ko Nafarroako Bertsolari Txapelketako txapela. Une berezia izan zen, txapela paratzeko aukera emanez, Nafarroako bertsolaritzaren alde egindako lana eskertu baitzion Nafarroako Bertsozale Elkarteak Rekondori. Haurra zela hasi zen bertsoan, eta geroztik ibilbide oparoa osatu du, batez ere gai jartzaile gisa. Gainera, 2011tik 2023 hasiera arte Bertsozale Elkarteak lehenakaria ere izan da. Txapelketaren zurrumbiloa pasata, Lesakan elkartu da TTPI-TTAPAREkin egun hura oroitu eta bere bertso ibilbideaz solasatzeko.

**Dagoeneko pasa dira aste batzuk Nafarroako Bertsolari Txapelketako finaletik. Distantziatik nola oroitzen duzue finaleko arratsaldea?**

Finala bi puskatan oroitzen dut. Bat, parte hartzaile eta gai jartzaile bezala. Baduzu ardura ttiki bat, ez zaude oholztan, baina taldekidea zara, eta prestatu duzue zuk ere saio hori. Alde horretatik ardura pixka batekin bizitu nuen: gaiak ulertuko ote diren, ongi formulatu ote ditugun, asmatu ote dugun... Kezka horiekin. Bertze aldetik, txapel emaille bezala urduri bizi izan nuen, baina, hain polita izan zen, momentu hagitz hagitz

hunkigarri bezala oroitzen dut.

**Aspaldiko partez oholztatik aparte bizi izan zenuen. Nola ikusten da final bat behetik?**

2006tik Nafarroako final guztietan egon naiz oholztan. Lehenengo aldia nuen behean, baina, lehenengo aldi berezia zen. Diferente ikusten da, baina ez dakit aurtengoa den urterik egokiena errateko nola bizitzen den behetik. Txapelketako bertze saioetan ere izan naiz eta antzeko bizi izan nuen. **Egiteko berezia izan zenuen bertan: txapeldunaren txapela jartzea. Nola bizitu zenuen Julio Sotori txapela paratu zenion momentua?**

Hagitz, hagitz, hagitz hunkigarria izan zen, hagitz polita, hagitz goxoa. Lehenago ez nuen gehiegi pentsatu momentuan urduritzen nintzelako. Gero, momentuan natural atera ziren elkarri errandakoak eta elkarri emandako besarkadak eta muxuak. Ikusten da atzetik badagoela harreman bat urtetan elkarrean inguruan sortu duguna eta hagitz hagitz polita izan zen. **Urte aunitzez egindako lana eskertu nahi izan dizue Nafarroako Bertsozale Elkarteak. Nola hartu duzue aitortza?**

Hasieran grazia egin zidan nire izena hor ateratzeak. Ni

### Motzean

**Gustuko bertsolari bat?**

Nerea Elustondo.

**Bertsotarako, txapelketa edo plaza libre?**

Bakoitza bere momentuan.

**Plaza kuttun bat?**

Elizondoko Arizkunenean abenduan egin nuena.

**Oholtzara igo aitzinetik baduzu maniarik?**

Ez.

**Paratu nahiko zenukeen gai bat?**

Oraindik ez zait burura etorri.

**Aurkeztu nahiko zenukeen saio bat?**

Saio bakoitzari atera behar zaio berezitasuna.

**Bertsotako oroitzapen on bat?**

Hasierako Bortzirietako Taldekako bertso Txapelketako momentuak.

**Eta txarren bat baduzu?**

Eskolarteko txapelketa batean txapeldunaren izena aldrebes erran nuen.

ere egon izan naiz txapelketako talde antolatzailean eta badakit nola adosten diren gauza horiek. Gero hasi nintzen oharitzen nik egindako lanaren aitortza bat zela txapela paratzea. Hunkitu nintzen eta eskertzen dute nire izena hor agertzea, badagolako jende gehiago, baina kasu honetan aurtan nirekin oroitu direlako eta eskertzekoa delako hori.

**Aunitzetan oholztan ikusi izan zaitugu finaletan. Nola bizitzen da final bat gai jartzaile zarenean?**

Hagitz intentso bizitzen duzu. Badaude ikusten ez diren, baina, kontuan hartu behar diren eta zuk kontrolatu behar dituzun gauza aunitz. Gustatzen bazaizu gauza hagitz polita da aukera hori izatea. Egia da finean txapelketako edozein saio bezalako dela, baina, finalari ematen zaio pisu handiagoa, zerbait jokoan dagoelako. Baina, gustuko baduzu, gauza polita da.

**Nafarroako txapelketan ez ezik, Bertsolari Txapelketa Nagusian ere aritu izan zara aurkezle, baita finaletan ere. Nola kudeatzen da tentsioa eta bertsolariekiko zaintza une horietan?**

Nafarroakoaren gisan, baina dimentsio handiagoak ditu Euskal Herrikoak, eta zuk ere zeure burua gehiago estutzen duzu, aitzinean duzun jende kopurua ere handiagoa delako. Hala ere, antzeko kudeatzen da; zeure burua lasaitzen asmatuz, eta bertze guztia bertze txapelketetan bezala eginez. **Nola prestatzen da aurkezle bat horrelako final baterako?**

Norberak ahal duena egiten du. Saioak egin ahala ikasten duzue lasaiago egoten oholztan, eta gehiago kontrolatzen duzue hori. Nik jende aitzinean egin izan ditut gauzak: dantza dela, trikitixa dela, clown ikastaroak ere egin ditut... Nik uste dut horrek balio izan didala jende aitzinean lasaitasun hori mantentzeko. Egia da, hori landu beharko genukeen zerbait dela. **Horrelako saioetan lasai sumatu ohi zaituztegu gai jartzaileak. Zu nola egoten zara barretetik?**



Nik izaten ditut urduritasunak normalean oholtzara igo eta lehenengo protokoloko hitz horiek guztiak irakurri arte. Gaiak defendatzean edo horiek paratzean normalean lasai egoten naiz; gaiak taldean landu ditugu, ez egun bakar batean, aunitz landutakoak izaten dira eta hagitz barneratuak izaten ditugu eta segurtasuna baduzu horietan. Baina gure lanetik kanpo dau den guztiakin, protokoloekin eta urduriago egoten naiz.

### **Noiz eta nola hasi zinen bertso-tan?**

Bertso munduan ikastolan hasi nintzen. Bertan bertso-larritza ematen genuen, eta handik Bortzirietako Bertso Eskolara salto egin nuen 11 urterekin. Bertan gazteek egiten duten ibilbide hori egin nuen: eskolarteko bertso lehiaketak, gazte sariketak... Eta hori unibertsitatean hasi eta bat-bateko bertso-larritza utzi nuen arte. Gero gai jartzaile izateko saltoa eman nuen, eta geroztik horretan ari naiz.

### **Nola oroitzen duzu bat-bateko bertso-larritza utzi eta bertze leku batean erosoago sentituko zirela pentsatu zenuen unea?**

Bortzirietako Taldekako Txapelketan gerora ere parte hartu izan dut eta hor gustura egon izan naiz, baina gogoan dut nola Nafarroako txapelketan behin izena eman nuen eta hor garbi ikusi nuela lehia ez zela bertsoan aritzeko nire lekua eta ez nuela gustuko. Unibertsitatean hasi nintzen garai hartan, eta gauza bat eta bertze, utzi egin nuen bertsoa. Gero, itzultzeko gogoia piztu zitzaidan. Gai jartzaile taldean jendea behar zenez, bi aldiz pentsatu gabe joan nintzen bertara, izena eman eta gustatu izanen zitzaidan, oraindik hemen segitzen dudalako.

### **Burutan duzu nolakoa izan zen zure lehen plaza gai jartzaile gisa?**

Ez dut burutan, baina badakit hemen eskualdean izan zela. **20 urte baino gehiago daramatzazu plazan zein txapelketan.**



Alaitz Rekondo Ferrero batez ere gai jartzaile bezala egindako lanagatik nabarmendu da. TTPI-TTAPA

### **Nola aldatu da bertso-larritza 20 urte hauetan?**

Bertso-larritza aldatu da jendartearekin batera. Kantuan ari direnak eta gaiak paratzen ari direnak ere aldaketa horren parte dira eta norbera ere aldatu egiten da. Beraz, bai, aldatu da. Txapelketan adibidez uste dut pauso handiak eman direla gai batzuk tratatzeko maneran. Garai batean, arinago jartzen ziren, eta gaur egun gauzak bi aldiz pentsatzen

ditugu, eta gibelean dauden eta aunitzetan ikusten ez diren zeharlerro guzti horiek ere kontuan hartzen ditugu zerbait erran baino lehen.

### **Nafarroaren kasuan ere lurraldean egon da aldaketa bat.**

Lehen bertso-larritza lurraldearen iparraldean ginen, eta irla batzuk zeuden hor barna. Orain Iruñeak hartu du pisu bat, badira Iruñean bertsoan aritze diren bertso-lariak. Sakanan ere orain arte pare bat ziren,

eta orain gazteak ere sartu dira eta Leitzaldean ere badago jendea. Egia da gehienak Iruñetik gorakoak garena baina gai jartzaileetan eta epaileetan badugu Lizarrako jendea. Ikusten da hezkuntza arauak eta helduen bertso eskolak bere fruitua eman dutela, eta jende hori horren bidez sortu dela. **Barren barrenetik ezagutzen duzu Bertsozale Elkartearen 2011tik 2023 hasierara arte izan zinen bertso-lehendakari. Nola etorri zitzaizun horretarako aukera?**

Manolo Arozenaren eskutik. Bera zen ordura arte lehendakari Nafarroako Bertsozale Elkartearen eta nik banituen zuzendaritzan urte mordo bat eta nigan jarri zuen konfiantza eta ni proposatu —>

**«ARGI IKUSI NUEN LEHIA EZ ZELA NIRE BERTSOTARAKO LEKUA»**

**«OHOLTZAN ZEURE BURUA LASAITZEN ASMATU BEHAR DUZU»**



Alaitz Rekondo Julio Sotori txapela paratzen abenduaren 2ko finalean. JOSU SANTESTEBAN/NBE

ninduen lehendakari izateko. Horrela etorri zen proposamena eta nik, nola ez, baiezkoa eman nion.

**Zein dira lehendakariaren ardurak?** Nafarroaren kasuan elkarte ttikia gara eta harremana etxekoa izaten da. Konfiantza erabatekoa da, bai lehendakariak langileengan daukana eta baita alderantziz dagoena ere. Lehendakariaren egitekoa aunitzetan Euskal Herri mailan egiten diren bileretan Nafarroako ordezkari izatea da, eta aldi berean Euskal Herritik Nafarroara ekartzea gaiak lantzeko. Egia da Nafarroaren kasuan langileek dagoeneko informazio aunitz badutela, beraiek ere horretan aritu direlako. Ordezkari bat behar zen eta ni izan naiz, baina hil ala biziko ardurarik Nafarroan ez zait tokatu, eta beti izan dut ondoan jendea laguntzeko eta aholkatzeko. Bertze herrialde batzuetan aditu dut badirela hagitz momentu kritikoak, baina elkarteen dimentsioa

ere handiagoa da eta horrek ere eragina izanen du horretan. Nafarroan familia tiki bat gara, eta niretzat erraza izan da Nafarroako lehendakari izatea. **2008ko krisi ekonomikoaren ondotik hartu zenuen kargua, eta 2023an, Nafarroako bertsolaritzaren loraldi betean utzi zenuen. Aldaketa nabaritu duzu denbora horretan?**

Bai, tokatu izan zaigu prentsaurrekoak ematea Hezkuntza Departamentuak dirulaguntzak kendu zituelako, adibidez. Denak ez dira garai errazak izan, eta elkarrearen beheititik goitirako bidea ezagutu dut. Egoera aunitzez osasuntsuagoa da orain: bertsolari kopuruan, herrialdean hartzen dugu herri kopuruan, hezkuntza arau-

**«LEHENDAKARITZAN BEHEITITIK GOITIRAKO BIDEA BIZI IZAN DUT»**

tuko programan daudeikaste-txe kopuruan... Ezagutu dut aldaketa hori hoberako.

**Julio Sotori txapeldunaren txapela paratu aitzinetik, bertso bat kantatu zenuen, bidean izandako laguneri eskerrak emanez. Bertsolaritzak lagun aunitz eman dizkizu?**

Bai, eta gainera bertsolaritzako arlo desberdinetako lagunak eman dizkit. Baditut pertsona batzuk barruan gordeak ditudan erreferente izan direnak, tokatu zaidalako beraiekin une garrantzitsuak bizitzea. Eta horien barrenean gai jartzaille bezala egin ditudan urte horietan ere jende aunitz ezagutu dut, jende aunitzekin lan egin dut eta horiek ere badira nire bidearen parte.

**«BERTSOLARITZA OSASUNTSU DAGOELA USTE DUT EUSKAL HERRIAN»**

**Gaur egun nola ikusten duzu bertsolaritzaren egoera Nafarroan?**

Uste dut osasuntsu dagoela, mugimendua badago, jende berria badago. Egia da bada-goela gazte edo nerabe tarte bat nahiko eskas dagoena, eta asmatu beharko dela hori indartzeko zer lanketa egin. Heldu garen tokitik ikusten badugu, uste dut osasuntsu dagoela eta momentuz ez duela ematen deskalabru haundirik gertatzen ahal denik. **Eta Euskal Herriko egoera?** Bertsogintza bada indarra duen disziplina bat; agenda begiratzan baduzu bertsolaritza hor egoten da. Horren bueltan zenbat bertsolari aritzen diren, denek baduten kantatzeko aukera... Hori ez dut aztertu, baina, bertzela uste dut ongi dabilela.

**Plazan ere aritzen zara gai jartzaille gisa. Hor ere aldatu da gaitegia eta plazaratzeko modua?**

Bai, txapelketan bezala, gauza bera gertatu da. Orain zerbait idatzi behar duzunean edo mahai gainera atera, pentsatzen duzu nola idatzi, zer kontuan hartu, hortan aldatu da. **Kritika egiteko modua aldatu da?** Nik uste dut kritika beti egon dela, eta gaur ere badela, eta izanen dela gerora ere. Egia da gaur egunean sare sozialak hor ditugula eta bide hori erabiliz jendeak batzuetan kritika errazago egiten duela; izengoiti bat erabiltzen baduzu eta nor zaren erraten ez baduzu... Bertzela, badaude kritika eraikitzaileak egiten dituztenak ere; dena ez da txarra.

**Hemendik aitzinera zer asmo duzu? Non ikusiko zaitugu?**

Mundu horretan segitzeko asmoa badaukat. Duela gutti izan dut plazako saio bat, abenduan izan nuen bertze bat... Bertsolaritza ez da txapelketa bakarrik, bertsoak baditu adar gehiago eta hor segitzeko asmotan nago. Ikusiko dugu zer ekartzen duen bideak eta zer bidegurutz hartuko dugun.



# Eskualdeko sei lagunek preso segitzen dute

Gaur egun, sei preso politiko daude eskualdean: lau Euskal Herriko kartzeletan, bat Frantziako Estatuan eta bertzea etxean ari da zigorra betetzen. Egoera hurbilagotik ezagutzeko asmoz, bi seniderekin bildu da TTIPI-TTAPAK: Eli Iturria Almandozekin eta Gaizka Sarasola Iarزابalekin

## G.PIKABEA BORTZIRIAK

Santi Aragon Iroz (Txantrera-Igantzi), Ibon Fernandez Iradi (Lasarte-Lesaka), Mikel Karrera Sarobe (Arantza), Igor Portu Juanena (Lesaka), Mikel San Sebastian Gaztelumendi (Lesaka) eta Mattin Sarasola Iarزابal (Lesaka). Sei dira gaur egun eskualdeko preso politikoak eta, bana bertze, hamazazpi urte daramatzate preso.

Urteak pasatu ahala, politiki-poliki guztiak hurbildu dituzte. Frantziako Gobernuak 2018an hasi zen hango kartzeletan zeuden presoak Euskal Herriko hurbildu dauden kartzeletara hurbiltzen eta Espainian 2020ko udazkenean hasi ziren presoak Euskal Herriarantz. Sare Herriarantz 2023an eman zuen bukatutzat 1989. urtean euskal presoekin kontrabiatu zen urrutze eta sakanaketa politika. Gaur egun, Euskal Preso Politikoen Kolektiboan 142 preso daude, horietatik zazpi daude Frantziako Estatuan eta gainerakoak Euskal Herriko kartzeletan edo etxean ari dira zigorra betetzen.

Azken hori da Santi Aragon Iroz txantrearraren kasua. Etxean ari da zigorra betetzen, Igantzin. 2001ean atxilotu zuten eta 20 urtetik goitiko zigorra Espainian Madrilgo, Asturiasko, Cadizko eta Logroñoko kartzeletan eta Euskal Herriko Martuteneko (Donostia, Gipuzkoa) kartzelan egin du. Familia Lesakan duen Ibon Fernandez Iradi lasartearra Martuteneko kartzelan dute. Gaixo dagoen presoetako bat da, Esklerosi Anizkoitza du. 2003an atxilotu zuten, 2010eko abenduan agertu zitzaizkion

eritasunaren lehenbiziko sintomak eta 2013ko urtarrilean emantzioten diagnostikoa. Behin baino gehiagotan eskatu dute zigorra alde batera uzteko, baldintza medikuak betetzen direlako. 2022an Lannemezantik (Frantzia) Martutenera hurbildu zuten. Mikel Karrera Sarobe arantzarra, berriz, 2010ean atxilotu zuten eta Paris aldeko kartzeletan eman du denbora gehiena. 2019an Parisetik Lannemezarrera (Frantzia) hurbildu zuten. Igor Portu Juanena lesakarra 2008an atxilotu

zuten eta 2021ean Kordobatik (Andaluzia, Espainia) Zaragozara (Aragoi, Espainia), eta hilabete batzuen buruan, Iruñeko kartzelara hurbildu zuten. Hantxe ari da zigorra betetzen. Mikel San Sebastian Gaztelumendi eta Mattin Sarasola Iarزابal lesakarrak ere 2008an atxilotu zituzten. San Sebastian 2021ean Murtziatik (Andaluzia, Espainia) Sorriara (Gaztela eta Leon, Espainia) eraman zuten eta joan den urtean Zaballara (Araba). Sarasola 2021ean Jaendik (Andaluzia, Espainia) Dueñan



Urtarrilaren 6an herriko presoekin aldeko elkarretaratzea egin zuten Lesakan.

sera (Palentzia, Espainia) eta 2022an Zaballara hurbildu zuten.

Euskal presoekin errealitatea bertatik bertara ezagutu nahi izan du TTIPI-TTAPAK, eta presoekin bi seniderekin jo du: Eli Iturria Almandoz arantzarrarengana eta Gaizka Sarasola Iarزابal lesakarrarengana.

## Gaizka SARASOLA IARZABAL, Mattin Sarasolaren anaia

«Mattinek egunero deitzen ahal du telefonoz, eta hilabetero ikusten dut. Elkarriketa hau irakurriko duten aunitzek senideren bat izanen dute Euskal Herriko urrutitaz, eta beraien arteko komunikazioa ez da horrelako maiztasunarekin izanen, baina seguru lasaigo bizi dutela». Gaizka Sarasola Iarزابal lesakarraren hitzak dira. 2008az geroztik, preso du Mattin anaia eta agerian utzi du bere ezinegona, gogorra baita anaia preso izatea. Hamasei urte hauen errebaso labur bat ere egin du, eta honela kontatu du: «Atxilotu eta kolpe gogorra da. Gero, nolabait egoera berriarekin bizi izaten ikasten duzu. Etxekoontzat inportantea bera ongi eta indartsu sumatzen dugula da, eta horrek lasaitasun puntu bat ematen du, nahiz eta kezka beti dagoen».

## Jaen, Dueñas eta Zaballa

Urte luzez 1.600 kilometrotik goiti egin behar izan dituzte anaia bisitatzeko joan-etorri bakoitzean, hamahiru →

## Eskualdeko presoak

PRESOA	HERRIA	NOIZTIK PRESO	ESPETXEA
Santi ARAGON IROZ	Igantzi	2001	Etxean preso*
Ibon FERNANDEZ IRADI	Lesaka	2003	Martutene (Gipuzkoa)
Mikel KARRERA SAROBE	Arantza	2010	Lannemezantik (Frantzia)
Igor PORTU JUANENA	Lesaka	2008	Iruñea (Nafarroa)
Mikel SAN SEBASTIAN GAZTELUMENDI	Lesaka	2008	Zaballa (Araba)
Mattin SARASOLA IARZABAL	Lesaka	2008	Zaballa (Araba)

\*OHARRA: SANTI ARAGON 2023KO URTARRILETIK ETXEAN ARI DA ZIGORRA BETETZEN, ESKUMUTUR TELEMATIKOAREKIN.

→ urtez Jaengo (Andaluzia, Espainia) kartzelan eduki baitzuten preso. Azken urteotan, ordea, etxetik hurbilago dute: 2021ean Dueñasera lekualdatu zuten eta 2022an Euskal Herrira, Zaballako kartzelara. Sarasolak aitortu du «bidaia laburragoa izatea abantaila handia dela. Bera hurbilago sentitzen dugu. Euskaraz aditzen ahal du irratia, telebistan bertako berriak hartzen ahal ditu... Bertzalde, lagun gehiago daude elkarrekin, eta eguneroko giroa eurentzat atseginagoa izateko aukera ekartzen du horrek». Baina kartzela izaten segitzen du: «Kartzela bakoitzak ditu bere alde txarrak eta ez hain txarrak. Baina onik ez!», azpimarratu du. Gainerakoan, gaur egun, astean behin kristalaren bertze aldean 40 minutuko bisita bat izateko aukera du Mattinek, eta hila-betean aurrez aurreko bi bisita, bakoitza ordu eta erdikoa.



Gaizka Sarasolak 2008. urtetik Mattin anaia preso du.

### Espetxe politika eta elkartasuna

Salbuespenezko espetxe politikaren harira ere mintzatu da lesakarra. Bere anaia kasuan, «7/2003 legea indargabetu ezean, 40 urteko zigorra bete beharrean dago. Biziarteko kartzela zigorra ez dela diote, baina Alemanian biziarteko kartzela zigorrak 15 urtetara berrikusten dituzte, Frantzia 18 urtetara, edo Italian 26 urtetara. Espainiako Estatuan ere bada presoaldi iraunkorra 25 urtetara berrikusteko aukera. Hortik atera kontuak!».

Bide horretan, elkartasunaren garrantzia aipatu du, baita «hurbilekoen babesa beti sentitu» izan dutela eta «funtsezkoa» dela azpimarratu ere. Hala ere, bada inguruan sumatu duen joera bat: «Presoen afera moldatua dagoela edo laster moldatuko denaren sentsazioa zabaldua dagoela iruditzen zait, baina nire ustez, denak kalera bidean izan arte luze joateko arriskua bada oraindik». Horrekin batera bertze kontu batek ere kezka sortzen dio: «Orokorrean, jendartean zigor

neurrien aldeko nolabaiteko jarrera nagusitzen ari dela iruditzen zait, eta kezkarria da».

### Eli ITURRIA ALMANDOZ, Mikel Karreraren bikotekidea

«Gure egoera ez da izaten ahal den errazena. Ez dugu datarik. Baina Mikel gogor dago. Denok bezala, baditu bere goiti-beheitiak, baina indartsu dago. Eta bera ongi badago, gu ere ongi gaude, eta gu ongi bagaude

## «KARTZELA BAKOITZAK DITU ALDE TXARRAK ETA EZ HAIN TXARRAK»

## «ZIGOR NEURRIEN ALDEKO JARRERA NAGUSITZEN ARI DA JENDARTEAN»

GAIZKA SARASOLA, SENIDEA

bera ere bai». Halaxe aitortu du Eli Iturria Almandoz aranztarrak, Mikel Karrera Saroberen bikotekideak. Bisitaren bezperan harrapatu dugu, gogotsu. Garbi solastatu da bizi izan duenez, bizi duenez eta etorkizunaz, bere ilusioez eta bere kezkez. Urteotan gozotik batera ez duten egoeratik pasatutakoa dela kontatu du, baina «ikusitakotik ikasi» ere egin du. «Pasatu diren gauza batzuei garrantzia kentzen diet, baina ez zaizkit atzertzen, nire barrenean daude». Hala ere, denaren gainetik, «gogorrena» hauxe egiten zaio: «Mikel ongi ez dagoenean, triste dagoenean edo osasunez ongi ez dagoenean, bere ondoan ezin dudala egon. Bi ordu eta erdira dugu, baina dugun biziak ez dit dena utzi eta harat joateko aukerarik ematen».

Maiatzean 14 urte beteko ditu Karrerak preso. Iturriak, ordea, ez dio horri garrantzirik ematen: «Aunitz dira, pisutsua da, baina ez naiz urteak kon-

tatzen aritzen. Gure familia kontziliazioa horrela eraiki dugu eta ez diogu buelta gehiago eman nahi. Mikel eta biok bera kartzelan dagoenetik gara bikote. Gauza batzuk aldatuko nituzke, horixe baietz, zoragarria izanen litzateke etxean izatea eta egunerokoan edozeinentzat tontakeriak izaten ahal diren mila gauza berarekin egitea, baina ezin dugu».

### Paristik Lannemezanera

2019an Parisko kartzelatik Lannemezangora hurbildu zuten, eta han segitzen du; «hamahirugarren edo hamalagarren kartzela dugu», gaineratu du Iturriak. «Paris inguruko eta goitirago gelditzen diren gehienak ezagutu ditugu». Horren harira, Frantziako espetxe motak esplikatu ditu: «Frantzian, epaitu aitzinetik *Maison d'Arrêt* deituriko kartzelatan edukitzen dituzte, eta epaitu ondotik, zigor handiak dituztenak *Maison Centrale* delakoetara eramaten dituzte. Epaitu ondotik ezagutu ditugunak bi dira: Parisen Reau Sud Francilien eta Lannemezan». Eta batetik bertze «kristoren alde» omen dago: «Reaun etsaiak ginen, gaizki eta zorrotz tratatzen gintuzten, esperientzia hagitz txarra izan genuen...». Kontrara, Lannemezangoa «Frantzia osoan ezagutu dugun egokiena» da bere irudiko: «Hobere na ez dut erranen, kartzelaz ari garelako, baina egokiena bai, bertzeak bertze, funtzionarioek gurekin duten tratua ikusita». Gehiago ere bai: «Duela bortz urte Lannemezanera eraman zutenean hamahiru euskal preso zeuden, eta giro aunitzez hobea harrapatu genuen».

Distantzian ere sumatu du aldea, mila kilometro baino gehiago egitetik, Arantzatik 230 bat kilometrotara dagoen kartzela batera pasatu baitira. Hala ere, bereziki «hegazkineko edo treneko txartelak ez erosi behar izateak lasaitasun ikaragarria» ematen dio: «Txartelak hartuz gero, horixe da aukera bakarra eta bisitak ez galtzeko, mane-



ra aunitzetan egin izan ditugu Parisera bidaiak, alaba ttikia zela motxilan hartuta. Lanne mezango kasuan, edozein gauzogatik berandu ailegatzen bagara, Mikelek abisatuko du, eta bisita orduak galduko ditugu, baina bisita osorik ez. Horrek lasaitasun handia ematen du».

Espainiako Estatuan ere eduki izan dute Karrera, Iturriak erran duenez, «momentu jakin batzuetan, epaiketak tarteko». Madrildo bi espetxe ezagutzea tokatu zaie, Estremera eta Soto, eta ez ditu gustukoak: «Ez gaituzte ikusi ere egin nahi, eta hori garbi erakutsi izan digute hasiera-hasieratik». Bertzalde, «azken aldiz Espainiara eraman zutenean, Frantziara bueltan, Martuteneko kartzelan sei egunez eduki zuten. Hego Euskal Herrian, euskal preso aunitzekin, denak giro onean... Hori txute bat izan zen».

### Bisitak

Bi aldeak probatuta, nahiago du Frantziako karteletako martxa. Eta bisitak aipatu ditu. Alde batetik, hilabete behin, UVF delako aurrez aurreko bisita luzeak dituzte: «Gure kasuan, hilabete behin, kasurik hoberenetan 48 orduz eta bertze batzuetan 24 orduz, familiako bizipenak izaten ditugu. Dena elkarrekin egiten dugu, etxetxo batean sartzen gara, giltzapetuta, handik mugitu gabe. Baina bertze gauza batzuk bizitzeko aukera dugu: solastatzeko, lasai egoteko, alabak attarekin egiten ditu otorduak, etxeko lanak, dutxatu... Guk egunero egiten ahal ditugu, baina Mikelek ordu horiek bakarrik ditu».

Aitortu duenez, bisita horien bueltan antolatzen dute hilabetea: «Gure hilabetea ziklikoa da. Attarekin egon eta aste hori han sentitutako goxotasunarekin pasatzen dugu, hurrengo egunerokoan zentratu eta gure bizia zein den ikusiz joaten zaigu, eta hirugarrena agudo bera ikustera joan den garelako buruan. Alabak ere horrela bizi du».



Eli Iturriaren bikotekidea da Mikel Karrera eta 2010etik preso dago.

Aurrez aurreko bisita horietaz aparte, «astean gehienez bi egunez, eta baimen berezia lortuz gero hiru egunez, egunean sei orduko bisitak izaten ahal ditu, mahai baten bueltan. Alde ederra dago Espainiarekin konparatuz, hankristalak banatzen baititu presoak eta bisitariak».

Gisa berean, estatu batetik bertzeri telefono deiekin dagoen alde ere azpimarratu du: «Mikelek, ordainduz gero, nahi duen guzietan eta nahi duen orduan deitzen ahal du, orain txaboretan telefonoak paratu dituzte. Espainian uste dut astean zortzi minutuko hamabortz bat dei izaten direla. Deskuiduan eskegi baduzu, dei bat guttiago».

### Salbuespen neurriak indarrean

Presoen sakabanaketaren eta espetxe politikaren gaia ere hizpide hartu ditu Iturriak, eta «sakabanaketa bukatutzat» jo du: «Presoak hurbildu dituzte». Baina dena ez da bukatu: «Aznarren garaian legeak bihurri-

tu zituzten euskal preso politikoak 'kartzelan ustel zitezen'. Hitz horiek erabili zituzten. Salbuespen legedi horrek indarrean segitzen du. Aldatzen ez den bitartean, Mikel eta Bortzirietako preso gehienak noizbait kanpoan ikusi ahal izatea hagitz zaila izanen da. Presoak pixkanaka-pixkanaka ateratzen ari dira, baina zigor izugarri luzeak osorik beteta. Inork ez die deus oparitu. Beraz, pausoak aitzinera egin dira,

**«GU INDARTSU  
BAGAUDE,  
BARRENEAN ERE  
HALA DAUDE»**

**«GURE EGOERA  
EZ DA IZATEN AHAL  
DEN ERRAZENA,  
EZ DUGU DATARIK»**

ELI ITURRIA, SENIDEA

lana egiten ari da, baina oraindik aunitz dago egiteko».

Elkartasunaz ere aritu da, eta «babesa» sentitzen duela erran du, nahiz eta «batzuetan gehiago» nahiko lukeela onartu. Horrekin batera, irakurleei «babesa erakusten segitzeko» eskatu die: «Gu hemen tente, gogor eta indartsu gaudenean, barrenean daudenak ere halaxe egoten dira». Eta bide beretik, bisitek duten garrantziaz aritu da: «Mikelentzat bisitak dituela ikustea, lagunek berarekin segitzen dutela ikustea, handia da. Betiko jendea hor dagoela eta berria heldu dela jakiteak indarra ematen dio».

### Kezka eta ilusioa

«Ezinegona», «kezka» eta «beldurra» ere aipatu ditu Iturriak: «Guk Frantziako Estatuak emandako bizi osorako kartzela zigorra dugu gainean, dagoeneko zigor gogorrek Espainian eta epaiketa mordoxka Madrilen esperoan. Bi estatuetako zigorren balizko batuketa batek egoera beltz uzten ahal digu». Gehiago ere erran du: «Bere kide aunitz hegoaldeko kartzelatar mugitu dituzte eta bertze batzuk bidean dira. Litekeena da etorkizunean berak ere hegoaldean bukatzea. Momentuz, daki-guna da Lannemezanan gero eta guttiago direla, oraintxe sei, eta bera, izatekotan, mugitzen azkena edo azkenetarikoa izanen dela. Frantzian bakarrik gelditzeak ere kezka sorrarazten dit».

Etorkizunaz galdetuta, «zoritxarrez, azken hamar urteotan ikusten dudana bezala» ikusten du: «gure egoera ez baita erraza. Etorkizunean, Mikel etxean nahiko nuke, baina urruti ikusten dut. Gainera, nahiago dut urruti ikusi, ilusioa egiteak muturrekoak hartzeko aukerak handitu berterik ez baititu egiten». Honela gehitu du: «Heldu dena hartuko dugu, hobe baldin bada hobe, txarragoa ez da izanen, kartzelan dagoelako».



laz euriak kaltetutako eta orain moldatu duten pistetako bat. UTZITAKOAK

## lazko uholdeek kaltetutako pistak moldatu dituzte

lazko azaroan esleitu zituzten lanak eta dagoeneko bukatu dituzte. Denera zazpi pista moldatu dituzte

### A. LARRETXEAK

2023ko maiatzean izandako uholdeek hainbat kalte eragin zituzten ez bakarrik herri-gunean, baita baserrietako bideetan eta pistetan ere. Udalak iazko azaroan esleitu zituen moldaketa lanak eta Nafarroako Gobernu Toki Administrazioaren laguntzarekin moldatu dituzte. Moldatutako bideak ezinbertzeko azpiegiturak dira baserri eta etxe horietako bizilaguentzat.

Denera zazpi pista moldatu dituzte. Suspetitiki auzoan, Eguri baserriko bidea, Mi-

txeoren bordatik aitzinera doan auzo bide printzipala eta Suspetitiki 25erako bidea; Eltzaurdia auzoan, Larratzen bordako bidea; Zalainen, Mandanikiko bordako bidea; Zia auzoan, Peñabordatik goitiko bidea; Kaule auzoan Iratxeke Berea inguruko bidea eta Garaitarretan, Uxane inguruko bidea moldatu dute, erreka ondoan harri-lubeta bat eginez.

Lan hauek 329.339,55 euroko kostua izan dute, eta Nafarroako Gobernu Tokiko Inbertsio planetik % 75ean lagundu dira.



UTZITAKOAK

## Giro ederra izan da inauterietan

Kaldereroekin hasi, eta asteleheneko mozarroekin bukatu dira aurtengo inauteriak. Jende aunitz bildu da, batez ere igandeko Inudeen eta Artzainen desfilean. Denera 112 bikote atera ziren dantzan eta konpartsa eta banda ere hagitz jendetsuak izan ziren. Mozorroak heldu den urtera arte gordetzea tokatzen da orain.

## Mugari buruzko jardunaldia egingen dute martxoaren 1ean Beralandetan

### A. LARRETXEAK

Ipar Euskal Herriko Garapen Kontseiluak, Cederna Garalur elkarteak eta Euskal Herriko Unibertsitateak sustatuta, muga biztanleen mugaz gaindiko ohiturak eta etorkizunerako dituzten nahiak ikertuko dituzte. *Mugalur, mugaldetik lurral-*

*dera* izena du proiektuak eta bederlatzi tailer egingen dituzte. Horietako bat martxoaren 1ean, ortziralea, egingen dute 19:00etan Beralandetan. Bortzirietako, Xaretako, Azkaineko, Urruñako eta Biriaturako herritarrak deitu dituzte eta aitzinetik izena eman behar da.



**OGIA**  
**PIZZAK**  
4 gazta • Labezar • Berezia • Barazkiekin • Margarita  
**ENPANADAK**  
Oilaskoa • Aretzea  
**ALFAJOREAK**  
Maizena eta txokolatezkoak  
**PRENTSA...**

goizez: arrotsalde: astelehenetik larunbatera 7:00-13:30  
astelehenetik ortzegunera 17:00-19:30  
ortziraleak eta larunbatak 19:00-22:00

Eztegara, 18 - BERA  
848 410 115



# Txileko hezitzaile baten egonaldia Mukixun

Astebeteko egonaldi pedagogikoa egin du Cristina Obando Acuña hezitzaileak Mukixu haur eskolan


## A. LARRETXEA

Txileko Los Rios eskualdeko Cristina Obando Acuña hezitzailearen bisita izan dute azken egunetan Mukixu haur eskolan. JUNJI instituzioko Paillaco komunako Raices de mi Pueblo haur eskolako hezitzaile da Obando eta astebeteko egonaldi pedagogikoa egin du herrian. «Nire eginkizun profesionaleko ezagutzak aberastu eta hazkunde profesional eta pertsonal bat izateko etorri naiz hona», kontatu du Obandok.

2020an, lan egiteko modua aldatzen hasi ziren lan egiten duen eskolan. «Baina, orain arte hori falta zitzaigun, ni hemen egiten ari naizena: leku batean egon eta behatzea. Lantzeko puntu aunitz daude eta egun bakoitzean begirada gauza batean paratu dut».

Hainbat kontuk harritu dute, eta gehien harritu duena «bertako hezitzaileek duten sentibilitatea da, lanerako duten sotiltasuna eta ahotsaren tonua aldatzeko duten gaitasuna» izan da.

Bada harritu duen bertze kontu bat: haurrek duten mol-



Cristina Obando Acuña hezitzailea.

datzeko gaitasuna. «Hain txikiak izanda ere zer pazientzia duten, nola dakiten esperatzen, nola ulertzen duten ingurukoa, nolako harremana duten bertze haurrekin...».

Txilera «hagitz kontent eta eskertuta» itzuliko dela dio Obandok. «Mukixuko langileek besoak zabalik hartu naute, eta beti prest egon dira zalantzak argitzeko. Hemen ikasitako guztia nire lankideekin konpartituko dut».



Agerrako bizilagunek auzolanean moldatu dituzte ateetako sareak. UTZITAKOA

## Auzolanean aritu dira Agerra auzoko bizilagunak

### A. LARRETXEA

Agerrako bizilagunek auzolana egin dute udalaren laguntzarekin. Aisialdirako espazio ederra dago bertan: haurrentzako parkea, frontoia, roko-dromoa, eta baita futboleko eta saskibaloiko aritzeko pista ere. Hain zuzen, pista hori moldatzeko auzolana egin dute.

Pistako ateetako sareak aldatu dituzte, eta heldu den egunetan margotuko dituzte hesiak. Udalak paratu du materiala, eta auzotarrek egin dute eskulana. Udalak nabarmendu du auzolanak «emaitza onak» ematen dituela, eta herrigintzaren «zutabe garrantzitsua» dela: «Bejondeiala bizilagunei».

## Liburutegia ireki dute hilabete batez itxita egon ondotik

### TTIPI-TTAPA

Hilabetez itxita egon ondotik, dagoeneko ireki dute liburutegia. Udalak jakinarazi du egoera horrekin arrunt kezkatua dagoela aspalditik, eta egindako saiakerak ez dutela fruiturik eman: «Hala ere, ez dugu amorerik ematen eta

Nafarroako Gobernuak Kultura Zuzendari Nagusiarekin bilera egiteko eskaera egin dugu», nabarmendu dute. Hauek dira eskaera nagusiak: liburutegiaren funtzionamendua txukuna bermatzea, eta liburuzaina euskalduna izatea, «onartezina baita ez izatea».



## PRIM, c.b.

### Fisioterapia Zentroa



*Etorri eta probatu debalde!*

San Esteban, 17 • T./F. 948 625 206 • BERA  
Colón Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN

 Centro Prim  regina.tolosaechebare



Denda, 948 631 217  
T. 630 136 863  
Julio Caro Baroja, 6 - BERA  
jauzenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean  
Erreformat, etxe berriak  
Lantegietako mantentze-lanak

Eguzki-panelen instalazioa  
eta dirulaguntzen gestioa

## Ainhoa Alzuguren Mitxelena

Abokatutza orokorrean • Herentziak  
Alokairuak • Arazo administratiboak

Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deltu hitzordua hartzeko

Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaalzuguren@gmail.com



Zakuzaharrek musika bandaren laguntzaz ibili ziren karrikaz karrika. A. AROTZENA

## Umore eta giro ederrarekin ospatu dituzte inauteriak

80 bat zakuzahar atera ziren igandean eta asteleheneko karrozen artean harrera egin zioten Beti Gazteko sokatira

### AITOR AROTZENA

Eguraldi gorabeheratsurekin, baina giro ederrarekin joan dira aurten ere inauteriak. Ohi bezala, larunbat eguerdirako hasi ziren lehen mozorroak ateratzen, baina igandea izan zen egun handia. Lehenik tti-kiak eta gero handiak, zakuzaharrek egin zituzten beraien harat-honatak, trikitixa taldearen eta musika bandaren laguntzarekin. Helduetan 80 baziren. Goitarrak eta Fraindarrak ere ibili ziren baserriz baserri, astelehenean giro petralarekin. Astelehen eguerdian lehertu zen ekaitza eta



Goitarrak euripean astelehenean.

horrek karrozen desfilea eta Beti Gazte sokatira taldeari egindako ongietorria zapuztu zituen, baina umorea galdu gabe, karroza eta mozorro ikusgarriak plazaratu zituzten.



UTZITAKOA

## Eñaut Arburua Gipuzkoan txapeldunorde

Gipuzkoako pista estaliko atletismo txapelketan, Irungo Bidasoa Atletiko taldean ari den Eñaut Arburua Portuk 16 urtez beheitiko 300 metroko lasterketan txapeldunorde izan zen otsailaren 3an Donostiako Belodromoan, bere marka onena eginez (39.28). Euskadiko txapelketan ere aritu da.



BETI GAZTE

## San Antongo ibilaldi arautuko sariak

25 bikotek eta hirukotek parte hartu zuten urtarrilaren 21ean Beti Gazte antolatutako San Antonerako ibilaldi arautuan. Horien artean, Mertxe Antzizar Iriartek eta Mila Ibarra Dendarietak lortu zuten lehen saria eta Txiku Antzizar Arretxeak eta Montxo Telletxea Pellejerok bigarrena.

**LINDDURRENBORDA SAGARDOTEGIA**



Txotx denboraldiaren irekiera **urtarrilaren 12an**.  
Ortzegunetik igandera irekita, eguerditik aitzinera.

**Egin erreserba!!**

NABAZ AUZOA LESAKA (NAFARROA) · TEL. 948 63 72 12

**FRANZESKORRETA**  
FRANZESKORRETA, S.L.  
FRANZESKORRETA, S.L.

**BILTEGIA: 948 630 102**  
**SAKELAKOA: 633 480 563**

Bidasoa, 76 - afaa 21-22 · BERA

**Manterola**  
Tekniko instalatzailea

**ITURGINTZA · GASA KALEFAKZIOA**  
Zerbitzu anitzak & Gremioen koordinazioa

**629 449 602**

**TXIMISTINDAR**  
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK



Zalain Ind., 42 Bera.  
948 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 59 65



# Lesakako V. mendi lasterketa prest martxoaren 10erako

14 kilometro luze eta 900 metroko desnibela duen ohiko ibilbidea prestatu du aurten ere Beti Gaztek, Frainera eta Unanura igoz eta martxoaren 8ra arte eman daiteke izena



Kirolariak Frainera igotzen joan den urteko mendi lasterketan. FIDEL ORDOKI

## A. AROTZENA

Beti Gazte elkarte antolatutako Lesakako Mendi Lasterketaren laugarren edizioa martxoaren 10ean egingen dute. Igandean 10:00etan abiatuko da 14 kilometro luze eta 900 metroko desnibela duen lasterketa nagusia plazatik eta Frain (455 metro) eta Unanue (650 metro) igo beharko dituzte berriz ere plazan helmugaratu baino lehen.

## Izena ematea martxoaren 8ra arte

Izena emateko epea martxoaren 8an bukatuko da, 20:00etan, [www.kronoak.com](http://www.kronoak.com) webgunean eta soilik online egiteko aukera izanen da. Izena eman dutenek dortsalak lasterketa bezperan hartzeko modua izanen dute, baita egunean berean ere. Izena ematearen prezioa 22 eurokoa izanen da, 19 eurokoa Beti Gazteko bazkideentzat. Lasterketaren babesle egin nahi duen edonori ere deia egin nahi diote. «Nor-bait, edozein modutan, laguntzeko prest bada, gurekin harremanetan jartzea eskatzen diogu», jakinarazi du Beti Gazte, [mendia@betigazte.net](mailto:mendia@betigazte.net) helbide elektronikoan edo 626 11 81 23 telefonora deituta.

Iazko laugarren edizioan 182 kirolarik parte hartu zuten eta kopuru hori gaintzea espero du aurten Beti Gaztek. Errekorrei dagokionez, Hondarribiko Joxe Amunarrizek egin zuen gizonetzkoena 2019ko lehen edizioan (1.11.15) eta Txurregi taldeko Maria Ordoñezek emakumeena iazko edizioan (1.26.52).



Ibai LORENZO BERSALUZE, Eibar >

## «Ibilbide Duala egiteak lan-munduan lehenengo urratsak ematen laguntzen dizu»

**Adina:** 20 urte

**Gradua:** Industria Prozesuetako Ekoteknologiako Ingeniaritza (Green Manufacturing)

**Zaletasunak:** Gimnasia joatea eta orokorrean kirola egitea eta ikustea.

**Industria Prozesuetako Ekoteknologiako Ingeniaritza graduak 3. mailan zaude: zergatik aukeratu zenuen gradu hori eta zergatik Mondragon Unibertsitatean?**

Betidanik izan dut nahiko argi ingeniaritza bat egin nahi nuela. Ate ireki askotara joan nintzen eta, azkenean, Ekoteknologiako Ingeniaritza aukeratu nuen. Arrazoi nagusia industriak ingurumenean duen inpaktua murriztearen ideia erakargarria iruditu zitzaidalako izan zen. Mondragon Unibertsitatea aukeratu nuen alde batetik jasangarritasunarekin lotutako graduen artean beraien eskaintza erakargarria iruditu zitzaidalako eta, bestetik, ikasketa ereduarengatik.

**Nolako izan da erain arte bizitako esperientzia?**


Orain arte, ona. Ikasturtean zehar, azterketa asko egin ditugu, baina horrela ez ditugu urtarriean azterketa finalik. Esperientzia onenak proiektuak izan dira, nahiz eta taldekideekin haserreak, tirabirak eta arazo asko egon diren.

**Zer metodologia erabiltzen duzue, nolako da?**

Metodologia asko gustatzen zait. Teoria beharrezkoa da baina, ez baduzu aplikatzen, ahaztu egiten zaizu. Gainera, eskertzen dudana beste gauza bat irakasleekin gertutasuna da, prest daude zalanza guztiak argitzeko, bai klasean bertan bai klase-orduetatik kanpo ere.

**Unibertsitateak zer da gehien gustatzen zaizena? Eta zerbait hobetzeko?**

Esperientzia politerrak nere ikaskideekin proiektuetan izan dira. Bertan ikaskideekin denbora asko pasatzen duzu eta zuen arteko erlazioa asko hobetzen laguntzen dizu. Hobetzeko, Galarretako campusean dauden kirol ekipintzen kopurua handitzea proposatuko nuke. Donos-



tia ondoan egoteak abantaila asko ditu baina, Arrasaten ikasle gehiago egonda, kirol txapelketa handiagoak antolatzen dira.

**Lanean ari zara ikasten duzun bitartean, DUAL ereduak. Non ari zara jardunean eta zer lan mota egiten duzu?**

Bai, Mondragon Unibertsitatea aukeratzeko beste arrazoi bat dual ereduak egiteko aukera izan zen. Fagor Automation enpresan ari naiz lanean. Ni nabilen lantegian motor elektrikoak fabrikatu eta konpontzen dira. Nagusiki, ekizipen orriak, planoak eta muntai kuadernoak egiten ibili naiz. Horrez gain, utilajeak diseinatu eta montatzen edo utilaje berriak izendatzeko tresna bat egiten ere ibili naiz.

**Zer nolako ekarpena egiten duzu eredu dualak?**

Ba gradu osoaren zehar teoria asko ikasten da, baina askotan teoria hori guztiari ez dakigu nola aplikatu. Egia da proiektuak egiten direla, baina lanarekin ez dauka zenikusirik. Duala egiteak lan-munduan lehenengo urratsak ematen laguntzen ditu. Dualari esker, unibertsitateak iritertekoan, graduaren titulazioaz gain, urte bateko lan esperientziarekin irtenko naiz. Nahiz eta gogorra den, nire gomendioa duala egitea da.

**Etorkizunari begira zer asmo dituzu?**

Ikasturtea ondo atera eta hurrengoan Erasmus-en joatea da. Hortik aurrera ez daukat oso argi zer egingo dudana, baina seguruenik ikasten jarraituko dut, masterrren bat egiten.

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)





Hainbat herritar banderolekin egindako elkarretaratze batean. AZKUA BIZIRIK

## 'Azkua Bizirik' banderolak salgai paratu dituzte

Bortz euroren truke eskura daitezke okindegian eta kultur etxean eta balkoiak banderolez betetzeko deia egin dute

### IRUNE ELIZAGOIEN

*Azkua Bizirik* banderolak salgai daude 5 eurotan Herriko Okindegian eta Pello Apezetxea Kulturgunean. Denen artean indarra eginez, balkoiak banderolez betetzeko deia egin du Azkua Bizirik plataformak.

### Kantu topaketa

Nafarroako kantu topaketa dela eta, Pello Apezetxea Kulturgunean otsailaren 24an, larunbatean 11:00etatik 14:00etara biltzeko deia luzatu dute. Edonor ongi etorria izanen da eta instrumentuak eramateko aukera ere bada.

### Gauza galduen atala

Behin baino gehiagotan agertu izan dira herrian galdutako gauzak. Hemendik aitzinera, [www.etxalar.eus](http://www.etxalar.eus) webguneko Objektu galduak atalean argitaratuko da horien berri. Aurkitutako gauzak kultur etxean altxatuko dituzte.

### Podologo zerbitzua

Aurten ere podologo zerbitzua eskainiko dute Larraburuan egunotan: martxoak 8, apirilak 12, maiatzak 10, ekainak 7, uztailak 5, abuztuak 2, irailak 6, urriak 4, azaroak 8 eta abenduak 13.



IRUNE ELIZAGOIEN

## Giro onean joan dira inauteriak

Aurreikusitako ekitaldi guztiak beteta, eguraldiak lehen egunetan aunitz lagundu ez bazuen ere, giro ederrean joan dira inauteriak. Goitiko argazkietan ikusi bertzerik ez da, zein armonia onean pasa diren 2024ko inauteri bestak. Asteartean, gainera, eguraldi eguzkitsu eta epel ederrarekin.

**F. LANCHAS**  
Akutxiladorea eta bernizatzailea  
Parket eta parket flotatzailea jartzea  
Mota guztietako zolak  
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

**USOA kooperatiba**  
🛒 ⚙️ 🍷 🔧 🗑️  
☎ 948 635 214 📞 605 631 244 ETXALAR

**ZUBIONDO**  
JATETXEA-SAGARDOTEGIA  
EGUNEKO MENUA  
SAGARDOTEGI MENUA  
KARTA  
OGITARTEKOAK  
PLATER KONBINATUAK ...  
T. 948 625 472  
Alasta karrika - BERA  
zubiondojatetxea.com

**MARITX**  
• INGENIARITZA ELEKTRIKOA  
• PROIEKTU ELEKTRIKOAK  
• BOLETIN INDUSTRIA  
• INSTALAZIO ELEKTRIKOAK  
T. (0034) 636 617 450  
Legia, 23 - BERA





Mozorro tikiak etxez etxeko eskean. ANA ETA ITZIAR



Baratzondon inauteriak ospatzen.

## Aurten ere giro ezin hobean joan dira inauteriak

Haur eta gazteek etxez etxeko eskean ibili ziren eta Baratzondoko jubilatuek ere bazkaria izan zuten

### ANA ETA ITZIAR

Mozorroen arropak astindu, musika doinuek barrenak mugitu eta altxaferoarekin batera hasi ziren mozorroak karrikak alaitzen, inauteriei ongiatorria emanez.

Ortzirale goizean hasi ziren etxez etxeko ibilbidean eta auzo eta karrikak alaitzen zizuten bitartean herrian ere izan zen zer egin. Arratsaldean jokoak izan ziren frontoian eta ondotik merienda goxoa ere dastatu ahal izan zen Guraso Elkartearen eskutik. Arratsean mozorroak afaria izan zuten Biltokin.

Larunbatean, berriz, mozorroak goizean hasi ziren eskean eta bitartean, hau ere Guraso Elkarteak antolatuta, musikaz alaituriko aperitibo eta bazkaria izan ziren Biltokin. Giro ederra sortu zen jendea mozorroturik agertzen zen heinean. Irri eta kantuen artean bazkaria ere giro ezin hobean joan zen, leporaino beteta zegoen elkartean.

Baratzondo Elkarteko jubilatuek ere ez zuten inauteriez gozatzeko aukera galdu nahi izan. Larunbatean egindako bazkarian ateratako argazkian argi aski ikusten den bezala,

umore ederrarekin ibili ziren hor ere. Arratsaldean, Guraso Elkartearen eskutik Oihan Vegarekin izan zen dantzaldia frontoian eta giro paregabean joan zen hau ere. Ilunabarrean (mozorroen eskutik) pintxoak dastatu ahal izan ziren Estan-koan. Ondotik etxeetan barrera banatutako zenbakiekin zozketa egin zuten eta ondotik Biltokin afaria. Arratsean gorputzak aguantatu arte bes-ta giroa izan zen.

Ortzegun gizenarekin eman zieten akabaila inauteriei, hau ere egun haundia izaten baitugu herrian.

Goizean eskolako neska-mutikoak mozorroak berriz ere soinean jantzi eta etxez etxe ibili ziren eskean. Arratsaldean berriz, beti egiten den gisan, etxeetan bildutako puskekin, bertzeak bertze merienda egin zuten Biltokin!

Joan dira inauteriak ere eta orain heldu den urteari begira mozorroak pentsatzen has-tea gelditzen zaigu!

### Maria Iantzi eta Oskar Telletxea munduko txapel-dun

Otsailaren 8tik 11ra bitartean Suedian jokaturako sokatira-ko Munduko txapelketan her-rrira ere etorri zen garaipen-zatitxo bat, bertan izan bai-ke-nituen Maria Iantzi Irigoien eta Oskar Telletxea Martiko-rena. Biak munduko txapel-dun izan ziren.

### Biltokiko mus-tximista txapelketa hasi da

Otsailaren 16an hasi zen Bil-tokin aurtengo Mus-tximista txapelketa. Hamabortzetik behin izanen dira, ortziraletan 22:00etan. Aurten, berrikuntza gisa, lehenbiziko hiru postue-tan gelditzen diren bikoteek puntuak lortuko dituzte azken eguneko sari ederrarentzat.

### Eskolako neska-mutikoek antzerki emanaldi bikaina

Aspaldiko urteetan egiten den bezala, aurten ere eskolako neska-mutilak antzerki saio ederra egin zuten. Emozio Hezkuntzako proiektuaren barne, hiruhilabete honetan Raul Garciarekin prestatutako antzerkiak ikusgai izan ziren otsailaren 9an Baratzondon.



**Fernando Celaya**  
TERAPIA NATURALAK

Gure kontsultan honako patologiak aztertuko ditugu:

- Lixeriketa aparatuko patologiak
- Gihar patologiak
- Neurologiak patologiak
- Arnas aparatuko patologiak
- Ginekologia patologiak
- Giltzurrun eta gernu aparatuen patologiak
- Zirkulazio eta endokrino patologiak

Erabiltzen ditugun terapiak:

- Osteopatia
- Kirol masajea eta masaje terapeutikoa
- Akupuntura
- Fitoterapia Txinatarra
- Reiki...

Salis Hiribidea, 24 - IRUN

639 955 324

www.fernandocelaya.com

## Korrika nagusirako prestaketa saioa Arantzan egingen dute

Martxoaren 9an bi bakarrizketa izanen dira, biharamunean bazkaria eta Korrika eta 15ean 'Bizkarsoro' filma

### TTIPI-TTAPA

Martxoaren 14an hasiko da Korrika eta aurten ere ez dute hutsik egingen aranztarrek. Martxoaren 24ko goizaldean Lesakako irteeratik Berako sarrera bitarteko hiru kilometroetan herritarren eskuetan ibiliko da euskararen aldeko lasterketa erraldoi honetako lekukoa. Udalak, eskolak, guraso elkar-teak, Ekaitza Elkar-teak, gazte asanbladak eta Aterpeak erosi dute kilometroa.

Korrikaren bueltan, Korrika ttikia egiten da beti Arantzan, aurten, ordea, hori baino gehiago izanen da. Korrika nagusia hasi aitzinetik, furgonetako gidariak prestatzeko Korrika Perpendikularra delakoa egiten dute, hamaika egunez Euskal Herrian barna dabiltzan bitartean gertatzen ahal denerako prest izateko. Bada Korrika

nagusirako prestaketa saio hori martxoaren 10ean Arantzan egingen dute. Horrez gain, aste-buru horretan bertze hainbat hitzordu izanen dira.

Martxoaren 9an, larunbata, 13:00etan bakarrizketa antolatu dute Aterpeko lagunek. 19:00etan, bertze bakarrizketa bat izanen da Bortzirietako Korrika Kulturaren barrenean: *Erdaldun berrien kluba*.

Martxoaren 10ean, Aterpean herri bazkaria izanen da eta martxoaren 2a izanen da izena emateko hondarreko eguna (665 73 77 78 edo 678 03 50 16). 17:30ean Korrika Perpendikularra hasiko da, eta herritik abiatuta, Bordalarreko buelta egingen dute, lekukoa eskutik eskura pasatuz. Martxoaren 15ean, *Bizkarsoro* fima ikusteko aukera izanen da. Xehetasunak hurrengo aldizkarian.



UTZITAKO ARGAZKIAK

## Giro bikaina inauterietan

Otsailaren 1etik 3ra, egun bete-beteak izan ziren. Ia 40 Mozorro Zuri Beñat eta Andoni Mitxelena akordeoilariekin eskean, eskolako lagunak puxkak biltzen, emakume eta bertso afari jendetsua, klase guzietako mozorroak... Egunez zein gaeuz, giro ederra izan zen aurtengo inauterietan.



Kimuen eta haurren taldekoak Naiara Manzano eta Julio Lukanbio entrenatzaileekin.

## Gaztetxoak asteburu honetan hasiko dira herri kiroletan

### NEREA ALZURI

Herriko hiru taldek udazkenean hasi zituzten herri kiroletako entrenamenduak eta Nafarroako Herri Kirol Jokoetako aurtengo edizioan parte hartuko dute. Zehazki, kimuen, haurren eta kadeteen mailetakoz gaztetxoak proba konbinatuan ariko dira.

Otsailaren 25ean Atarrabian izanen dute lehenbiziko jardunaldia; martxoaren 3an bigarrena, 10ean hirugarrena eta 17an laugarrena. Finala martxoaren 24an izanen da. Txokor biltzen, lasterka, txingak kontuz, zakua bizkarrean, arpanean... Ilusioaz ari dira entrenatzaileak eta gaztetxoak guztia prestatzen.

**ola**  
SAGARDOTEGIA  
www.olasagardotegia.eus  
bilatu gure online dendak  
102 Meaka auzoa  
20304 IRUN - T.943 423 130

- Bertako sagarrekin egindako sagardoa
- Euskal Sagardoa J.D. eta sagardo ekologikoa
- Asteartetik larunbatera afariak. Bazkariak ostiral, larunbat eta igandetan.
- Sagardotegi menuarekin egin txox!

**Zalain**  
JATETXEA RESTAURANTE  
Eramateko janaria  
astelehenetik ortziratera  
Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

**Alberto RETEGI**  
abokatua  
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA



# Martxoaren 16an sagardotegira irteera antolatu dute

Txartelak 50 eurotan paratu dituzte salgai eta martxoaren 9a izanen da erosteko hondarreko eguna

## TTIPI-TTAPA

Aurten ere sagardotegira irteera antolatu dute Ekaitza Elkar-teak eta Arantzako Gazte Asanbladak elkarlanean. Martxoaren 16rako egin dute hitzordua, eta dagoeneko txartelak salgai paratu dituzte. 50 eurotan Burlada jatetxean erosten ahal dira eta martxoaren 9a izanen da erosteko hondarreko eguna.

Sagardotegira abiatu aitzinetik, 12:30ean poteoa egingen dute Arantzán eta 13:30ean autobusa aparkalekutik aterako da. 14:00etan Errenteriako Egiluxe sagardotegian bazkal-



ARGAZKIA: ALEA

duko dute, handik Hernanira joanen dira eta han segituko du bestak. Herrira bueltatzeko autobusa 03:00etan aterako da Hernanitik. Prezioan autobusa eta bazkaria sartuak dira.



GABI GOIA

## Arkupeak-eko herriko bazkideen besta

Otsailaren 11n, Arkupeak elkarteko 42 bazkide bildu ziren Burlada jatetxean bazkaltzeko. Ondotik, mus txapelketan sei bikotek parte hartu zuten. Irabazle Juan Miguel Almandoz eta Xatur Larralde izan ziren; txapeldunorde Felix Iparragirre eta Miguel Mari Altzuri eta hirugarren Joxe Irigoien eta Timoteo Iguzkiagirre.



  
**ARANTZA**  
 HOTELA  
 \*\*\*\*\*

*Izu menua*

NAFARROAKO ZAINZURI NATURALAK  
 PLANTXA ERARAN MAIONESAREKIN

NAFAR ERRIBERAKO ORBURUAK ARRAULTZA  
 GORRINGO ETA PARMESANO GAZTAREKIN

SORBETE TXUPITOA

ASTEKO HARAGIA EDO ARRAINA

ETXEAN EGINDAKO POSTREA

ESKAINZA BEREZIA: **48€**      LEHEN **65€**

Egin erreserba +34 654 318 949 telefonon  
edo [info@arantzahotela.com](mailto:info@arantzahotela.com) helbidean

AIENTSA ALDUA, 10 - ARANTZA

PREZIOA PERTSONAKO. EDARIA EZ DAGO BARNE. ERABILGARRITASUNAREN ARABERA ETA ALDEZ AURRETIKO ERRESERBAZ, GARAIAREN ARABERA, MAHAKIDE GUTZIENTZAKO MENU BERBERA, BORTZIRIETAKO, MALEKREKOKO, BAZTANGO, XARETAKO ETA LEITZALDEKO HERRITARRENTZAKO ESKAINZA. \*ALERGIAREN BAI BADIGUZE EDO ELIKAGAREN BATEK KALTE EGITEN BADIGUZE, ESKERTZEN DIZUEGU 48 ORDU LEHENAGO JAKINARAZTEN BADIGUZE, MODU HONETARA MENUAK MOLDATZEKO AUKERA IZAN DEZAGUN.



Emuneko eta Bortzirietako Euskara Mankomunitateko kideak agerraldian.

## Enpresetan euskarara indartzeko plana

Bortzirietako hamar enpresa bisitatuko dituzte eta bertako euskararen erabilerari buruzko diagnostikoa egingen dute

### TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak, Emun aholkularitzarekin elkarlanean, Bortzirietako enpresetan euskararen erabilera areagotzeko proiektua hasi du. Proiektuaren barrenean, apirilera bitartean hainbat enpresek elkarlanean hasiko dira. Otsailaren 8an aurkeztu zuten proiektua Beran.

Bertan azaldu zuten, proiektuaren helburua lan mundua euskalduntzeko urratsak egitea da, batez ere fokua enpresa handietan paratuz. Horretarako gonbidapena luzatu zieten euskararen erabi-

lera handitzeko erabakiak eta eta neurriak hartzeko.

Emun aholkularitzako kideak Bortzirietako hamar enpresarekin harremanetan paratuko dira proiektua aurkezteko. Hamar enpresa horietan bisitak otsailaren eta martxoan egitea aurreikusi dute, eta enpresa bakoitzak euskararen presentziaren inguruko auto-diagnostikoa egiteko aukera izanen du bertan. Ondotik, eskualdeko enpresendako saio ireki bat egingen dute martxoan. Orain bisitatuko dituzten hamar enpresez gain, asmoa enpresa gehiagotara zabaltzea da.

## 'Lurraren defentsan' erakusketaren inaugurazioa Beran martxoaren 1ean

### TTIPI-TTAPA

Martxoaren 1ean, ortziralean egingen dute Beran Hamaika proiektuaren *Lurraren defentsan* erakusketaren inaugurazioa. Berako Kultur Etxean izanen da 18:00etan. Erakusketa ibiltaria da eta Euskal Herriko bertze leku

batzuetan ikusteko aukera izanen da, tartean, baita Zubietan ere.

Erakusketak, hainbat artistaren lanak biltzen ditu: Irantz Piquerok eta Jose Delicadok Etxalarren eta Male rrekan sortutako hamaika poster antieoliko, Euskal



Nerea Ibarzabal idazlea iaz Arantzan egindako saioan. UTZITAKOA

## Hirugarrenez Literatura Geraldia ekimena egingen dute udaberrian

### TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak, Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitateak eta Sakanako Mankomunitateak Literatura Geraldia ekimena antolatu dute hirugarrenez. Hamabi saio antolatu dituzte aurtengo udaberrirako eta horietatik sei TTIPI-TTAPAK hartzen duen eremuan izanen dira.

Solasaldiei dagokionez, otsailaren 29an, ortzeguna, Eneko Bidegaienekin *Bichta éder* liburuari buruzko solasaldia izanen da Iruritan 19:00etan; apirilaren 19an, ortziralea, Maddi Ane Txoperena idazle lesakarrarekin *Ez erran inori* liburuari buruzko solasaldia Erratzun 19:00etan; apirilaren 20an, larunbata, Garazi Arrula idazlearekin *Lurraz beste* liburuari buruzko mintzaldia Beran,

10:30ean eta apirilaren 24an, asteazkena, Arantxa Urretabizkaia idazlearekin solasaldia *Azken Etxea* liburuari buruz Arantzan, 18:00etan.

Apirilaren 24a, asteazkena *Arkanbele kantak* liburuan oinarritutako errezitaldia egingen dute Leitzaan Mikel Tabernak, Joseba Irazokik eta Oier Fuentesek 18:30ean. Hitzaldiei dagokionez, aldiz, apirilaren 26a, ortziralea, Beñat Sarasolarekin *Literatura euskaraz gaur egun* izeneko solasaldia izanen da Lesakan 18:30ean.

Euskaraz irakurtzeko ohitura eta zaletasuna zabaltzea, herritarren euskarazko kultur kontsumoa indartzea, euskal liburugintza indartzea, liburutegi publikoen erabilera bultzatzea eta esperientzia literarioak konpartitzea da Literatura Geraldia programaren helburua.

Herriko hamaika irudigileren lanak, industria berriztagarrien proiektuek mehatxatutako hamaika euskal herritarren testigantzak, Jokin Arman eta Iñaki Sanchezen eskulturak, Beñat Etxekolonearen musika...

Erakusketaren inaugurazioaz gain, *Gatazketatik lurraldearen defentsan* izeneko solasaldia ere izanen da. Bertan Erreniega Salba De-

zagun plataformako Joxian Jauregi, Haize Berriakeko Mikel Etxarte eta Sustrai Erakuntzako Pablo Lorente ariko dira solasean.

Gainera, EH Bizirik plataformako kideak apirilaren 13an Azpeitian egingen duten manifestazioa buruz ariko dira eta *Hamaika* fanzinearen aurkezpena ere egingen dute. Ondotik, jateko mokadu bat banatuko dute.





Basaburuako herri kirol taldekoak artxiboko irudi batean.

## Nafarroako Kirol Jokoak igandean hasiko dira

Arantzako, Igantziko eta Baztango Basaburuok taldeak atera dituzte kimuen, haurren eta kadeteen mailetan

### TTIPI-TTAPA

Aurten XXXVII. edizioa beteko dute Nafarroako Kirol Jokoak ate joka dira. Igande honetan, otsailaren 25ean, jokatu du ten lehenbiziko jardunaldiarekin hasiko da ofizialki txapelketa eta bukatu martxoaren 24an eginen dute.

### Lau jardunaldi eta finala

Guztira lau jardunaldi eta finala eginen dituzte: lehenbizikoa igande honetan, otsailaren 25ean, Atarrabiako Paz De Ziganda ikastolako frontoian eginen dute, 10:30ean. Bigarrena martxoaren 3an Antsoaingo kiroldegiko frontoian izanen da, 10:30ean. Hirugarren jardunaldia Altsasuk hartuko du, martxoaren 10ean, hori ere 10:30ean. Laugarrenak eskualdean eginen du geldialdia eta martxoaren 17an Elizondoko Baztan pilotalekuan eginen dute, 10:30ean. Finala, azkenik, Etxarri Aranazko frontoian jokatu dute, martxoaren 24an, 11:00etan.

### Eskualdeko ordezkaritza

Talde mordoxkak eman du izea aurtengo edizioan, tartean,

Arantzak, Igantziko eta Baztango Basaburuak. Horiekin batera, Etxarri Aranazko Andra Marik, Antsoainek, Araitz-Beteluko Araxesek, Berrizorrek, Altsasuko Iñigo Aritzak, Sarri-gurengo Joakin Lizarragak eta Atarrabiako Paz de Zigandak taldeak aurkeztu dituzte.

### Hiru kategorია

Hiru kategorietako neska-mutikoen parte hartuko dute: kimuel (2012-2013 urteetan sortuak), haurrek (2010-2011 urteetakoak) eta kadeteek (2008-2009 urteetakoak).

Haurren eta kadeteen kategorietan, bi txapelketa eginen dituzte: sokatira eta proba konbinatua. Kimuen mailakoek, ordea, proba konbinatuko txapelketa bakarrik izanen dute eta arpanean ere ez dira ariko.

Kimuetan, 18 talde dira, eta Arantza, Igantzi eta Baztango

## MARTXOAREN 17AN ELIZONDON JOKATUKO DUTE JARDUNALDIA

Basaburuak talde bana aurkeztu dute. Bakoitzean seilagun ariko dira; batek zortzi kokor bildu beharko ditu, bertze batek hiru kiloko txingekin bi joan-etorri egin (80 metro), hiru zakularien lana sei kiloko zakuarekin buelta bana ematea izanen da (80 metro) eta lasterkariak bi buelta eman beharko dizkio plazari (160 metro).

Haurretan proba konbinatuetan hamalau talde eta sokatiran hamar talde dira izena eman dutenak. Arantzak eta Igantziko proba konbinatuetan bakarrik aurkeztu dute taldea, eta Basaburuak baita sokatiran ere. Kategoría honetan, zortzi partaide izanen dira: kokor biltzaileak hamar kokor bildu beharko ditu, txingalariak borts kiloko txingekin bi joan-etorri egin (80 m), hiru zakulariak hamar kiloko zakuarekin ibiliko dira (80 m), lasterkariak bi itzuli egin beharko ditu (160 m) eta arpanlariak bi korte. Sokatiran 480 kiloko kategoria ariko dira.

Kadeteetan, proba konbinatuetan eta sokatiran zarpina talde eman dute izena, horien artean, konbinatuetan Arantza eta Basaburu ariko dira eta sokatiran Basaburu. Zortzi lagun izanen dira talde bakoitzean: kokor biltzaileak hamabi kokor bildu beharko ditu, txingalariak hamar kiloko txingekin bi joan-etorri egin (60 m), hiru zakulariak hamahiru kiloko zakuarekin ibiliko dira (80 m), lasterkariak hiru itzuli egin beharko ditu (240 m) eta arpanlariak hiru korte eman. Sokatiran 540 kilokoetan ariko dira.

### Finala

Proba konbinatuetan, jardunaldietan denborarik hobere-na egiten duten lau taldeek jokatu dute finala. Sokatiran, berriz, haurretan multzo bakarra izanen da eta bi jardunaldi eta finala jokatu dituzte. Finalean sei talde ariko dira. Kadeteetan, borts jardunaldi jokatu dituzte eta liga sistema bidez erabakiko dute.

## Gurasoentzat hitzaldia Bortzirietan

Nerabezaroan substantzien (drogak) eta ez substantzien (mugikorak, sare sozialak...) erabilera desegokiak izan dezakeen eragin kaltegarriak murrizteko bidean, gurasoen babes faktoreak indartzeko hitzaldia antolatu du Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak gurasoentzat. Martxoaren 18an Berako Beralandetan izanen da, 17:30etik 19:00etara, eta Susperu programako teknikariak gidatuko du. Izena [info@bortziriazkgz.eusera](mailto:info@bortziriazkgz.eusera) edo Whatsappez 639 72 40 02ra idatziz eman eman behar da.

## Jantokietako laguntzak zabaldu nahi ditu gobernauk

30 urteren ondotik, eskolako jantokiak arautzeko dekretu berria lantzen ari da Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentua, eta hainbat berrikuntza iragarri ditu. Bertzeak bertze, despopulatzeko arrikuan dauden herrietan dauden eskola jantokietako ikasleentzako dirulaguntzak zabaldu nahi ditu, baita iraileko eta ekaineko jantokierbitzua diruz lagundu ere. «Garaian garaiko eta hurbileko elikagai freskoak erabiliz» 'eskolan bertan' edo *in situ* jangela zerbitzuaren aldeko apustua ere egin nahi du. Hezkuntza Departamentuak zuzenean kudeatutako eskualde mailako jantokiak eta departamentuak baimendutako gainerako jantokiak bereizi dituzte. Jantokierbitzua duten ikastetxeek urteko plana izan beharko dute, eta gobernauk «ebaluatuko» du. Aldi berean, «jantokietako denbora osasunaren, higienezaren eta nutrizioaren, ohitura osasuntsuen eta jasangarrien heziketa egiteko» probestu nahi dute. Menuak, berriz, profesionalak diseinatu eta gainbegiratu lituzkete.



Mikel Irujo Nafarroako Gobernuako Industria eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria da. UTZITAKOA

## «Ez dut uste eskualdeko proiektu eolikoak egingarriak direnik»

MIKEL IRUJO AMEZAGA NAFARROAKO GOBERNUKO INDUSTRIA KONTSEILARIA

Bortzrietako eta Malerrekako lurretan egin nahi dituzten proiektu eolikoez aritu da Irujo kontseilaria TTIPI-TTAPAREkin. Enpresa horiekin ez dutela «inolako harremanik» izan argitu du

### G. PIKABEA

Eskualdean egin nahi dituzten proiektu eolikoaren harira, Arantzako Xatur Larralde, Etxalar-ko Xabier Etxarte, Igantziko Juankar Unanua eta Sunbilla-ko Amets Inda alkateekin bildu zen otsailaren 5ean Mikel Irujo Amezaga, Nafarroako Gobernuako Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria. Bilera horren ondotik mintzatu zen TTIPI-TTAPAREkin eta orduan bildutakotik osatua da elkarrizketa. Bi kontu «argi» utzi nahi izan ditu kontseilariak: alde batetik, «enpresa horiekin ez dugula inolako harremanik izan» eta bertzetik, «proiektu horiek ez ditugula egingarriak

ikusten». Hori behin eta berriz azpimarratu du. Hala ere, proiektuek aitzinera egiten badute, gobernuak tramitatu bertze aukerarik ez duela izanen gaineratu du. Zelena Renewable enpresak egin nahi dituen Irakurri (Ezkurra, Eratsun, Saldias eta Beintza-Labaien) eta Azkua (Arantza, Etxalar, Igantzi eta Sunbilla) proiektuek eta Elicio Eolica enpresak egin nahi duen Usa-

«BEREZIKI BI PUNTURENGATIK EZ DITUT EGINGARRIAK IKUSTEN»

na (Eratsun, Saldias, Beintza-Labaien eta Zubieta) proiektua izan ditu hizpide. **Zelena Renewable eta Elicio Eolica enpresekin harremanik izan duzue?**

Ez. Ez nik, ez nire taldeko inork, ez dugu inolako harremanik izan enpresa edo promotore horiekin. Ez gara inoiz bildu, ez dugu inoiz telefonoz solas egin, eta ez dugu inolako e-mailik gurutzatu. Argi utzi nahi

«NAFARROAKO GOBERNUA EZ DA PROIEKTU HAUEK BULTZATZEN ARI»

«Ez dut uste eskualdeko proiektu eolikoak egingarriak direnik»  
dut ez dugula inolako harremanik izan beraiekin eta Nafarroako Gobernuak ez dela proiektu horiek bultzatzen ari, ez Zelenarenak, ez Eliciorena. **Zer da dakizuena?**

Estatu mailako 2020ko errege dekretu batek arautzen du nola egin behar diren prozedura hauek. Horren arabera, lehenbiziko pausoa enpresak konexioak non dauden ikusi behar du, hau da, sortuko duen energia argindar sarera nola konektatu ikusi. Nafarroako Gobernuak ez du prozedura horretan parte hartzen, Ministerioak emandako informazioa da eskura dezakeen bakarra. Konexioak estatu mailan kudeatzen dira. Orain dela hiru urte enkante handi bat izan zen eta hor gelditzen diren tokiak enpresen artean kudeatzen dituzte, enpresa banatzailearekin ere ados jarri behar da. Zuen eskualdean, enpresa banatzaileak ez du baimendu Elicio Eolica enpresaren Usana proiektua, ez dio energia ebakutzeko baimenik eman. Eta Zelenaren Irakurri eta Azkua proiektuekin ez dira adostasunera ailegatu, hainbat inbertsio egin behar direlako. Enpresa banatzaileak erratan du haiek ez dutela egin behar inbertsio hori eta enpresa horrekin ados ez dagoenez, helegite bat aurkeztu du Madril-en. Beraz, Irakurri eta Azkua-aren artean konexio gatazka bat dago eta helegite hori MLBN edo CNMCK (Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala) ebatzi behar du. Enpresa helegite horren erantzunaren esperoan dago.

**Proiektuak aitzinera ateratzeko aukerarik ikusten duzu?**

Ez, eta argi utzi nahi dut ez ditudala inolaz ere proiektu hauek egingarriak ikusten, bereziki bi punturengatik: gardentasun eta lurraldetasun faltagatik. Alde batetik, komunikazio eta gardentasun falta erabatekoa izan da. Azken hiru urteotan 80 bat proiektu kudeatu ditugu eta orokorrean enpresak egiten duen lehen-



biziko gauza Nafarroako Gobernura eta bereziki udaletxetara hurbiltzea izaten da; haien proiektua esplikatzeko eta herritarren eta erakundeen jarrera zein den jakiteko. Kasu honetan, ez dugu inolako harremanik izan promotore hauekin eta hagitz arraroa da. Bertzetik, ez dira Nafarroan errotutako enpresak, ez dago lurraldetasunik. Madrilgo bulego batetik egindako zerbait izan da, gardentasunik gabe egindakoa. Eta Nafarroako Gobernuako kontseilari naizen aldetik, berriz azpimarratu nahi dut ez dudala uste proiektuak aitzinera aterako direnik. **Gaiak eskualdean kezka sortu du. Zer erranen zenieke herritarrei?**

Ez dagoela proiekturik. Bada-kigu konexio baimena eskatuta dutela, baina otsailaren 5eko bileran alkateei erran nien bezala, ez ditugu egingarriak ikusten. Hala ere, administrazio bat gara eta Madrilan aztertzen ari diren helegite horrek aitzinera egiten badu, eta promotoreak proiektu honekin segitzea erabakitzen badu, gobernuak tramitatu beharko du. Bertze adibide batekin

**«BAIMENDUTAKO  
35 PROIEKTUETATIK  
34TAN UDALEKIN  
EGIN DUGU»**

esplikatuko dut. Demagun herriko plaza batean diskoteka bat paratu nahi dutela eta ez dugula hori eragotziko duen ordenantzarik. Nahiz eta politikoki ez ados izan, enpresak eskaera egiten ahal du, eta udalak tramitatu beharko du. Gauza bera da honetan.

**Nafarroako iparraldean baduzue bertze proiektu eolikoekin berririk?** Ez. Azken hiru urteotan 82 proiektu kudeatu ditugu, ho-

rietatik 78ren tramiteak hagitz aitzinduak daude. 35 proiekturik baimena eman diegu, eta bertze erdia baino gehiagori ezezkoa. 35 horietatik 34tan udalen eskutik joan gara, eta bertze batean udalak ez du ez baietz, ez ezetz erran. Beraz, gobernuak ia gehienetan udalekin egin du aitzinera. Proiektu horiek Iruñerriatik beheiti dira, Erriberan, Lizarra aldean eta Zangoza aldean. Gehiago ere erranen dut. Gibelera bota ditugun 40 proiektu horien harira, hainbat bilera izan ditugu udaletako eta gizarte erakundeetako ordezkariekin, haserre edo kezkatuak daudelako proiektuari ezezkoa emateagatik. Bakoitzak bere iritzia du.

**«ENPRESAK  
AITZINERA EGITEN  
BADU, TRAMITATU  
BEHARKO DUGU»**

## Zer diote makroproiektu eolikoekin kontrako taldeek?



**DABID ITURRIA**  
ARANTZA BIZIRIK

**«Ez da berri txarra,  
baina ezin gara lasaitu»**

«Ez da berri txarra kontseilariak halako adierazpenak egitea, baina ezin gara lasaitu. Garbi aski erraten du enpresak proiektua aurkezten badu, gobernuak tramitatu bertze aukerarik ez duela izanen, eta ez du erraten aurkeztuz gero, alde batera utziko duten edo ez. Herritarren iritzia gainera, bertzelako interesak gailendu diren adibideak badira urrutira joan gabe. Gisa berean, argi dago ez dela inolako energia trantsiziorik planteatzen, eremu komunalean diru publikoarekin enpresa pribatuak aberastea dute helburu proiektu hauek, ez dira herritarren beharren arabera proiektuak. Guk ere erne segituko dugu, Arantza eta gure mendiak bizirik nahi ditugulako.»



**JASONE MITXELORENA**  
ETXALAR BIZIRIK

**«Gure indarraren  
arabera jokatuko dute»**

«Gure ustez hagitz garrantzitsua da herritarrek mugitzea, eta horiekin batean erakundeak ere jarrera jakin bat hartzera bulkatzen dira. Gure eskualdeko herrietan argi adierazi izan dugu gure ingurua bere horretan zaindu nahi dugula, eta ez ditugula onartzen horiek hondatuko lituzkeen makroproiekturik, eta orain Nafarroako Gobernuko ordezkariak errandakoak ere nolabait bat egiten du horrekin. Guretzat Nafarroako Gobernuko ordezkariak egingandako adierazpenak ongi etorriak dira, baina erran bezala, herri ekimenaren gain da gure ingurua zaintzea; Iruñeko agintariek gure indarraren arabera jokatuko dute...»



**ISMAEL ITURBIDE**  
IGANTZI BIZIRIK

**«Ez dira ez egingarriak,  
ez beharrezkoak»**

«Proiektua Nafarroako Gobernuan sartu aitzinetik kontseilariak deklarazio horiek egin izanak plataformek egin duten lanari balioa ematen dio eta bidea hori dela frogatzen du. Gaia euren agendan paratu dugu inoiz baino lehen eta hori ez da arruntena. Egingarriak ez direla erratea positibotzat hartzen ahal da. Guk, egingarriak ez direla ikusteaz gain, ez ditugu ez beharrezkoak ez positiboak ikusten. Hala ere, ederki dakigu printzipio horiek alde batera uzten direla boteredun interes ekonomikoak jokoan sartzen direnean. Mobilizazioekin segitu behar da, proiektua sartuz gero, Nafarroako Gobernuari presioa egin aldeko jarrera hartu ez dezan.»



**IÑAKI SANCHEZ**  
MALERREKA BIZIRIK

**«Agian herri plataformak  
lasaitzeko eginak dira?»**

«Kontseilariaren hitzek hasierako begiradan positiboak ematen duten arren, 'balizko' proiektu horiei ateak irekita uzten dizkie; proiektuek legea betetzen badute tramitatuak izanen dira. Agian herri plataformak lasaitzeko edota indargabetzeko eginak dira? Herritarrok etorkizun jasangarri eta parte hartzailearen alde lanean segitu behar dugu eta eragile guztien ekarpenak beharrezkoak dira. Trantsizio energetikoaren zurrumbilo honetan herri plataformak ezinbestekoak dira iritzia publikoa garatzeko eta proiektu txikitzaile eta inposatu aurre egiteko. 'Egingarriak' izan litezkeen proiektuen aurrean, oraindik mesfidantza ez da ezabatu; erne jarraitzeko arazoiek bere horretan diraute.»



Ander Larraburu podiumaren bigarren lekuan Valentzian. UTZITAKOA

## Ander Larraburu txirrindularia bikain hasi da pistan

Espainiako kopako abiadura probetan parte hartu du Tafallan eta Valentzian, eta bietan podiumera igo da

### MAIDER PETRIRENA

Otsailaren lehen asteburuan Nafarroako pistako txirrindularitza selekzioak Espainiako Kopako azken jardunaldian parte hartu zuen Valentziako Luis Puig Belodromoan. Ander Larraburu Hernandorena herritarra (Ermitagaña) Nafarroako koloreekin estreinatu zen, Tafallako jardunaldian abiaduran egin zuen erakustaldiaren ondotik. Valentzian ere bikain aritu zen, abiaduran garaipena lortuz, 200m-ko 2. mailan eta Keirinen 3. mailan. Emaizta horiei esker, podiumeko bigarren koskara igo zen.



Autobus geralekuan marra horia.

### Bus geltokia

Autobusa gelditzeko lekuan, totema ordutegiekin paratu eta espaloian marra horia marraztu dute, Nafarroako Gobernuak eskatuta.



ESKOLAK UTZIA

## Amaia Elizagoien idazlearen bisita

Amaia Elizagoienek idatzi eta Begoña Durrutyk ilustratutako *Amaiur* liburua izan dute aztergai eskolan eta Amaia bera bisitan izan dute otsailaren 9an. Udaletxeko ganbaran elkartu da ikasleekin eta, liburuko ipuina, istorioa, pasadizoak eta bertze hainbat gauza goxo kontatu ditu.



UTZITAKOA

## Jubilotekako familia handitzen

Herriko Jubiloteka familia ere handitzen ari da poliki-poliki. Astearte eta ortzegunero, goizetan, udaletxeko hirugarren solairuan, Ramoni Ordokiren eskutik kuadrilla polit bat elkartzen dira. Pixkanaka-pixkanaka jende gehiago animatzen ari da eta hori seinale aski ona da.



**Bizikleten salmenta eta konponketa.**

📍 Kanttonberri, 1 | BERA

☎ T. 948 631 218

✉ joxemi@kateabike.com

🌐 [www.kateabike.com](http://www.kateabike.com)












Sunbilla - Tel: 948 450 862




**Carnes Sein Haragiak, S.L.**  
 Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA  
 T. 943 467 244 | 943 467 444 • [carnessein@bordako.com](mailto:carnessein@bordako.com)



## Stock azoka eginen dute martxoaren 2an eta 3an

Ezkurra pilotalekuan eginen dute eta Baztan-Bidasoko hamaika establezimenduk parte hartuko dute

### TTIPI-TTAPA

Denok Bat merkatarien federazioak Baztan-Bidasoko stock azoka antolatu du seigarrenez. Martxoaren 2an, eta 3an, larunbatean eta igandean eginen dute Ezkurra pilotalekuan. Larunbatean 10:00etatik 19:00etara egonen da irekia, eta igandean, berriz, 10:00etatik 18:00etara.

Baztan-Bidasoko komertzio hauek hartuko dute parte azokan: A.P Amaya Picabea, Argibel optikak, Artlepo-Onddo ta Puntok, Virgilio oinetakoak, Fantxike arropa eta

opari dendak, Kukuka haurrentzako arropa dendak, Maite modak, Martzutzak, Olatz zapata dendak, Tissue atelierrak eta Xulufraiak.

Denok Batek antolatu du azoka, eta Nafarroako dendak elkartearen eta Doneztebeko Udalaren laguntza izan dute antolatzeko.

### 'Negu hurbilak' zineman

Kultur eskaintzari dagokionez, larunbatean, otsailaren 24an, Zubietan grabatutako *Negu hurbilak* pelikula emanen dute 19:00etan zineman.



UTZITAKOAK

### Giro ederrean joan dira inauteriak

Ortzeguneko afariarekin hasi eta larunbateko desfilearekin bukatu dira herriko inauteriak. Hiru egunetan giro ederra izan da herriko karriketan, eta larunbatean, gainera, moztro dibertigarriak ikusteko aukera izan zen desfilean. Heldu den urtean gehiago!

# VI. BAZTAN-BIDASOKO

# STOCK

2024

# FERIA

MARTXOAK 2 - 3

## DONEZTEBE

(Ezkurra Frontoia)

A. P. AMAYA PICABEA (moda) / ARGIBEL Optika / ARTLEPO-ONDDO TA PUNTO (moda) / VIRGILIO oinetakoak  
 FANTXIKE arropa eta opari denda / KUKUKA haur arropa denda / MAITE moda / MARTZUTZAK (moda)  
 OLATZ zapata-denda / TISSUE ATELIER (moda, bitxiak) / XULUFRAIA (moda)

LARUNBATA  
10:00 - 19:00  
IGANDEA  
10:00 - 18:00

Antolatzailea:

Laguntzailea:

Nafarroako Gobernua diruz lagundutako jarduketa

Comarcas de Navarra  
Nafarroako dendak



Dantzari ttikienek erakustaldi polita eskaini zuten plazan. ARKAITZ MINDEGIA



Dantzari koxkorragoek ere ederki dantzatu zuten.

## Kontuen Egunarekin borobildu dituzte berriz ere inauteriak

Harri-altxatze erakustaldian lehen aldiz jendaurrean plazaratu zen Estefania Etxebeste harri-altxatzaile iturendarra

### ARKAITZ MINDEGIA

Eguraldi bikaina lagun, giro ederrean joan dira inauteriak. Otsaileko lehen larunbatean Iturenen kontuen eguna antolatua zuten. Goizean herriko dantzarien saio bikainaren ondotik, harri-altxatze saioa egin zuten Imanol Royok, Udane Ostolazak eta Estefania Etxebeste herritarrak. Herriko neska gazte honen ilusioa egia bihurtu zen. Lana gogotik ilusioz egin ondotik, herrian estreinatu zen, erakustaldia eskainiz. Azken urteetan bezala herriko gazteen artean herri kirol desafioa egin zen.

Julio Soto eta Andoni Egañaren bertsoen ondotik bazkaria izan zuten, ttiki gelditu zen Herriko etxeko ganbaran. Arratsaldean bertsolarien bertsoekin eta Ostolaza eta Larrañaga trikitilarien doinuekin alaitasuna nagusitu zen.

Aurtiztarrak, berriz, kontuen afariaren bueltan juntatu ziren elkartean. Izer eta Alabierren doinuek kantuan eta dantzan jarri zituzten, baita dj-ek ere, ordu ttikiak arte.

Zubieta eta Iturengo udalaren autobus zerbitzuak 600 erabiltzaile izan zituen astelehenean eta 800 asteartean.



Estefania Etxebeste herritarrak lehen aldiz altxatu zituen harriak jendaurrean.

## Errekarekin eta Adosekin ari diren pilotariak han eta hemen dabilta

### A. MINDEGIA

Erreka klubeko pilotariak Nafarroako eskuz banakako txapelketan ari dira. Ados pilota eskolan ari diren herriko neskak ere gogor dabilta Lesaka, Latasa, Sunbilla eta bertze hainbat pilotalekutan, baita Zizurko lau eta erdiko 28. txapelketan ere.

Txapelketetaz gain, Ados pilota eskolako neskatoak klubeko binakako txapelketako partiden aitzinetik jokatzen ari dira. Beraien partidak jokatu ondotik profesionalak nola jokatzen duten hurbiletik ikusteko eta ikaste-ko aukera izaten dute.



622 90 30 55 • kaixo@mugarki.com • @mugarki\_ Ordoki poligonoa. ARIZKUN



## Udal bulegoak Uhaldera eramateko lanak esleitu dituzte

Beheko solairuko mediku kontsulta ere berrituko du Elecnor enpresak, 258.777 euroko inbertsioarekin

### FERMIN ETXEKOLONEA

Uhaldea edo, herritar askok ezagutzen duten bezala, garai bateko sekretarioaren etxea, zaharbertzako lanak esleitu ditu udalak otsailaren 16an egindako udal batzarrean. Eskaintzak aurkezteko epea bukatu baino lehen hiru eskaintza aurkeztu zituzten eta kontratazio mahaia Elecnor servicios y proyectos SAU enpresak egindako eskaintza hautatu du, kalitatearen eta prezioaren arteko oreka onena zuelakoan. Enpresa honek 258.777,96 euroko eskaintza egin du (BEZarik gabe).

Uhaldearen beheko solairuan, gaur egun mediku kontsulta dago. Ernesto Dominguez alkateak aipatu digunez, «kontsulta berrituko dugu, baina bi gela egonen dira, bat medikuarentzako eta beste bat erizainarentzako. Beheko solairuan aurreikusia dago aldagelak ere egitea. Horri esker, plazan dantzak, aizkora edo dena delako ekitaldia egiten denean, parte hartzaileek aldatu ahal izateko lekua izanen dugu».



Uhaldean izango dira udal bulegoak.

### Udal bulegoak

Lehenengo solairuan, berriz, udal bulegoak egonen dira eta bigarren solairua momentuz hutsik utziko dute. Obrak egiten hasi aurretik zenbait moldaketa egin beharko dituzte Zubietako eskolako eraikuntzan, obrak irauten duen bitartean mediku kontsulta hor pasa beharko baitute. Besteak beste ranpa bat, zola egokitu... eta horrelako lanak egin beharko dituzte.



Herriko irudi ikusgarriak ageri dira pelikulan. NEGU HURBILAK

## Herrian grabatutako 'Negu hurbilak' filma Doneztebeko zinean larunbatean

### F. ETXEKOLONEA

Zubietan grabatu zen *Negu hurbilak* Negu kolektiboko Ekain Albite, Mikel Iburguren, Nicolau Mallofré eta Adriá Rocak zuzendutako filma eta bere garaiaren herrian bertan ikusteko aukera izan zen. Beste zenbait jaialdietan ere ikusi da filma, zehazki Locarnoko (Suitza) Nazioarteko Zinema Jaialdiko Cineasti del Presente sailean izan zuen mundu mailako estreinaldia, Epai-mahaiaren Aipamen Berezia eskuratuta, baina aste honetan zinema areto komertzialetara ailegatuko da. Zehazki, otsailaren 22an, Iruñeko Golem Yamaguchi aretoan egingen dute estreinaldia, biharamunean estatu espainiarreko zinemetan zabalduko dute eta hilaren 24an, larunbatean, Doneztebeko zinean egingen dute aurkezpena.

### Jaialdi berezia Donezteben

Doneztebeko ez da aurkezpen soila izanen eta arratsaldeko jaialdi berezia antolatu dute, jai giroan. Honela, larunbatean 17:00etan Zubietako joaldunak karriz karriz ibiliko dira, Negu Kolektiboko filmako egile eta protagonistekin. Aipatzekoa da Jone Laspiur (2021eko emakumezko aktore berri onenaren Goya sari-duna) izan dela aktore profesional bakarra, neska protagonistaren azalean. 19:00etan izanen da pelikularen emanaldia zinemaren eta 21:30ean afaria Santamaria jatetxean. Oraindik bada aukera emanaldira apuntatzeko, 626 87 91 82 telefonora deituz. Afarirako txartelak 35 eurotan daude salgai. Menuan, entsalada, krocketak, magra, txuleta, kafea, kopa edo kubata izanen dute.






**SUKALDEAK**

ETXETRESNAK

PARETA-ARMAIRUAK

SUKALDE ETA BAINUGELAKO ALTZARIAK

T. 948 450 925 | M. 624 47 57 25  
Ametzia zeharkarrika, 1  
DONEZTEBE

www.electrodomesticosmiguelena.es

## Udal eraikinak Lurdes Elizalde garbituko ditu

Azken urteetan bezala, Lurdes Elizalde Mitxelenari esleitu dio urte honetan ere herriko etxeak udal eraikinak (udal bulegoak, komunak...) garbitzeko lana. Herriko Ostatua ere hartua dute eta martxoan irekitzeko asmoa omen dute maizter berriek.

# MALERREKA / BERTIZARANA



Klase guzietako mozorroak jantzita, kuadrilla ederra bildu zen Beintza-Labaiengo inauterietan. ARANTXA ITURRALDE

## Akitu da aurtengo mozorro besta

Batzuetan eguraldia lagun izan dute eta bertzeetan ez, baina giro ederrean ospatu dituzte inauteriak

### TTIPI-TTAPA

Mozorro eta kolore besta izan da nagusi azken asteotan herriz herri, eta orrialde honetako argazkiak horren lekuko dira.

Otsaileko lehenbiziko aste-buruan Beintza-Labaienek, Donamariak eta Narbartek hartu zuten inauterien lekukoa, eta otsailaren 10eko aste-buruan

Saldiasera eta Urrozera zabaldu zen mozorro besta. Joan den asteburuan Legasan, Ezkurran eta Oizen ospatzekoak zituzten, eta gisa honetara Malerrekako eta Bertizaranako ia herri guzietan izan dute inauteriez gozatzeko tarte. Orain, heldu den urtekoen esperoan gelditu dira.



JAIONE ARIZTEGI

## Dantza klaseak berriz martxan Urrozen

Azken urteetan geldialdia egin badute ere, dantza taldea berriz ere martxan da Urrozen. Klaseak Aitziber Zozaiak ematen ditu, eta ortziraletan biltzen dira frontoian. Ondotik, astero ostatuan egiten den pintxo-potera joateko probesten dute. Seguru bestetarako ikuskizun ederra prest izanen dutela.



Urrozen haurrak herrian ibili ziren eskean eta gazteak baserrietan. JAIONE ARIZTEGI



Narbarten gazteek hasi zituzten inauteriek eta haurrek borobildu zituzten. MAITE BERTIZ



Saldiasen bertsolariekin eta musikariekin ibili ziren. AINTZANE LEIZA/INIÑO ZUBELDIA





Hainbat kalte egin zituzten otsailaren 3tik 4rako arratsean. UTZITAKO ARGAZKIA



Lorontziak irauliak eta hautsiak agertu ziren. UTZITAKO ARGAZKIA

## Haserrea adierazteko sinadura bilketa

Inauterietan txikizioak egin eta errespetu faltak izan dituzten «lauzpabortz gazteren» jarrera salatu nahi dute

### TTIPI-TTAPA

Ispiluak hautsiak, zirrika markak, aulkiak eta kartelak igerrilekuan, ostatu barreneko desastrea, herrian dauden apaingarriak eta materialak hautsiak... Hala ernatu zen herria inauterietako igandean, otsailaren 4an. Kontua, ordea, ez omen da oraingoa, eta hori baieztatu du Natalia Rekarte alkateak: «Errepikatzen ari den kontua da, eta gero eta maizago, gainera. Edozein larunbatetan agertzen dira horrelakoak». Hain zuzen horregatik erabaki dute publikoki «aski dela» erratea: «Ez

da udala haserre dagoen bakarra, aldi honetan, udala eta herria altxatu gara». Gehiago ere erran du: «Ez dira nahi gabe egindako ekintzak, ongi pentsatu eta izorratzeagatik egindakoak dira eta horrek min ematen du».

### Herritarrek haserre

Herritarren haserrearen 6ko batzarrean ikusi ahal izan zen: «Ekintza horien kontra batzarra egiteko deia egin genuen eta, jende aunitz bildu ginen, jendea hagitz haserre dagoela agerian gelditu zen». Batzar horretatik sortu-

tako proposamena izan da sinadura bilketarena: «Etxe guzietara paper bat banatu dugu nahi duenak sinatu eta udaletxean aurkeztu dezan. Hortik zenbaki bat aterako dugu».

Gisa berean, alkateak garbi utzi nahi izan du «jendea ez dagoela gazteekin haserre. Beraien artean badira lau zpabortz gehiegikerietan aritzen direnak, eta horiek egindako ekintzekin gaude haserre. Herria eta herritarrak errespetatzen ez dituzten lau gaztek bertze gazte guzien izena zikintzen dute».

### Gastu handiak

Kalte ekonomikoen kalkulu zehatzik egin ez badute ere,

«herriak ordaindu beharreko gastuak handiak» izanen direla ere ohartarazi du Rekartek: «ostatua pintatzea 1.900 euro gosta zaigu, ostatua hiru egunez egon zen itxia eta fakturazio falta ere gastua da, ostatuan desmuntatzen, garbitzen eta berriz muntatzen ordu aunitz joan dira... Herriaren garbiketan 700 bat euroko gastua izanen da, enpresa bat etorri zen eta albintek hor pasatu zuen aste guzia. Hortaz aparte, txikizioak daude. Gastua 3.500-4.000 euro artekoa izaten ahal da, lasai ederrean».

Publikoki salatzeaz gain, Foruzaingoan ere salaketa aurkeztu dute, baina hori ere «ez da lehenbiziko aldia».



MIKEL BELARRA

## Diamantezko ezteiak

Joxe Belarra Arozamena eta Asuncion Telletxea Sarratea ospakizunetan ibili dira berriki. 1964ko urtarrilaren 16an ezkondu ziren Donamariako elizan, eta diamantezko ezteiak familian ospatu dituzte aurten. Argazkian seme-alabekin, bilobekin eta erreginekin ageri dira Olabidea baserrian. Zorionak bikote!

## Hainbat ikastaro izanen dira heldu den asteetan

Ikastaroak martxoan eta apirilean izanen dira eta elkartearen bulegora deitu behar da izena emateko

### TTIPI-TTAPA

Heldu den hilabeteetarako hainbat ikastaro antolatu ditu Arkupeak elkarteak. Gisa denetako ikastaroak izanen dira, eta hainbat herritan emanen dituzte. Interesa dutenek bulegora (948 45 08 78 edo 618 56 78 37) deitzen ahal dute izena emateko.

Martxoko lau ortziraletan *Musean ikasi nahi?* izeneko ikastaroa egingen dute Donezteben, elkartearen egoitzan. Hilaren 1ean, 8an, 15ean eta 22an elkartuko dira 15:30ean. Izen ematea otsailaren 29an bukatuko da.

Martxoaren 4an, 11n, 18an eta 25ean ikusmena hobetzeko ikastaroa emanen du Mertzxe Ibarrek Leitza. Batzar aretoan izanen da 16:00etatik 17:00etara. Otsailaren 29a izanen da izena emateko azken eguna.

Mertzxe Ibarrek bertze ikastaro bat ere emanen du. *Lasaituz botikarik hartu gabe lo egin daiteke* izena du ikastaroak eta apirilaren 3an, 10ean, 17an eta 24an izanen da Doneztebeko elkartearen egoitzan 16:00eta-

tik 17:00etara. Izen ematea martxoaren 27an bukatuko da.

Beran, aldiz, ingelesa ikasteko aukera izanen Global akademiaren eskutik. Astean egun batez elkartuko dira, ordu eta erdiz. Bi maila izanen dira, alde batetik ingelesez deus ere ez dakitenak, eta bertzetik oinarrizko maila bat duenak. Guttienez sei ikasle elkartu beharko dira talde bakoitzean ikastaroa egin ahal izateko eta izena emateko azken eguna martxoaren 27an izanen da. Hasi aitzinetik, egun batean elkartuko dira beharrezko azalpenak emateko.

Azken ikastaroa Rural Kutxaren Interneteko aplikazioa (Ruralvia) erabiltzeko ikastekoa izanen da. Ikastaro hau Donezteben, Beran, Elizondon, eta Leitza izanen da eta kontuko mugimenduak ikusten eta transferentziak egiten ikasiko dute, bertzeak bertze. 16:00etan hasi eta 19:00etan bukatuko dira eta hilaren 6an Donezteben, 13an Beran, 20an Elizondon eta 27an Leitza izanen dira. Ikastaroa doan izanen da.



Arkupeak elkarteko mendizaleak iazko azken mendi irteeran. UTZITAKOIA

## Bizikleta ateraldiak egiteko taldea osatu nahi du elkarteak

### TTIPI-TTAPA

Jakina da elkartean mendi talde bat badela eta hilean behin, hirugarren asteartean zehazki, elkartzen direla mendi ibilbideak egiteko. Orain, gisa horretara, txirringulari taldea sortu nahi dute.

Taldearen parte izan nahi dutenek ondoko baldintza

hauek bete beharko dituzte: mendi bizikleta izatea, federatuta egotea eta arauak betetzea. Ateraldiak astean behin izanen dira, maiatzetik urrira bitartean.

Interesatuak elkarteko bulegora (948 45 08 78 edo 618 56 78 37) deitu beharko dute taldean izena emateko.

## Ramon Jauregi izanen da Amaiurko delegatu berria

Amaiurko delegatu postua utzi du M<sup>a</sup> Victoria Juanikotenak eta Ramon Jauregik hartuko dio lekukoa. Eskerrak Bittoriri egindako guztiagatik eta ongi etorri Ramon.

Elkarteak oraindik delegatuak behar ditu Donezteben, Lekearozen eta Etxalarren.

## Bazkideentzat deskontuak Berako Prim zentroan

Berako Prim errehabilitazio zentroak elkarteko bazkideei prezio bereziak eskainiko dizkie. Bertan hainbat zerbitzu ematen dituzte, tartean fisioterapia, arnasketa fisioterapia, osteopatia... Interesa dutenek 948 62 52 06 edo 943 63 30 50 zenbakira deitzen ahal dute.



**KULTURKARI**  
Diseinu grafikoak | Publizitatea  
www.kulturkari.com

### Enpresentzako materiala

Txartelak, gutun-azalak, orriak, talonarioak, karpetak, zigiluak...



### Hainbat euskarri

Era guztietako formatuak eskaintzen dizkizugu zure enpresa bistaratzeko





## Ikusi TTIPI TXARTELA izateagatik hainbat denda eta zerbitzutan **dituzun abantailak**



**«Urte akabailerako, azaro aldera, denda hetsiko dugu»**

JUAN LUIS PEREZ FRANZESENA  
NAFARPRESS - ELIZONDO

Duela 40 urte baino gehiago ireki zuten Nafarpress liburu-denda Elizondon. Urteekin, «jendearen eskaera aunitz aldatu da. Internetaren ondorioz, egunkarien eta aldizkarien salmenta izugarri jaitsi da, eta bertze produktu eta zerbitzuak eskaintzen hasi behar izan dugu». Gaur egun, egunkari eta liburuez gain, «eskolako materiala, diskoak, jostailuak, litxarriak, kromoak...» saltzen dituzte. Gainera, «Internetetik eskatutako paketeen bilketa gunea da denda, eta atzerrirat dirua bidaltzeko zerbitzua ere badugu». Azaldu duenez, «ondoko dendarekin lehiatzea posible da, baina online salmenta haundiek ezinezkoa da. Okerrik ez bada, urte akabailerako, azaro aldera, denda utziko dugu. Norbaitek hartu nahi izango balu ederki, eta bertzela hetsi egiten dugu».



**«Jendeak asko eskertzen du ematen dugun zerbitzua»**

GARBIÑE HERNANDORENA ERBITI  
HERNANDORENA - LEITZA

Denda historikoa da Leitzako Hernandezena burdindegia, 81 urte bete baititu aurten. «Gure aitona-amonak ireki zuten, eta orduan herriak bi denda bakarrik zituen, denetik saltzen zuten: burdindegiko gauzak, janaria, lastoa, taberna ere bazen... urteak pasatuta, burdindegian eta etxeko gauzetan espezializatu zen». 2014an hartu zien lekukoa gurasoei Hernandezenak, «etxetik hurbil lan egin eta herriari zerbitzua eman ahal izateko». Gaur egun, «burdindegi eta elektrizitateko gauzak, pintura, lorategiko produktu eta landareak, arropa, etxeko gauza... saltzen ditugu». Baina salmentaz harago, hainbat zerbitzu eskaintzen ditu: «sarrailagintza, makineriaren alokairua, garraioak furgonetarekin... beti prest zerbait egiteko. Eta jendeak ere asko eskertzen dituen zerbitzuak dira».



**«Bizitza lasaiago hartu eta gorputzari aditu behar diogu»**

KARLOS ALZUGARAY DE SANTIAGO  
ALZUGARAY OSTEOPATIA - BERA

Duela 22 urte ireki zuen Karlos Alzugarayk fisioterapia eta osteopatia zentroa Beran, eta gaur egun Donezteben ere egiten du kontsulta astean bi egunetan. Bertan, «osasuna hobetzeko eskuzko tratamenduak egiten ditut osotasun batean». Azaldu duenez, «jendea beti minez etortzen zait, eta min hori kentzen edo baretzen saiatzen naiz. Gaizki pasatu duen jendea errepasso bat ematera ere etortzen da tarteka». Gainera, «azken urteetan jendeak puskaz gehiago zaintzen du bere gorputza: niregana etortzen, kirola egiten, eguneroko ohiturak aldatzen...». Hala ere, «gaur egun sobera agudo bizi gara, eta pentsatu gabe egiten ditugu gauzak. Ez dugu bizitza estimatzen. Bizitza lasaigo hartu behar dugu, eta gure gorputzari aditu behar diogu».



**«Herri ttiketian gidabaimena beharrezkoa da»**

KARLOS SEMPER IGARZABAL  
SEMPER AUTOESKOLA - BERA

40 urte egiten ditu aurten Semper autoeskolak Berako Eztegarra pasealekuan, nahiz eta Karlos Semperren aitak lehenago irekia zuen negozioa. Bertan, ziklomotorreko A1 (125 cc arte) eta A2 (400 cc inguru) baimenak eta kotxeko B gidabaimena atera daitezke. Motorrerako «15 urtetik 28-30 urteak arteko jendea etortzen da. Lehen jende helduago ere ibiltzen zen baina orain ez. Kotxeko kameta ateratzeko ere 18 urtetik 22-23 urtera etortzen da jendea». Herrietan «normalean gaztetan ateratzen dugu kameta. Hirietan garraio publiko hobek dituzte eta mantsuago ateratzen dute, baina herri ttiketian bizitzeko beharrezkoa da; lanera joateko, medikuarengana... Kanpotik heldu den jendea hortaz konturatzan da, eta atzerriko jendea ere etorri ohi zaigu».



## Arkiskil berritzea lehentasuna da udalarentzat

Konpromiso ekonomikoa eta teknikoa hartu du udalak eta beharrezkoa den finantziarioa lortzeko tramiteak eginen ditu

### TTIPI-TTAPA

Aurrerako jokalarien eta familien eskaerei erantzun eta futbol zelaian belar artifiziala jartzea lehentasunezko egitekotzat jo du udalak. Mozioa onartu berri du eta belar naturaletik artifizialerako aldaketa lehenbailehen egin dadin, udalari berari dagokion konpromiso ekonomikoa eta teknikoa hartzea adostu du.

Dena den, proiektua gauzatu ahal izateko Nafarroako Gobernuaren, administrazioen eta erakundeek ekarpena eta finantziarioa beharrezkoa dela argitu dute. Bide horretan, «administrazio eta eragile horietan beharrezkoak diren harremanak eta kudeaketak bideratzeko konpromisoa hartu» dute. Helburua, «finantziarioa lortu eta ahalik eta azkarren obra gauzatu eta exekutatzeari



Zelaia lokaztuta. UTZITAKO ARGAZKIA

da». Aurrera Kirol Elkarteari, Nafarroako Gobernuari eta Nafarroako Parlamentua osatzen duten talde politiko guztiei eman diete hartutako erabakien berri.

### Hainbat arrazoi

Proiektu honi lehentasuna emateko hainbat arrazoi nabarmendu ditu udalak eta horietako bat, Aurrera futbol taldeak herrian duen jokalariekopurua izan da: «azkeneko

urteotan inoizko parte-hartzerik zabalena lortu du Aurrera Futbol taldeak. 2023-2024 denboraldian 211 futbolari ari dira, lau eta hogeita zortzi urte arteko neska-mutilak. Herrian dinamika handia sortu da futbolaren bueltan eta jokalariek nahiz haien familiak bete-betean inplikatu dira».

Futbol zelaiaren ezaugarriek, ordea, eta bereziki belar naturalerako zelaia izateak, jarduera hori erabat murriztu eta mugatzen dute: «zelaiaren egoera oso-oso txarra izaten da askotan, negu aldean bereziki. Zelaia erabat lokaztuta egoten da eta oso nekeza da bertan jokatzeko. Zenbaitetan, partidak bertan behera utzi behar izateraino». Baldintza horietan jokatzeko, «lesionatzeko arriskua ere handitu» egiten duela aipatu du.

Entrenatzeko orduan ere ezin dute zelaia erabili eta kiroldegian edo eskola-eremuan entrenatu behar izaten dute, «horrek entrenamenduen kalitateari dakarkion kaltearekin, ezin baitute entrenatu gero jokatu duten tokian». Beste erabiltzaileei ere eragiten die egoerak: «kiroldegiko espazioa konpartitu behar izaten dutelako askotan».

## Arkupeak Elkarteko bazkideen eguna otsailaren 25ean

Leitza, Areso eta Larraungo Arkupeak Elkarteko bazkideek ospakizun eguna izanen dute otsailaren 25ekoa. Hasteko, meza izanen dute 11:00etan eta 14:00etan bazkaria Leitza-ko Erleta Eskolan. Bazkalondoa girotzeko dantzaldia antolatu dute Jose Angelekin.

## Jubilatuena mus txapelketa azkarra antolatu dute

Jubilatuena elkarteak mus txapelketa azkarra antolatu du. Martxoaren 16an, jubilatuena jokatu dira partidak 16:00etan eta izen-ematea egunean bertan izanen da. Bikote bakoitzak 15 euro ordaindu beharko ditu. Sariak izanen dira lehenbiziko lau sailkatuentzat.

## Irakurle taldearen hurrengo bilera martxoaren 13an

Leitza irakurle taldea, Svetlana Alekdiévich idazlearen *Gerrak ez du emakume aurpegirik* liburua irakurtzen ari da hilabete honetan. Irakurritakoaz taldean hitz egiteko, martxoaren 13rako egin dute hitzordua, 18:00etan liburutegian.

## NAN-a berritzeko aukera izanen da martxoaren 7an

NAN-a berritzeko aukera izanen da Leitza. Horretarako alde aurretik txanda hartu beharko da 948 01 20 12 telefonora deituta. Toki mugatuak izaten dira eta oraingoan aukerarik ez duenak, apirilaren 4rako edo apirilaren 30erako har dezake txanda.



MIKEL ASTIBIA

## Ohitura zaharrak berri dituzte otsailaren 4an

Goizean, umeak ibili ziren *Agira-agirando* abestuz. Iluntzean, Santa Ageda bezperako koplak txanda izan zen. *Luze* eta *Inaxio Perurena* aritu ziren bertsoetan eta herritarrak koplak kantatuz, trikitilari, akordeoilari eta txistulariek lagunduta.



# Pediatria zerbitzua bermatzea eskatu du udalak

Zerbitzua berrezartzeko ordezkoa lortu eta egoerari irtenbide egonkor bat emateko eskatu diote Osasun Departamentuari

## TTIPI-TTAPA

Gurasoek egindako eskaerarekin bat egin eta pediatria zerbitzua lehenbailehen martxan jartzeko lanean ari da udala. Dabid Anaut alkateak onartu du, ordea, ezer gutxi dagoela beraien esku: «Nafarroako Gobernuaren eskumena da, Osasun Departamentuarekin bilerak egin ditugu eta presioa egiten ari gara egoerari irtenbidea lehenbailehen eman diezaioten».

Eskura dituzten bitarteko guztiak erabiltzeko eskatu diote Osasun Departamen-

tuari: «kontuan hartu behar dugu 440 bat haur eta gaztetxo bizi direla Leitzaan. Beraien oinarriko eskubide unibertsala, osasun zaintza, erabat urratua dago». Herrian pediatrarik ez izatea, «ikaragarriko hutsunea eta arazoa» dela uste dute: «Iruñeraino joan behar horrek dakartzan eragozpen eta zailtasun guztiekin». Horregatik, epe motzean egoera konpondu eta irtenbide egonkorak eskatzen dituzte, «Leitzaan pediatria lanpostua eta zerbitzua egonkortu eta bermatzeko».

## Palestinarek babesa emateko diru bilketa egiten dute martxoan

### TTIPI-TTAPA

Palestinako herriaren kontrako genozidioa salatu eta palestinarrei laguntzeko ekimenak antolatu ditu Yala Nafarroa Palestinarekin elkarrekin. Leitzaan martxoaren 3an, igandean, elkarretaratzea egiten dute plazan 12:00etan. Herriko

hainbat eragilek *Genozidioa geldituko dugu* pankarta txandaka eramanen dute. Palestinako sarraskiaren inguruko informazioa banatu eta ekarpen ekonomikoak bilduko dituzte. Paper fabrika ere diru bilketa egiteko asmoa dute martxoan.

## TorreaRock elkartasun kontzerturako sarrerak salgai jarri dituzte

### TTIPI-TTAPA

Leitzako Torreak hogeita hamar urte bete dituela ospatzeko TorreaRock elkartasun kontzertua antolatu dute martxoaren 23an. Leitzako Herri Aretoan, 18:30etik aurrera, RottenXII, The Clayton, Neskatasuna, Herdoil eta Üzkülüz

DJ ariko dira. «Auzonalak, musikak eta elkartasunak» bat egiten dute hitzorduan, Torreen duela hogeita hamar urte abiatutako proiektuak segida izan dezan. Sarrerak salgai jarri dituzte dagoeneko eta hogeituroren truke esku-rua daitezke Torrea tabernan.




PELLO ZESTAU

## Satelite bat diseinatzeko ari dira ikasleak

Cansat proiektuan parte hartzen ari dira Amazabal Institutuan Teknologia eta Ingeniaritza ikasten ari diren Batxilergoko 1. mailako ikasleak. Satelite bat diseinatzeko ari dira kilometro bateko altueran propulsatua izan eta lurreratu ahala, interesgarriak diren datu batzuk bidaliko dituen.

## Urtzi Otermin bikain sokatirako mundialean

Iaz hasi zen sokatiran, hamasei urte beteko ditu aurten eta Suediako mundialean parte hartu du. Ez da esku hutsik bueltatu: klub artekoan urrezko hiru domina (Antsoainekin, Abadiñorekin eta Berriozarrekin) eta Nazioartekoan urrezko eta brontzeko domina bana irabazi ditu Euskal Selekzioarekin. Zorionak!



UTZITAKO ARGAZKIA

## Leitzako Erdi Aroko dorreei buruzko hitzaldia 22an

Historian atzera egin eta Leitzako Erdi Aroko dorreei buruz gehiago ikasteko aukera eskainiko dute Herri Aretoan. Garazi Albizua eta Iñaki Sagredo gonbidatu dituzte eta gaiari buruz idatzi dituzten bi libururuak aurkeztuko dituzte 18:00etatik aurrera.

## Kike Amonarrizek hitzaldia eskainiko du otsailaren 29an

Korrika kulturalaren baitan, hainbat ekitaldi antolatu dituzte Tximutxe euskara taldeak eta udalak. Hurrengo hitzordua otsailaren 29an izanen da, Kike Amonarrizek *Euskara bideturutzean: irtenbiderako palanak* hitzaldia eskainiko du 18:00etan Herri Aretoan.

## Herriko festak antolatzeko bilerak egiten hasi dira

Egunen banaketa egin dute eta herri bazkariari eta musika taldeei dagozkien xehetasunak lotzen ari dira

### ENERITZ IRAOLA

Abuztuaren 14tik 18ra izaten dira herriko festak. Bost egunetan egitaraua zehaztea izaten da lehenbiziko zeregina, egun bakoitzean zer ospatuko den jakitea, alegia. Otsailaren 9an egin zuten festa batzordea eta bertan adostu zuten aurtengo egunen banaketa. Abuztuaren 14an festa bezpera, abuztuaren 15ean Ama Birjina eguna, abuztuaren 16an umeen eguna, abuztuaren 17an kuadrillen eguna eta abuztuaren 18an herri bazkaria. Herri bazkarirako dauden proposame-

nak ere mahai gainean jarri zituzten, gehiengoa kateringaren alde agertu zen eta urrerago zehaztuko dute zein enpresarekin egin. Musikari dagokionez ere, lehenbiziko taldeak zehaztu dituzte eta abuztuaren 18an Joxelu Anaiak, berriz ere, Aresoko oholtzan izanen dela baieztatu dute.

### Hurrengo hitzordua

Festa batzordeko hurrengo bilera martxoaren 7an izango da, 17:30ean udaletxean. Herriar guztiei parte hartzeko deia egin diete.



Tartean, etxe bakoitzarentzat prestatutako koplak abestu zituzten. E. IRAOLA

## Kopla kantari ibili dira haurrak eta helduak Santa Ageda bezperan

### ENERITZ IRAOLA

Zapiak lepoan eta makilak eskuetan. Santa Ageda bezperako koplak abestuz ibili ziren haurrak eta helduak otsailaren 4an. Guraso Elkarteak duela urte gutxi antolatu zuen lehenbiziko aldiz eskea eta urtez urte berritzen dute ohitura. Arratsaldeko 5ak aldera, txo-

kolate beroa edanez eztarriak berotu eta etxez etxe abiatu ziren kantuan. Kopla zaharrak eta berriak abestu zituzten, herriko etxe bakoitzarentzat propio sortutakoak ere bai. Tartean, omenaldigisara, atea itxi berri dituen Sastinea tabernako jabeei bi kopla abestu zizkieten.



E. IRAOLA, J. OLAZABAL, I. GURRUTXAGA

## Umore ona nagusi inauterietan

Eskolako ikasleek eman zieten hasiera inauteriei otsailaren 2an eta Lagun artekoek herriko eskea egin eta elkarrean afaldu zuten. Biharamunean, baserrietako eskea, *Gure atsuen* bisita, pilota jaialdia, ijitoak, udaletxearen parodia, 120 herritar bildu zituen herri afaria eta umore ona nagusi.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Herriarrek sokatirako mundialean

Imanol Baraibar, Iñaki Galarraga eta Jabier Otermin aresoarrak Helsingborgen (Suedia) jokatu den munduko sokatira txapelketa izan dira. Ibarra eta Berriozar taldeekin lehiatu dute eta dominarik lortzerik izan ez duten arren han bizitako esperientzia ederra betirako izango dute gogoan.



## Hainbat kultur hitzordu prest datozen asteetarako

Liburu aurkezpena, musika emanaldiak, pailazoa eta film emanaldia izanen dira martxoaren 3ra bitartean

### TTIPI-TTAPA

Inauterien ondorena goxatzeko, hainbat kultur ekitaldi prestatu dituzte Goizuetako Kultur taldeak, Umore Onak eta Korrika Batzordeak. Liburu aurkezpena eta musika emanaldiak lotu dituzte otsail-leko azken astebururako. Martxoan, berriz, Korrikarako girotzen joateko astero ekitaldiren bat antolatu dute Korrika Kulturalaren baitan.

Otsailaren 24an, larunbatean, *Ignazio Bergara goizuetarraren gutunak. Arranbide (Arano) eta Elama (Artikutza). 1787-1811. Edizioa eta Hizkuntza Azterketa* liburua aurkeztuko dute Herriko Etxeko ganbaran. Aurkezpena 11:00etan hasiko da eta Juan Joxe Zubiri eta Patxi Salaberri egileak bertan izanen dira. Arratsaldean, berriz, Umore Onak eta Bilboko



Zapotxin pailazoa. KRONIKA

Kirikiño abesbatzek kontzertua eskainiko dute Elizan 19:15etik aurrera.

Otsailaren 25ean, Jaione Olazabal eta familiak emanaldia eskainiko du 18:00etan Herriko Etxeko ganbaran.

Martxoaren 2an, Zapotxin pailazoak saioa eskainiko du 17:30ean Herriko Etxeko ganbaran eta martxoaren 3an, igandean, helduentzako Bizkarsoro filma proiektatutako dute 18:00etan.

## Errota harrien bueltan mendi itzulia egingen dute martxoaren 2an

### TTIPI TTAPA

Arainburu Mendi Taldeak proposamen berezia egin du martxoko lehenbiziko larunbaterako. Errota harrien bueltan mendi itzulia antolatu dute eta paraje zoragarriez gozatzeko aukera izateaz gain, errota harriei buruzko azalpenak entzuteko aukera ere izanen da. Enekolorri, Organbide, Arramalta eta Espiden barna osatuko dutelauzprobost orduko itzulia. Herriko plazatik 08:30ean aterako dira eta bueltan, 13:30 aldera izatea aurreikusten dute. Denera,



Herri inguruan izanen da itzulia.

hamabi kilometroko ibilbidea egingen dute, 701 metroko desnibela duena. Ez da aurretik izena eman behar eta bakoitzak bere hamaiketako eraman beharko du.



FELIX LOIARTE

## Inauteriak giro ederrean

Kolore eta umore festan, gustura ibili dira herritarrak. Zahagi dantzarekin hasi, andaluziarren bisita jaso, mozorroen kantu, kontu eta dantzekin tarte polit bat pasa, Historiaurreko pertsonaiaz jantzi, irudimena martxan jarri eta barrez lehertu... denetarako tartea izan dute inauterietan.



FELIX LOIARTE

## Kopla kantari Santa Ageda bezperan

Otsailaren 4an, urteroko usadioarekin jarraituz, herritar talde bat atera zen koplak kantatzera. Jai eguna zela aprobetxatuz, eguerdian egin zuten ekitaldia iluntzean egin beharrean. Juanak eta Josuk kantatutako koplak, beste kantarien, trikitixen eta panderoen doinuekin nahasi ziren.

## Korrika festa antolatu dute martxoaren 9rako

AEKren alde dirua atera ahal izateko hainbat ekimen eginen dituzte egunean zehar

### AINHOA ANSA

Korrika inoiz baino gertuago ibiliko da aurten eta urtero bezala herritarrek bertan parte hartzeko asmoa dutela erakutsi dute. Festa batzordea Korrika batzorde bihurtu eta Korrikarako giroa berotzen hasi dira. Kilometroak saldu dituzte eta AEKren alde dirua biltzeko asmoz, buruari buelta batzuk eman eta egun osoko festa antolatu dute. Martxoaren 9an, larunbatean, izanen da eta herritar guztiak parte hartu, ongi pasa eta ahal duten moduan beraien ekarpena egitera animatu dituzte. Eguerdian, 12:00etan, eginen duten bigarren eskuko azokarekin hasiko da eguna. Parte hartzeko bi modu izanen dituzte: zerbait erosiz edo bestela azokarako arropa, liburuak... emanez. Herritar guz-



Bigarren eskuko azoka eginen dute.

tiei egin diete beraien gauzak eramateko gonbidapena. Mahaiaren bueltan bilduko dira gero, kantu bazkaria izanen dute 14:00etan herriko musikariekin. Bazkaltzera joateko asmoa dutenek Kontsejuan eman beharko dute izena. Menu vegetarianoa ere aukeran izanen dute, aldezturik abisatzen bada. Eguna bukatzeko argazki subasta eginen dute 18:00etatik aurrera.



ZOMORROEK UTZIAK

## Zomorroek alaitu dituzte txoko guztiak

Beltsoko bordan bildu ziren goizean goiz zomorroak eta ohiturazko puxka biltzea egin zuten Surotik abiatuta. Izer eta Alabier trikitilarien doinuak izan zituzten bidelagun eta Zomorroek utzitako argazkietan ikusten denez, giro ederrean ibili ziren egun osoan.



IGOR ELIZEGI

## Hiru txapel Goizuetara eta zazpi Leitzara

Mendialdeko txikien eskuz binakako pilota txapelketako finalak jokatu zituzten otsail hasieran. Aurrerak zazpi txapel lortu zituen, Umore Onak hiru finaletan sartuak zituen pilotariak eta hirurak txapeldun suertatu ziren.

## Euskal Herriko Mus Txapelketako partidak

Euskal Herriko Mus Txapelketako partidak jokatzeko ari dira azkeneko asteetan eskualdean. Hurrengo partidak otsailaren 24an izanen dira. Goizuetan Umore Ona Elkartearen eginen dute hitzordua 16:00etan. Leitzan, Leitzarra ostatuan bilduko dira 16:00etan. Parte hartu nahi duten bikoteek egunean bertan eman beharko dute izena. Herrietako irabazleak zehaztutakoan, herrialdeko kanporaketak jokatuko dituzte eta Euskal Herriko finala Altzain (Zuberoan) izanen da martxoaren 23an.



Duten antzinasunagatik aunitz dira birgaitze lan sakonak behar dituzten eraikinak. Nafarroa osoan kontsumitzen den energia fosilaren ia % 20aren eta kontsumitutako energiaren % 25aren erantzule dira.

Horri erantzutea du helburu birgaitze energetikorako PREE5000 dirulaguntza deialdiak eta gainera, laguntzak eskatzeko epea uztailaren 31ra arte luzatu dute 5.000 biztanletik beheitiko udalerrietan.

## **Doneztebeko, Lesakako, Berako, Elgorriagako eta Baztango udalak Nasuvinsarekin lankidetzan**

Birgaitze energetikoaren prozesuan herritarrei laguntzeko asmoz, Doneztebeko, Lesakako, Berako, Elgorriagako eta Baztango udalak Nasuvinsarekin lankidetzan ari dira, eta 2021az geroztik herritarrei laguntzeko zerbitzua martxan dute, teknikariarekin eta kudeatzailearekin.

### **Baztan-Bidasoaldean lanean**

Bi urte hauetan birgaitze energetikoko hainbat proiektu paratu dituzte martxan, tartean, Elizondon eta Beran.



**Berako** Alzate Karrikako 15. zenbakian, 12 etxebizitza eta lokal komertzialak daude. Iazko urrian hasi zituzten fatxada, arotzeria eta teilatua birgaitzeko lanak eta laster bukatuko dituzte. Dirulaguntzak gastu osoaren % 49ra artekoak izan dira. Proiektua Mugara Arkitektura Berako taldeak egin du eta eraikuntza lanetan Ordiziako Vasile enpresa ari da.

**Elizondoko** Santiago Karrikako 47. zenbakian, 18 etxebizitza eta lokal komertzialak daude. 2023ko urrian hasi zituzten lanak eta aurtengo maiatzean bukatuko dituzte. Fatxadak estalita dituzten bizilagunek erosotasun termiko handiagoa nabaritu dute, eta obraren gastu osoaren % 46 dirulaguntzekin bideratu dute. Proiektua Arteka, Laborra eta Guriarena da, eta eraikuntza lanak egiten Irurritako Miguelene ari da.



**Bertze lau herrietan inguratzailer termikoa hobetzeko obrak egitea erabaki dute, erosotasuna hobetzeko eta energia kontsumoa murrizteko:**

**Lesakan:** Koskontako bidea 1. eta Plaza Zaharra 13. zenbakietan.  
**Beran:** Hegoalde 35. eta Azkaine 3. zenbakietan.  
**Elizondon:** Mendinueta 3. eta Braulio Iriarte 52. zenbakietan.  
**Elbeten:** Frantzia 1 etorbidean.



## Erdizko UGEParen kontrako alegazio sinaduren bilketa

Erdiz Bizirik plataformak abiatu du bilketa eta, Baztanez gain, Nafarroako zein Euskal Herriko hainbat txokotan izanen dira

### TTIPI-TTAPA

Otsailaren 6an Erdizko proiektuko UGEParen berri eman zuen gobernuak Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Magnaren meategi proiektua tokiko erakundeen autonomiatik kanpo utziz.

Hori dela eta, Erdiz Bizirik plataformak argi utzi du «gure lurra eta bizimodua defendatzen segituko dugula», eta alegazioen sinadurak biltzen hasiko da. Sinadurak herriz herri bilduko dituzte Baztanen, baita eskualdeko Nafarroan eta Euskal Herriko bertze txokotan ere. Gainera, alegazioak aurrez aurre eta digitalki sinatzen ahaliko dira.

Adierazi dutenez, «ez dugu onartuko bakar batzuk abe-rastuko dituen eta urte luzez jasangarria izan den bizimodua desagerraraziko duen proiektu



Elizondoko agerraldia. I. JAURENA

tua UGEP gisa inposatzea. Gobernu nahiz haren erabakiak babesten dituzten erakundeak seinaltzera gatoz, behin eta berriz, legealdiz legealdi, tokiko erakundeen autonomiaren gainetik pasatzen ari baitira».

Horregatik, «kalera atera gara bertze behin, dozenaka herritarren babesarekin, bizitzaren alde egitera eta euskal herritar guztiei Erdiz babestu dezatela eskatzera».

## Hainbat ekitaldi eginen dituzte martxoan Baztanen Korrika kulturalaren barnean

### TTIPI-TTAPA

Baztango Korrika Batzordeak, Baztango Udalaren, Amezti elkartearen eta Txokoto tabernaren laguntzarekin, hainbat jarduera antolatu ditu Korrikaren karietara martxoan Elizondon eta Iruritan.

**Hilaren 9an**, larunbata, Korrika besta eginen dute Elizondon; goizean bizikleta martxa izanen da, ondotik bazkaria eta bertso poteoa, eta eguna borobiltzeko kontzertua.

**Martxoaren 10ean**, igandea, Jon Plazaolak Tu Tum Platz



Martxoaren 14an abiatuko da Korrika.

bakarrizketa aurkeztuko du Iruritik Gizarte Bilgunean.

**Martxoaren 15ean**, berriz, Bidebar taldearen kontzertua eta pintxo-potea izanen dira Amezti elkartearen.



ELKAR

## Ernesto Praten liburu berria

*Mendeku eskubidea* liburuak kaleratu berri du Ernesto Praten idazle lekaorotarrak; Baztango egungo testuinguruan kokatua eta mendekua ardatz duen nobela beltza. «Gizarte Zerbitzuetako enplegu babestua ertz ezin egokiagoa da Baztango gizartearen lotsak agerian uzteko».



ELURRE IRIARTE

## Zuhaitzaren egun polita Arizkunen

Otsailaren 3an Zuhaitzaren eguna egin zuten lehenbiziko aldiz Arizkun, eta 50 gaztainondo eta 10 txopo landatu zituzten Lamiarrieta eta Xuberon borda inguruan. Arratsaldean ipuin kontalaria eta Bidebar taldearen kontzertua izan zuten, eta biharamunean haurrentzako zinema asteburua borobiltzeko.

MÁRMOLES  
**AMEZTI**  
Desde 1994

**SUKALDEKO ETA KOMUNEKO ENTZIMERAK EGITEN DITUGU**

info@marmolesamezti.com - www.marmolesamezti.com

Iruñea Irun errepidea, z/g.  
ORONOZ-MUGAIRI

T. (+34) 948 592 325  
F. (+34) 948 592 295





**deceuninck**



Elegant **ThermoFibra** Infinity

Uf (W/m<sup>2</sup>k) **0,85**



**JASANGARRIAK ETA ERAGINKORRAK**



**AURREZTE ENERGETIKOA**



**SEGURTASUNA ETA SENDOTASUNA**



**ISOLAMENDU MAXIMOA**

# «Palestinarrei ahotsa eman eta elkartasuna adierazi behar diegu»

ITZIAR TORRES LETONA BAZTAN PALESTINAREKIN HERRI EKIMENA

Palestina gertatzen ari denari buruz informazioa zabaltzeko eta palestinarren zapalkuntza salatzen helburuarekin, ekitaldiak antolatzen dituzte egunotan Baztanen

## R. OSKARIZ

«Palestinarrak jasaten ari diren sarraskiaren aitzinean, haiei ahotsa emanez, salaketa publikoa egitea helburu duen ekimena» da Baztan Palestinarekin. Sortu berri den taldeko kidea da Itziar Torres, «eta interesa duen edonork parte hartzen ahal du».

### Nola azalduko zenuke Palestinan gertatzen ari dena?

Afera duela hamarkada aunitz hasi zen. Palestinan musulmanak, kristauak, juduak eta bertze bizi ziren elkarrekin, baina Europak proiektu bat sortu zuen: sionismoa. Sionismoak estatu judu bat du helburu, eta horretarako existitzen den herrialde horretako jendea kanporatu, lurra ebatsi eta mundu zabaletik etorritako jendeekin bete nahi dute. Estatu arrazista, kolonizatzaile eta militarizatu bat nahi dute, palestinarrik gabe, eta horrek etnia garbiketa bat eskatzen du. Europari geopolitikoki komeni zaio horrelako estatu bat ekialdearen atarian edukitzea. 1940ko hamarkadan palestinarren % 80 kanporatua izan zen bere etxetik; milioika errefuxiatu daude munduan barna barreiatuak. Etxeak, auzoak, herriak eta eskualdeak kentzen zaizkie eta beren etxetatik kanporatzen dituzte.

### Eta zein da egungo egoera?

Apartheid egoeran daude, eta zapalkuntzaren zerrenda beltza eta luzea da. Gaza munduan



«Interesa duen edonork» ekimenean parte hartzen animatu du Torresek. UTZITAKOIA

inoiz egon den konzentrazio esparru handiena da, eta bertan bizi diren palestinar gehienak errefuxiatuak dira. Gazarat ailegatu aitzinetik beren etxeak kendu dizkiete, familia osoak erahil dituzte... eta orain berri! Israel eskubide internazional guztiak urratzen ari da; gerra krimenak egunero-egunero egiten ditu eta hildakoen % 70 emakumeak eta haurrak dira. Garbiketa etnikoa agerikoa da.

### Nolako erantzuna du nazioartean?

Nazioartean gertatzen ari dena lotsagarria da, baita Europako kazetaritzak gaiari ematen dioten tratamendua ere. Israel eta Hamasen arteko gerra ai-

**«PALESTINAN GERTATZEN ARI DENA EZ DA GERRA, GENOZIDIOA DA»**

patzen dute, eta hori alimaleko gezurra da: genozidio bat da. Urriaren 7an ez zen Hamas bakarrik atera; palestinar erresistentzia guztiak atera zen bere herria defendatzera. Hamarkadetako kolonizazio basati bati erantzuteko, erahilketak, torturak, atxiloketa sistematikoak, abusuak, ur-hornidura, lur eta duintasunaren ebasgo errepikatu eta zitalari erantzuteko. Nazioarteko legean idatzia da herri okupatu batek eskubidea duela bere burua defendatzeko medio guztiak erabiliz. Defendatzeko eskubidea zangoperatuarena da, ez okupatzailearena. Hamasek hauteskundeak irabazi zituen zilegitasun osoz eta Europak erabakitzen du nor den terrorista eta nor ez. Nazioarteko estatuak jarrera konplize edo laguntzaileak hartzen dituzte Israelerako, beti bezala interes ekonomikoak tarteko direla. Hala ere hor ditugu Yemen, Hegoafrika, Libano... bezalako herrialdeak egoeraren larritasunari erantzuteko konpromisoak eta arduraz jokatzeko ari direnak. Palestinar guztiak erresistentzian daude bortxaz. Egoera arras larria da.

### Eta Baztanen kontzientziazioa ikusten duzu?

Baztanen, oro har, herri dinamika arras positiboa dugu. Herri zapalduen inguruko interes handia dagoela erranen nuke. Urteetan solasaldi eta mahainguru aunitz antolatu dira eta horrek bere fruituak ematen ditu. Bertzalde, ikusi bertzerik ez dago 2012an antolatu zen EH Palestina egunaren karietarat lortu zen dinamika indartsua.

### Otsailean hainbat ekitaldi antolatu dituzte, eta 2an izan zuten lehenbizikoa.

Behar bat ikusten genuen, zaila zitzaigun gertatzen ari denarekin deus ez egitea, edo sinpleki afera mahai inguruko elkarrizketetan uztea. Lehen solasaldia luxuzkoa izan zen: Fayez Badawi PAHFko kidea (Palestinaren Askapenerako



Herri Frontea) izan genuen gurekin eta pista argigarri aunitz eskaini zizkigun entzuleei. Israel estatu sionistaren helburuez mintzatu zen eta batez ere zein interes dituzten AEBk eta Europak proiektu honekin. Horren parean, erresistentziaren ardatzak duen indarrak ere solastatu zen, bertze gauzen artean.

**Jendearen interesa piztu zuen?** 70 pertsona inguru hurbildu ziren, eta astean zehar aunitz aipatu da herritarren artean bere solasaldia, beraz interesa piztu zuen, bai.

**Bi ekitaldi gehiago antolatu dituzue hilabete honetarako, ezta?**

Bai. Otsailaren 23an, ortziralea, 19:00etan Lidon Soriano etorriko da Arizkunenerat. Lidon Sorianok harreman berezia du Palestinarekin, hango errealitatea lehen eskutik eta arras ongi ezagutzen baitu. 20 urtez brigadak antolatu ditu Palestinarat eta honez gain osasun larrialdietan doktore eta erizain gisa lanean aritu da hor. Beraz, solasaldi honek ere interes handia sortuko du, hango gatazka lehen pertsonan arras ongi ezagutzen duelako. Bertzalde, otsailaren 24an Arizkungo Lamiarrietan 10:30ean adin guztiendako proposa den ekimen bat egingen dugu. Mural eder bat margotuko dugu denen artean, *Nire hitza ez dezala haizeak eramanez* lemarekin. Tarte hau probextuko dugu ere, nola ez, gure artean momentu goxo bat pasatzeaz gain gaiarekiko elkarrizketak eduki ahal izateko. Bistan da, denak gonbidatuak zaudetela.

**Martxoan, berriz, elkarretaratze deialdia egin duzue...**

Bai, elkarretaratzea Yala Nafarroak deitua da. Nafarroako herriei dei egin zaie egun hau antolatzeko eta gu ere animatutara. Martxoaren 2an izanen da Elizondon eta bi ordu iraunen du, 11:00etatik 13:00etara. Bi helburu ditu, plazan palestinarrei gure babesa adieraztea eta estatuen zuri-keriaren gainetik herritarrak



Palestinako erresistentziako Fayeze Badawiren solasaldiak 70 lagun inguru bildu zituen Arizkunenean. ONDIKOL

haiekin gaudela agertzea. Bertzalde, diru bilketa egingen dugu, Benjamin Netanyahu Israelgo ministroa internazionalki auzipetzeko ekimen bat abian da eta horretarako sosa

behar baita. Bertze puska Gazaratigortzeko izanen da, behar gorrian baitaude.

**Nola eman daiteke dirua?**

Diru bilketa batez ere elkarretaratzearen egunean me-

tatuko da, hala ere, inork egun horretan agertu ezin badu eta sosa emateko borondatea badu, gurekin harremanetan jartzea bertzerik ez du. Eta talde edo plataformaren bategarri bada, haiek ere parte hartzen ahal dute sos bilketa honetan.

**Zer egiten ahal dute baztandarrek palestinarrei laguntzeko?**

Nire ustez, garrantzitsuena informazioa iturri fidagarrietatik lortzen saiatzea da; haiei ahotsa eman behar zaie eta haiek eskatzen dutena babestu. Herritar bezala haiei elkartasuna adierazi behar diegu eta mobilizazioetan parte hartu. Boikotak duen garrantzia ere azpimarratzeko da, Hegoafrikan berebiziko garrantzia izan zuen bertze afera aunitzen artean, eta genozidio honetan ere izan dezake, seriooki egiten badugu. Hau gizarretatzeko BDZ mugimenduak lan handia egiten du eta urteak daramazki honetan lanean.

## Ekitaldiak eskualdean

### Otsailak 23, ortziralea

- **Solasaldia: 'Gatazkaren klabeak'** Lidon Sorianoaren eskutik. Elizondoko Arizkunenean, 19:00etan.

### Otsailak 24, larunbata

- **Mural pintaketa** Arizkungo Lamiarrietan, 10:30ean.

### Martxoak 2, larunbata

- **Elkarretaratzea eta diru bilketa** Elizondoko plazan, 11:00etatik 13:00etara.

### Martxoak 3, igandea

- **Elkarretaratzea eta diru bilketa** Leitzako plazan, 12:00etatik 14:00etara.



JONE MITXELENA

## Giro ederra Azpilkuetako inauterietan

Eguraldi onaz eta musikaz lagunduak ibili ziren etxetz etxe bigegunez Azpilkuetan. Larunbateko afaria eta besta ere giro ederrean pasatu zuten, eta besta akituta, errateko gauza bakarra dute: «mila esker etxeko ateak ireki dizkiguzuen herritar guziei!».



ELI BARRENETXE

## Elbeten ere umore ederra inauterietan

Larunbat goizean Posadan egin zuten gosaria herriko gazteek, eta ongi jan eta edanda, etxetz etxe ibili ziren kantuan eta eskean, mozorro koloretsuz jantziak eta akordeoiaren soinuaz lagunduak. Ederki pasatu zituzten elbetearrek inauteriak!

# LIDERA

HORTZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL

---

**INGURUNE BERRI BAT ZURE IRRIBARREARENTZAT**

astelehenetik ortziratera

**08:00-13:00**

**15:00-20:00**

larunbatetan goizez

---

Iturrunzubiko plaza, 9-10 • 31770 LESAKA

Tel. **722 662 478** | lidera@hortzklina.es

@liderahortzklina

# Jose Manuel Iñarrea Kilimanjaroko gailurrean

Otsailaren 6an lortu zuen Apoyo Dravet elkarteko bandera Afrikako mendirik altuenera eramatea

### TTIPI-TTAPA

Dravet gaixotasunari ikusgarritasuna eman nahi dioten mendi erronkak egiten ditu Jose Manuel Iñarrea erratzuarak, eta aurtan Afrikako ton-torrik altuena igo du: Tanzaniaiko Kilimanjaro sumendia (5.895 metro). Otsailaren 5ean abiatu zuen ibilbidea eta bihamunean lortu zuen goitiraino ailegatzea.

Igoera «abentura bat» izanda; «hiru kanpamentu ditu eta azken kanpamenturaino bidea nahiko ona da, baina azken 2.000 metroak arras esijenteak



Iñarrea mendi kaskoan. UTZITAKOIA

dira, malda haundikoak. Krattera elurrean inguratu behar da, 200 metroko desnibelarekin. Mendi ederra da, merezi duen gailurra».



AMAIA ARRAZTOA

## Inauterien bigarren buelta Iruritan

Bi aste lehenago baserrietan ibili baziren, otsailaren 10eko asteburuan besta herrian egiteko txanda zuten iruritarrek. Egurdiak nahiko ongi eutsi zion eta «gustura eta giro politean» ibili ziren herritarrak. Heldu den urteko inauterien esperoan gelditu dira orain.

# MARMOLES SOULE

LAPIDAK  
PANTEOIAK  
HILERRIAK  
ZAHARBERRITZEAK  
GARBIKETAK  
HARRI ZIZELKATZEA

www.marmolessoule.com

---

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444  
marmolessoule@gmail.com



# Arizkungo inauteriak ezin hobeki joan dira

Igandean eta astelehenean puska biltzean ibili ziren gazteak, eta astearteko desfilearekin eman zieten akabaila inauteriei

## MARKEL ADIN

Aurten, bertze behin, Arizkungo 60 gazte inguru bildu ginen igande goizean, otsailaren 11n, gosaltzeko. Indarrak hartuta eskerat joan ginen eta Bergara, Aintzialde eta Pertalats auzoak bisitatu genituen gazteok. Ondotik, ilunabarrean, herrian akitu genuen ibilbidea, afariarekin.

Biharamunean, astelehenean, Bozaten eta Ordokin ibili ginen etxez etxe eskean. Egunez auzo hauetan egon ondotik, arratsean herriko azken etxeetan kantuz eta

dantzaz akitu genuen puska biltzea.

Asteartean, berriz, urteroko desfilea egin genuen herrian: Hartza eta bere zain-tzailea, musikariak eta dantzariak, mozorroak... han egon ginen denak herria alaitzen.

Arizkungo gazteok bihotzez eskertu nahi diegu etxe guzietan beren atak irekitzeagatik. Esker mila ere Kristian, Andoni, Ximun, Peio eta Iñakiri, berriz ere gure herria alaitzeko prest egoteagatik. Gora Arizkungo inauteriak!



Giro ederra izan zuten arizkundarrek inauterietan. ONDIKOL

## ALMACO Eraikuntzako materialak



Informazio eta aukera gehiago:

[www.almacobaztan.com](http://www.almacobaztan.com)



📍 Errepide nagusia, Elizondo

☎ Tel. 948 580 104

**GAMMA**





Makilen erritmoan abestuz ernatu dute lurra ikasleek. ELIZONDOKO ESKOLA



IZASKUN ALMANDOZ

# Lurra ernatu eta lehen hazia landatu dute Elizondon

Neguko solstizoaren bueltan hainbat ekitaldi egiten ditu urtero Elizondoko Eskolak

## ELIZONDOKO ESKOLA

Globalizazioak eta pantailek irensten gaituzten garai honetan, bereziki garrantzitsua da lurrera jaitsi eta umiltasunez gure ohiturei so egitea. Hauek berreskuratu nahi izan ditugu Elizondo Ikastetxe Publikoan, horregatik, geroz eta kontzientzia handiagorekin ospatzen ditugu zenbait ospakizun. Garai hauetan zentzu beraklotzen dituen hariari segituz lantzen ditugu Olentzero eta Mari Domingiren etorrera, lurraren ernatzea eta inauteri eguna.

Eskolako baratzean lurra ernatzen dugu makilen errit-

moan abestuz, uzta oparoa iragarritz eta lehen hazia landatuz, segidan inauteriei lekua eskainiz. Garai batean, neguak sorrarazitako beldurrak adierazi eta askatzeko garaia zen inauteri aroa. Eskolan plazara ateraz ospatzen dugu egun berezia, euskal tradizioko zenbait dantza dantzatuz herriko gazteekin batera, hala nola, mozorro dantza, eta animatzen diren herritarrekin bilduz. Egun honetan, Guraso Elkarrekin plazan prestatzen du gosaria eta giro alai eta ederrean igarotzen dugu, haurrak erdigunean kokatuz.

## Giro bikaina Lekarozko inauterietan

Urtero bezala, etxez etxe eskean ibili dira lekaroztarrak inauterietan, eta azken urteetan posible izan ez den sagardotegiko afaria egin ahal izan dute aurten. Gazteek eskerrak eman dizkiete etxeko atea irekitzeko borondatea izan duten herritar guziei.



ARITZ ELIZEGI

## Gartzaindarrak gustura inauterietan

«Giro onean eta gustura» ospatu dituzte inauteriak gartzaindarrek, eta adin guzietako herritarrek atera dira mozorro koloretsuekin. Gazteek eskerrak eman dizkiete atea ireki dizkieten etxe guziei, baita Izaskun Iparraguirre akordeoilariari ere.

**BRIKO BAZTAN, SL**

Bainuontziaren lekuan dutxaontzia jarzea

Pinturak  
Fatxadak  
Pladurra

Egur lakadura eta bernizadura  
Birgaitzeak eta obra berriak  
Lur-mugimenduak

T. 608 016 052  
San Andres, 66 - NARBARTE  
(Sarrera Legasatik)

Oharriz Auzoa z/g - LEKAROZ  
T. 948 452 143 - 948 452 449  
info@harrilan.com www.harrilan.com

**HARRI LAN, SL**  
GIZTARERAKO ENPLAZAMEN

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN  
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

## 'Bichta éder' liburu aurkezpena 29an Iruritan

Nafarroako iparraldeko udal eta euskara mankomunitateek Literatura Geraldiki antolatuta dituzte bertze behin. Lehen-bizikoa Baztanen izanen da: Eneko Bidagaine *Bichta éder* liburua aurkeztuko du otsailaren 29an 19:00etan Iruritikoa Gizarte Bilgunean.



Sartu  
gure web-orri berrituan  
[WWW.SILOTITE.COM](http://WWW.SILOTITE.COM)



**Bazkak nutriente  
gehiagorekin izateko**

# Silo bolak egiteko plastikoak

**Produktu berria, orain merkeagoa!  
750 mm zabal, 1800 m luze**

- Edozein belar klasetan erabilgarria
- SILOTITE: Aukeran 500 mm eta 750 mm-tan
- BALETITE: Aukeran 1.280 mm eta 1.380 mm-tan
- Zulatzeko gogorra eta tiratzerakoan sendoa
- Elastikotasun ezin hobea
- Memoria elastiko bikaina
- Ongi itsasten dena
- Baldintza atmosferiko guztietan erresistentzia onekoa eta UV egonkortasun handikoa
- Ingurumenarekin erasokorra ez den plastikoa



Silotite®. Seguratasunaren aukera

Ezin hobek gure lan arloan



**AROZ-BERRI, S.A.**

Pol. Zaldubia NA-8307, km 0,8 - 31730 IRURITA (Nafarroa)  
Tel. 948 581 021 / 948 580 258 - [irurita@arozberri.com](mailto:irurita@arozberri.com)

[www.arozberri.com](http://www.arozberri.com)



# Karririk mozorroz bete dituzte Elizondon

Eguraldi kaskarrari umore onarekin egin zioten aurre elizondoarrek larunbatean

## TTIPI-TTAPA

Eguraldia lagun ez bazuten ere, jendetza bildu zen larunbat goizean mozorroren desfilea ikustera Elizondon, eta denetik ikusteko aukera izan zen: sanferminetako entzierroa, Eurovision, hippyak, Wonka txokolategilea, animaliak, tenislariak, motorzaleak... baita stripteasea egin zuten garbitzaileak ere. Umorerik ez zen faltatu desfilean.

Herriak lehiaketa antolatu zuten aspaldiko partez, eta mozorro hoberenak saritu zituzten eguerdian plazan.

Banakako kategorian Pili Arri-juria emaztegaia izan zen irabazle eta Baztango Zaporeak elkartearen produktu sorta lortu zuen. Taldeko kategorian Pedrocheek lortu zuten saria haien soinekoekin, eta Bertaneko dendetan gastatzeko 200 euroko bonua eskuratu zuten. Ostatuen kategorian Txokoto taberna, bikingoz jantzia, izan zen garaile eta Baztango Zaporeen produktuez gain oroi-garria irabazi zuten.

Bestakarratsaldean izan zuten segida AiZer 1/2 DJarekin goizaldeko ordu ttiakiak arte.



Mota guzietako mozorroak aurkeztu zituzten desfilean. ONDIKOL



NEREA MORTALENA



GORKA LAURNAGA

## Ederki joan dira inauteriak Arraiozen

Ortziralean haurrak eskolarekin mozorrotu ziren eta herrian barna ibili ziren. Gazteak, aldiz, etxez etxe ibili ziren baserrietan. Larunbatean herriko etxeen txanda izan zen, eta ez hain gazteek ere bazkaria egin zuten elkartean. Inauteriei bukaera emateko, afaria egin zuten herriko batzartegian.

## Berron eta Beartzunen ere inauteriak

Aurten ere mugimendua izan da Elizondoko auzoetan; iaz hartutako ohitura segituz, elkarrekin ospatu dituzte inauteriak Berron eta Beartzunen. Ortziralean Antzanbordan hasi eta Berron ibili ziren, eta biharamunean Beartzunen. Gazteek eskerrak eman dizkiete etxe guzietatik irekitzeagatik.





ONDIKOL

## Desfileak hetsi ditu Erratzuko inauteriak

Igande, astelehen eta asteartean etxe etxe eta auzoz auzo eskean ibili ondotik, astearte arratsaldean eman zioten akabaila inauteriei erratzuarrek. Tradizioari segituz, damak atera ziren zanbonbak jotzen herriko karriketean, baita gazteak mozorrotuak ere.



MAIALEN AGIRRE

## Eguraldi eta giro ederrak Zigan

Giro ezin hobea izan zuten zigatarrek inauterietan. Eguraldia lagun zutela eta trikitixa doinuek alaiturik, etxez etxe ibili ziren herriko gazteak eskean eta kantuan. Eskerrak eman dizkiete haien etxeetako ateak ireki zizkieten herritar guziei.

## Patxi Miranda xakeko txapeldun Txokoton

Txokotoko II. xake txapelketak 15 partaide izan ditu, eta Patxi Miranda izan da garaile, Donostiako Kaxilda liburu-dendarako 50 euroko txartela eskuratuz. Antton Laurnaga izan da bigarren, «guttigatik». Zorionak!



TXOKOTO TABERNA



AIMAR AROZENA

## Umorea ederra Almandozko inauterietan

Almandozen ere inauteriak ospatu zituzten ortzirale eta larunbatarekin. Mota guzietako mozorroekin soinean eta akordeoi soinua lagun zutela, giro ederra izan zuten asteburu guzian. Irriak eta umorea ere ez ziren faltatu almandoztarren artean!



ANE GOIENETXE

## Amaiur kolorez bete dute inauterietan

Haur, gazte zein heldu, adin guzietako herritarrek giro ederra izan zuten inauterietako ortzirale eta larunbatean Amaiurren, mota guzietako mozorroak soinean zituztela. Inauterizaleek eskerrak eman dizkiete etxeko ateak ireki zituzten amaiurtar guziei.



# ZUGARRAMURDI



1958ko ihauterietan, Bereko-bentan. UTZITAKOA



1976ko ihauterietan, Barrantzeko atean. UTZITAKOA

## Urtez urte aldatu diren ihauteriak umorez ospatu dira

Larunbateak gazteak ibili ziren, igandean pausa eguna izan zuten eta astelehenean eta asteartean haurren txanda izan zen

### MARIFA ETA KORO

Denbora ez da lagun izan, baino hala ere ederki pasatu dira aurtengo ihauteak. Larunbatean gazteak ibili ziren; igandea pausa eguna izan zen, eta astelehenean eta asteartean haurrek hartu zuten txanda. Gure herrian aldaketa aunitz izan dute ihauteek, bai egunetan eta baita janzkeran ere. Argazki zaharrean ageri direnak 1958 urte inguruko gazteak dira Bereko-bentan, Maddi etxeko-andrearekin; Bixkarreko Joxe, Luis eta Genaro; Sansineko Bixente eta Joxemari; Beretxeko Graziano eta Joxe

Leon; Iriarteko Joxe. Orduan mutikoak bakarrik ibiltzen ziren, eta beraien janzkera dantzarien gisakoa zen: galtza txuri xingolatua eta kroskoi-lekin, ator txuria eta koloretako mokanes haundi bat lepoan, eta buruan kapelu gorri bat, hori ere kroskoilekin eta borla luze bat zintzilika. Ortzegun-gizen ospatzen zuten; gero igande atsaldetan plazan dantza izaten zen; astelehena eta asteartea eskean ematen zituzten, gero ilunabarrean berriz ere plazan dantza eginez.

Beranduago, urte batzuz ihautea herritik desagertuta



Gazteak Lapitxeko-bordan aurtengo ihauterietan. MARIFA ETA KORO

egon zen, eta gazteak base-rietan ematen zituzten astelehena eta asteartea. 1976. urtean, orduan haurrak ziren batzuen ilusioaz, ihautea herrira bueltatu zen berriz. Barrantzeko atean, ezker-eskuin: Joxe Jabier, Axun, Koro, Andres, Juan Manuel, Pilar, Margari, eta Kristina. Igande arratsaldean bentetan ematen zuten, astelehenean bertze auzoak, eta asteartea herrian.

Gaur egun, gauzak aldatu dira eta gazteek larunbatean



Haurrak elizako atean.

ospatzen dute ihautea, eta haurrak bakantzetan direnez, astelehenean eta asteartean.



**647 77 31 33**

Eguzki plaken instalazioak, argiztapen-azterketak eta elektrizitate lanak orokorrean







Eskusoinuaren laguntzaz auzoz auzo ibili ziren gazteak. ARANTXA ETA IRAIA



Eguraldiak ez zuen lagundu baina umorerik ez zuten galdu. ARANTXA ETA IRAIA

## Aldaketekin ere giro onean joan dira ihauteriak

Mozorroen bazkarirat jende andana hurbildu zen eta haurren taldea ere geroz eta handiagoa da

### ARANTXA ETA IRAIA

Otsailaren 11n ailegatu zen, urdazubiar aunitzendako egun handia. Ihauteriak, aurten igandeko etxez etxeko eskearekin hasi ziren, Landibar, Telleria eta Iribere auzoetan eta herrigunean. Astelehenean ere plan bera izan zen haur zein gazteendako, etxez etxe esku soinuak alaiturik etxekoei bisita egitea, oraingoan Leorlas, Alkerdi eta Larrainta auzoetan. Asteartean, azkenik, Dantxarineko bentak bisitatu zituzten, kolore gorria oinarri zuten mozorro ederrekin. Aurtengo berrikuntzak ere izan

zuen arrakasta: mozorroen bazkarirat jende andana hurbildu zen. Urteroko gisan 20-30 gazte inguru bildu ziren eskea egiteko eta bazkarirako. Haurren taldea ere geroz eta handiagoa dugu, 20 bat haur bildu baitziren etxeetara bisita egiteko. Gaez, herritar guztiak elkaturik, haur, gazte eta heldu, giro bikaina muntatu zen Karreteron Beñat musikariarekin dantzaldi ederrekin finituz gaua.

Laburbilduz, zenbaitetan eguraldiak lagundu ez badu ere, giro eta umore ederra izan dute ihauterietan.



Haurren taldea ere geroz eta handiagoa da. ARANTXA ETA IRAIA

## Korrikako kilometroa erosi dute Urdazubiko elkarteek

### ARANTXA ETA IRAIA

Korrika ere hurbiltzen ari zaitugu, martxoaren 15ean gure ingurutik pasako baita. Edizio honetako Urdazubiko hainbat elkarteek bat egin eta Artesiagako kilometro bat erosi dute, Korrikako 257a hain zuzen. Gauinara elkarteak, Ugarana

emakume elkarteak, Urdazubiko Gazteak eta Urdazubiko eskolak erosi dute kilometroa. Beraz, martxoaren 15ean, orztiralean 16:33 aldera urdazubiar andana bat izanen da Artesiagan euskararen alde lasterka! Aitzinetik eta ondortik ere, segur!

**Giltzak eta aginteak**  
**AUTOA - MOTOA - KAMIOIA**  
 Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu

**IBARGOYEN**  
 AUTOMOTIVE SOLUTIONS

[www.ibargoyen.net](http://www.ibargoyen.net)    ☎ 943 616 587  
 Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN



Ehun urte bete ditu aurten Larrungo trenak. UTZITAKOA

## Larrungo trenaren mendeburuaren kari dokumentu bilketa

Posta kartak, argazkiak, filmak eta aldizkari zatiak xerkatzen dituzte erakusketa bat antolatzeko mailegu moduan

### GANEX

Larrungo trenaren mendeburuaren kari, Pirinio Atlantikoetako Departamendu Kontseiluak biztanleriari dei egin dio dokumentu bilketa bat antolatzeko. Larrungo Trenean otsailaren 5etik 9ra bildu zituzten eta Sarako Herriko Etxean otsailaren 9an. Azkaingo Herriko Etxean otsailaren 21ean, asteazkenez egitekoa dute eta Urruñako Herriko Etxean otsailaren 23an, ortziraletz.

Posta kartak, analogiko zein numerikoak eta identifikagarriak (pertsonak, lekuak, da-

tak...) interesatzen dira, baita argazkiak eta filmak (egile-eskubiderik gabe), edozein komunikazio dokumentu (afitzak, liburuxkak...) eta aldizkari zatiak interesatzen zaizkie.

Dokumentu hauek erakusketa bat antolatzeko maileguak dira. Dokumentuak Baionako eta Ipar Euskal Herriko artxibategiko gunera helaraziko dira. Horien artean, batzuk erakusketarako digitalizatuko eta baliatuko dira. Denak beraien jabeei itzuliko zaizkie.

Info +: [iban.larrandaburu@le64.fr](mailto:iban.larrandaburu@le64.fr) edo [arch-bay@le64.fr](mailto:arch-bay@le64.fr) helbide elektronikoetan.

## Sarako Izarrak antolatutako mus txapelketa otsailaren 24an jokatu dute

Sarako Izarra errugbi taldeak mus txapelketa antolatu du otsailaren 24an Omordian. Irabazleek 500 euroko saria irabaziko dute eta finalistek 250 euro. Bertze sari ainitz ere izanen dira.

Txapelketa otsaileko azken larunbatean 14:00etan hasiko

da eta izen-ematea 13:00etan egin daiteke Omordian edo aitzinetik, 06 43 42 80 61 telefonora deituz edo *Instagram* bidez. Jokalari bakoitzak 12 euro ordaindu beharko du. Sala berotua izanen da eta taloak eta edariak ere banatuko dituzte.



GANEX

## Giro ederrean joan dira ihauteriak

Otsailaren 10ean eta 11n izan ziren ihauteriak. Larunbatean gazteria ibili da auzoetan etxe etxe eta igandean haurrek eta helduek mozorroturik egin dituzte gauza ederrak plazan, musikariaren soinu ederrekin. Zanpantzar erre dute alegrian. Baziren taloak eta goxokiak edatekoekin plazan bertan.



XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA

## Giro goxoa Xokobi berriko bertso afarian

Harrera elkarteak antolatuta, bertso afaria izan zuten Xokobi berria ehiztarien etxolan otsailaren 3an. Haira Aizpurua eta Amets Arzallus bertsolariak aritu ziren kantari, eta Iban Ithurbide gai emaille. 40 bat afaltiar elkartu ziren, gehienak saratarrak, baina baita inguruko herrietakoak ere.





Ihauteri dantzatuak. JL BESSONART

## Eguraldi ezin hobea baliatuz jendetza bildu da ihauterietan

Zan Pantzar kiskaldu aitzin 120 bazkaltiar bildu ziren eta Zirikolatzeko dantzariak emanaldi ederra eskaini zuten

### JL BESSONART

Eguraldi ezin hobea baliatuz iragan dira ihauteriak, otsailaren 3an, jendetza bildurik ongi gozatu dira partehartzailerik guztiak. Aurten desfileetik kanpo, besta guzia pilota plazan kokatua zen. Betiko jendetza, mozorrotu, zirtzil, joaldun, dantzari eta bertze, animazio bikaina segurtatu dute. Zan Pantzar kiskaldu aitzin, 120 bazkaltiar bilduak ziren eguzki pean, xapelak ongi etorriak ziren. Joaldunek segida hartu aitzin, Zirikolatzeko dantzariak emanaldi ederra eskaini dute. Ondotik, Zan



Joaldunak pausaldian. JL BESSONART

Pantzaren auzi beldugarria, gurezbeharraguztien errudun baieztatua izan da. Kantu, musika eta dantzek iraun dute beranta arte. Txalotzekoak Zakuzaharrak taldekoak.

## Elur Alberdi Frantziako txapelkun indoor arraunean

Hendaiarra den Herriko-etxe-ko langile honek Joko Olinpiarretako partehartzea jadanik lortua izanik ere, Frantziako indoor arraun lehiaketan, txapela jantzi du 500 metroan eta bigarren postua 2.000 metroan. Trofeoa ere eskuratu du bere jarraikortasunagatik.



Elur Alberdi sariekin.



JL BESSONART

## Lanbideen Foroa Larrekon

Urtero egiten den ekitaldia iragan da otsailaren 3an, goizean, Larrekon. Gazteei zabaldua zen, okasionea delakotz ofizioen deskubritzeko, norabide profesionalaren hautua egiteko. Beren burasoeekin hurbildu diren gazteak, lanbide mundutik etorritako kideekin partekatze aukera ukan dute.



SPUC LASTERKA

## XII. mendi lasterketak prest

SPUC Lasterka taldeak mendiko lasterketen 12. edizioa antolatu du, martxoaren 9a eta 10ean. Larunbatean, 05:00etan Tontorrez-Tontor 80km; 08:00etan Gotor-Lekuen Itzulia 42km; 10:00etan Ibar Run trail 10km. Igandean, Senpereko Trail 09:00etan (21,5 km), baita haurren lehiaketa eta oinezkoen ateraldia ere.

## Maitetxoak Hurtzaindegia kinka txarrean dagoela ohartarazi dute

Senpere, Ainhua eta Sarako 100 bat haur ttipi errezebitzen dituen egitura, elebidun eredu, 1990. urtean abiatu zen. Burasoen partehartzetik kanpo anitz dirulaguntza etortzen dira erakundeetatik eta Herriko-etxeetatik. Halere finantzen egoera txartzen ari da

urtez urte, alarma gorriak piztu direlakoan. Esprikazio anitz eman daitezke, bereziki langileriaren karguen emendaketa baita egituraren kudeaketa ere. Elhorga auzapezak, konfiantza erakutsi nahi du, lanaren bitartez aterabideak asmatzekotan.



Oskar Urrutiari agur esan zioten Oriamendiko erremontistek otsailaren 3ko jaialdian. ESTI VEINTEMILLAS

## «Aldageletan izandako momentuak dira nire ibilbideko politenak»

**OSKAR URRUTIA ESCUDERO** SALDIASKO ERREMONTISTA PROFESIONAL OHIA

Profesioletan bi alditan banatutako ibilbide «gorabeheratsuari» bukaera eman dio Oskar Urrutia erremontista saldiastarrak otsailaren 3an Galarretan jokatu duen azken partidarekin

**AITOR AROTZENA** SALDIAS

Saldias Argilore etxean jaio zen Oskar Urrutia Escudero 1987ko otsailaren 15ean. Ordurako txapeldun zen Migel Mari anaiaren bidea segituz, 22 urterekin erremonte profesionalean debuta egin zuen Urrutia II.ak. Hiru urte beranduago utzi behar izan zuen, baina 2019an, 32 urterekin dagoeneko, bigarren aldiz debuta egin zuen. Profesional etako bigarren garaia akitzeko otsailaren 3an jokatu zuen azken partida Galarretan. **Erremontista profesional bezala zure azken pilotakadak eman zenituen otsailaren 3an Galarretan... Nola sentitu zinen? Kua-droko pilotariekin arku, oparia...**

**emozio handiko uneak izanen ziren zuretzat?**

Emozio handiko eguna izan zen, familiakoak eta hainbat lagun bertara joan ziren eta gainera erremontistengandik jasotako babesa zoragarria izan zen. Beraz, esan dezaket oso egun polita izan zela.

**Noiz hasi zinen erremontean eta nolakoa izan da zure ibilbidea profesioletan?**

Hogei urte nituela hasi nintzen erremontean jokatzeko, eta 22 urte nituela, 2009ko abenduaren 19an debutatu nuen Galarretan. Egundik berean Aritz Zubiri goizuetarrak ere debutatu zuen. Eta egia esateko oso ibilbide gorabeheratsua izan da. 25 urterekin utzi nuen eta

berriz ere, 2019ko azaroaren 14an debutatu nuen bigarren aldiz profesioletan, 32 urterekin. Bigarren aldiz honetan lau urte pasatxo egin ditut.

**Zein izan da zure ibilbide horretan zure momenturik onena? Eta txarrena?**

Ibilbidean izandako momenturik onenak aldageletan pasa ditugun momentuak dira eta txarrena izandako hainbat lesio.

**«ANAIAREKIN TORNEOREN BAT EZ JOKATU IZANA DUT PENA BAKARRA»**

**Zerbaiten damua gelditu zaizu? Egin nahi zenukeena eta egiteko aukerarik izan ez duzuna?**

Anaiarekin torneoren bat ez jokatu izana, horixe dut pena bakarra.

**Dena den, erremontea zure lanbidearekin ere bateratu behar izan duzu?**

Bai, erremontistaz gain, gaur egun komertziala naiz. Momentuz gustura nago lanpostuan eta aurrera begira jarraitzeko asmoarekin.

**Migel Mari Urrutiaren anaia izateak zein neurritan baldintzatu du zure ibilbidea? Zenbateko zama izan da Urrutia II.a izatea?**

Anaiarekin askotan entrenatu dut eta berak zekiena irakatsi dit eta oso baliotsua izan da. Aldiz, esan beharra dut oso zaila izan dela anaiaren maila ematea. Oso harro nago anaiak izan duen ibilbidearekin eta berekin bizitako momentuekin. Berak 2012ko otsailaren 4an jokatu zuen azken partida Mexikora joan baino lehen eta astebete lehenago, urtarrilaren 28an, berekin batera jokatzeko aukera izan nuen lehen eta azken aldiz, baita irabazi ere. 40-38 irabazi genien bi anaiek Urtasun eta Aizpurua II.ari.

**Nola ikusten duzu erremonteari etorkizuna?**

Erremonteari etorkizunaren inguruan aipatzekoa da gaur egun Oriamendi enpresa egiten ari den lana, hainbat erremonte txapelketa antolatuz eta telebistan eta sare sozialetan egiten duen publizitatearekin. Hala ere, etorkizunerako iruditzen zait pilota eskolak bultzatu beharko liratekeela kirolak nolabaiteko jarraipena izateko.

**Besterik?**

Erremontea ikusi ez duen jendea partidu bat ikustera animatzea gustatuko litzaidake, kirola zuzenean ikusteko eta momentuz gozatzeko. Gainera eskerrak ematea gustatuko litzaidake izandako aukeragatik bai Oriamendi enpresari, baita erremontista guztiei ere.





Urrezko borts domina eta zilarrezko bat lortu ditu Beti Gaztek munduko klub arteko txapelketan. FCO JAVIER OIARZABAL

# Beti Gazte sokatira taldea munduan nagusi

Helsingborgen (Suedia) otsailaren 8tik 11ra jokaturako munduko txapelketatik hamaika domina ekarri dituzte Lesakako taldeko tiralariek: sei klub artekoan (urrezko borts eta zilarrezko bat) eta borts nazioartekoan (urrezko eta zilarrezko bana eta brontzezko hiru). Inoizko uztarik handiena

## AITOR AROTZENA LESAKA

Joan den urteko Ipar Irlandako mundialetik bederatzi dominekin bueltatu zen Beti Gazte. Klub artekoan borts domina lortu zituzten (urrezko bat eta zilarrezko lau) eta nazioartekoan lau (urrezko bat, zilarrezko bi eta brontzezko). Errepika ezina zirudiena hobetu egin dute aurtengoan Suedian otsailaren 8tik 11ra jokaturako munduko txapelketan, batez ere klub artekoan lortutako sei dominekin (urrezko borts, tartean emakumeek, talde mistoak eta 640 kiloko gizonzkoek lehen aldiz lortutakoak eta zilarrezko bat) eta nazioarteko txapelketako bortsekin (urrezko bat, zilarrezko bat eta brontzezko hiru). Denera hamaika domina lortu dituzte eta parte hartu duten txapelketa guztietan po-

diumera igotzea lortu dute Beti Gazteko neska-mutilek.

Klub artekoan zazpi txapelketa izaten dira (lau pisu gizonzkoetan, bi emakumezkoetan eta mistoa). Gizonzkoen pisu astunenean ez du Beti Gazte talderik aurkezten baina aurreko gainerako bertze seietan bai. Eta guztietan lortu du finalera sartzea eta horietatik borts irabazi egin ditu gainera, munduko bertze klub bakar batek ere inoiz lortu ez duena. Emakumeek hasi zuten urrezko, 500 kiloko kategorian munduko txapeldun eginez. Hasieran Asiako taldeen belduraz zuten finala eta ongi irabazi zuten. Azken bi mundialetako brontze eta hiru zilarren ondotik, lehen aldiz izan dira munduko txapeldun Beti Gaz-

teko emakumeak. Segidan, gizonzkoen 600 kiloko urrea etorri zen, finalean Ipar Irlandako Country Club menperatuta. Lehen eguna ona izan bazen, zer erranik ez bigarrena. Goizean, 540 kilokoan emakumeek finalerako txartela lortu zuten, baina galdu egin zuten Txina Taipeiko Jingmei Daishi Dai taldearen kontra. Gizonzkoek, berriz, 640 kilokoan finalera sartu ziren eta, bezperan bezala, Ipar Irlandako Country Club taldeari irabazi zioten. Beti Gazteko gizonzkoen taldea beti pisu arinetan nabarmendu da eta ordura arteko urrezko domina guztiak 560 eta 600 kiloko kategorietan irabaziak zituen. Beraz, lehen aldiz lortu dute 640 kiloko munduko txapeldun izatea. Klub artekoan bukatzeko, gizonzkoen pisu

arineko eta txapelketa misto munduko txapelketak ere irabazi zituen, Clonmany B (Irlanda) eta Monickendam (Herbehereak) finaleran menperatuta. Txapelketa mistoa lehen aldiz lortu dute klub artekoan eta beraz, gizonzkoetan, emakumezkoetan eta txapelketa mistoan munduko txapeldun den lehen taldea da Beti Gazte.

## Nazioarteko mistoan urrea

Asteburuan segida izan zuten txapelketak nazioarteko lehiarekin. Beti Gazteko tiralariek Basque Country ordezkatzeko aukera lortua zuten Euskal Herriko txapeldun izan baitziren kategorian guztietan. Beharbada klub artekoaren adineko distirarik gabe, baina nazioartekoan ere podiumera igo ziren parte hartu zuten lehiaketa guztietan. Txapelketako azken tiraldietan, gainera, iaz bezala, talde mistoaren urrezko domina lortu zuten. Denera, urrezko eta zilarrezko domina bana (misto eta gizonzkoak 600 kilotan) eta brontzezko hiru lortu dituzte (emakumeen bi mailak eta gizonzkoak 560 kilotan).

## MUNDUKO TXAPELDUN

Amaia LEIZA IGARTZABAL	Lesaka
Maialen LOPEZ TAPIA	Lesaka
Ainhoa UBIRIA SARASOLA	Lesaka
Karmele PIKABEA BALEZTENA	Saldias
Maria IANTZI IRIGOIEN	Igantzi
Irantzu GOIENETXE BATIZ	Lesaka
Ane GURRUTXAGA ERRANDONEA	Les.
Udane ARBELAITZ MATEO	Oiartzun
Ainhoa ETXEGARAI ELGORRIAGA	Bera
Beñardo IANTZI MITXELENA	Lesaka
Jose Angel MITXELENA MITX.	Lesaka
Oskar TELLETXE MARTIARENA	Igantzi
Beñat ORDOKI TELLETXE	Lesaka
Julen PALENZUELA ETXEPARE	Lesaka
Gerardo TELLETXE AIZPURU	Lesaka
Unai GURRUTXAGA ERRANDONEA	Les.
Iñigo ALZUGARAI LEGAZKUE	Lesaka
Paskual TABERNA ZUBIRIA	Lesaka
Karmelo MITXELENA MITXELENA	Les.
Ander MITXELENA DIAZ	Lesaka
Mikel APEZTEGIA MENDIBERRI	Les.
Eneko SALDIAS OTXOTORENA	Sarasate

# AGENDA

## OTSAILAK 22 - MARTXOAK 7

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



NEGU HURBILAK

### DONEZTEBE 'Negu hurbilak' filmaren proiektzioa

17:00etan Zubietako joaldunen kalejira, 19:00etan filmaren proiektzioa eta 21:30ean afaria Santamarian. Zinema, otsailaren 24an. Zinemako sarrerak 626 87 91 82 zenbakian eta Zubietako dendan.

### SOLASALDIAK

#### SENPERE

##### 'Hitzak eta itzalak'

Hatsaren Poesia tailerra  
Larraldean, otsailaren 24an,  
16:00etan.

#### GOIZUETA

##### 'Ignazio Bergara goizuetarraren gutunak' liburu aurkezpena

Juan Joxe Zubiri eta Patxi Salaberriarekin.  
Herriko Etxeko ganbaran,  
otsailaren 24an, 11:00etan.

#### IRURITA

##### 'Bichta éder' liburu aurkezpena

Eneko Bidegainekin.  
Gizarte Bilgunean, otsailaren  
29an, 19:00etan.

#### LEITZA

##### 'Euskara bidegurutzear'

Kike Amonarrizekin.  
Herri Aretoan, otsailaren 29an,  
18:00etan.

#### ELIZONDO

##### 'Haurraren garapen fisiko eta emozionala (0-6 urte)'

Sabeletik Mundura proiektuaren eskutik.  
Arizkunenean, otsailaren 29an,  
17:00etan.

#### BERA

##### 'Mugalur, mugaldetik lurraldera' tailerra

Berlandetan, martxoaren 1ean,  
19:00etan.

##### 'Lurraren defentsan' erakusketaren inaugurazioa

Kultur Etxean, martxoaren 1ean,  
18:00etan.

### MUSIKA

#### GOIZUETA

##### Umore Ona eta Kirikiño abesbatzak

Elizan, otsailaren 24an,  
19:15ean.

##### Jaiona Olazabal eta familia

Herriko Etxeko ganbaran,  
otsailaren 25ean, 18:00etan.

#### ELIZONDO

##### Txistu kontzertua

Izar Inbuluzketa, Eneko Irazoki eta Aitor Riparekin.  
Arizkunenean, otsailaren 24an,  
18:00etan.

#### BERA

##### Elle Belga eta Modesto Newhouse

Katakuk antolatua.  
Kultur Etxean, otsailaren 25ean,  
18:00etan.

### IKUSKIZUNAK

#### LESAKA

##### 'Euskalyptus' antzezlana

Jon Ander Urrestirekin.  
Harriondoan, otsailaren 25ean,  
18:00etan.

#### IRURITA

##### 'Almazenean' antzezlana

Iker Galartza eta Zuhaitz Gurrubagarekin.  
Gizarte Bilgunean, otsailaren  
25ean, 18:00etan.

#### GOIZUETA

##### Zapotxin pailazoa

Herriko Etxeko ganbaran,  
martxoaren 2an, 17:30ean.

##### 'Bizkarsoro' filma

Herriko Etxeko ganbaran,  
martxoaren 3an, 18:00etan.

### AZOKAK

#### DONEZTEBE

##### Baztan-Bidasoko stock feria

Ezkurra frontoian, martxoaren  
2an eta 3an, goiz eta  
arratsaldean.

#### ELIZONDO

##### Baztango Zaporeak eta Artisauak

Plazan, martxoaren 2an,  
10:00etatik 14:00etara.

### PALESTINAZ

#### ELIZONDO

##### 'Gatazkaren klabeak'

Lidon Sorianoaren eskutik.  
Arizkunenean, otsailaren 23an,  
19:00etan.

##### Elkarretaratzea eta diru bilketa

Plazan, martxoaren 2an,  
11:00etatik 13:00etara.

#### ARIZKUN

##### Mural pintaketa

Lamiarrietan, otsailaren 24an,  
10:30ean.

#### LEITZA

##### Elkarretaratzea eta diru bilketa

Plazan, martxoaren 3an,  
12:00etatik 14:00etara.



## NIRE AUKERA

# «Korrika da Euskal Herrian gehien hunkitzen nauen ekimena»

ALAITZ ESKUDERO BERGARA GOIZUETAKO KORRIKA ZALEA



KORRIKA

Jaiotetxeak eman dio ezizena eta Alaitz Portolokoa bezala ezagutzen dute Goizuetan. «Saltsa guztietan parte hartu nahi izaten duen neska» dela esanez aurkeztu du bere burua eta Goizuetan horretarako aukerak ez dira gutxi izaten. Herri izaera «handia» dute bertan eta horren erakusle da, «zerbait antolatzen denean ia herri osoa inplikatzeko dela modu batera edo bestera. Gainera, adin tarte desberdineko jendea nahasten da. Esango nuke hori ez dela herri guztietan pasatzen».

## Herrigintza

Herri giro polita nabari da kanpotik eta gaineratu du «are politagoa dela barrutik bizita. Herritarrek eta bertakoen arteko harremanek egiten dute polita herria». Hori lortzeko, herrigintzan ari den jendea

egotea funtsezkoa dela uste du eta bere aletxoak jartzen saiatzen da Alaitz: «Gazte Asanbladan eta Gure Esku Dagon ibilia naiz. Gaur egun, Goizutrail edo Kultur Taldean nabil. Hasiera batean gazte bezala genituen kezkak, interesak eta proposamenak aurrera eramateko asmoarekin eta gero gai zehatzagoak aurrera eramateko. Askok betetzen nau herrigintzak. Herria hobeki ezagutu eta maitatzeko aukera ematen baitit».

## Afizioak

Musika zalea ere bada: «ttikitatik entzun izan dut musika asko. Musika eskolan ere ibili nintzen eta musika mota desberdinak ezagutu eta entzutea asko gustatzen zait». Musika, «emozioak gestionatzeko» bitarteko bezala darabil eta hala, «lasaitzeko, barrenak

hustu eta dantatzeko aukera» ematen dio.

Argazkilaritza ere oso gogoko du: «beti gustatu izan zait argazkiak ateratzea». Lasai eta patxadatsu itxura izan arren, aitortu du bere burua oso azkar doala beti, «mila gauza, proiektu eta kezka izaten ditut buruan, eta argazkilaritzak, musikak ere bai, burua gauza bakar batean zentratzen laguntzen dit».

## Euskal kulturaren zalea

Euskararen bueltan ekitaldiak bat baldin bada ere, ez da urritu izaten Alaitz: «bertsoak direla, kontzertuak, antzerkia edo hitzaldirekin bat... agendan beti izaten dut txoko bat halako ekitaldiarako. Askok gozatzeko dut jende sortailea ikusi eta entzuten».

Euskara maite eta euskaraz bizi da Alaitz, «Goizuetan oso herri euskalduna da. Batez ere gazteen artean osasuntsu ikusten dut euskara, baina helduen artean elkarrekin gaztelaraz hitz egiteko ohitura handitzen ari dela ikusteak». Adibide garbi bat jarri du mahai gainean: «erdaldun baten aitzakian, bost lagun euskaldun erdaraz sumatzeak min ematen dit belarrian, baina oraingoan, hori ez da joera orokorra Goizuetan».

## Korrika herritik

Korrika herritik pasatzeko dela jakin zuenean, «arrunt pozik» hartu zuen berria: «lote-ria ttiki bat tokatzea bezala izan da 15 urteren ondoren, berriz, Goizuetatik pasako dela jakitea». Beretzat bakarrik ez, «herrian ere ilusioa sumatu da. Horren erakusgarri da zenbat

kilometro saldu diren». Korrika, «euskal komunitatea mugitu eta sendotzeko erreminta ikaragarria» dela iruditzen zaio: «edizio bakoitzean pentsatzen dut, akaso, Korrika izango dela Euskal Herrian gehien hunkitzen nauen ekimena».

Aurreko urteetan Basakabi eta Ezkurra artean, kilometro batzuk egindakoak dira eta barre artean egin du aitortza: «azkeneko edizio guztietan maldan beheiti tokatu zaigula esango nuke, eta eskertzen dut! Korrika zalea bai, baina ez baina oso lasterka ibiltzeko zalea edo abila behintzat». Lasterka ibili soilik ez, lekukoa ere eraman izan du eta momentu horretan sentitutako emozioa nabarmendu du: «poz handia ematen du hainbeste esku eta kilometrotan barna hamar egun eta gauzez gelditu gabe dabilen lekuko hori zure eskutan hartzeak. Korrikak sortzen duen emozio horren guztien parte izatea oso ederra da». Korrikako batzordean ere badabil: «Hogeita bat lagunek osatzen dugu batzordea. Perfil desberdineko jendea elkartzeko gara, ilusio eta gogo handiarekin eta martxa ederrean doa dena». Herritarren erantzuna ere bikaina izan da: «kilometroen saltamanta arrunt ongi joan da. Erronka handia genuen eta ikaragarria izan da eman duten erantzuna. Dauden kilometroak baino gehiago saldu dira denbora gutxian, 29 guztira, eta azkenean 800 metroko kilometroak egingo ditugu».

Berak argi du garrantzitsua dela Korrikan parte hartzea eta hainbat arrazoi aipatu ditu horretarako: «AEKri laguntzeaz gain, komunitate izaera indartu eta euskararekiko kontzientzia sortzeko balio dutela uste eta espero dut».

Oinetakoak eta petoa prest izanzen ditu dagoeneko eta bitartean, Korrika kulturalaren aitzakian, ez zaitezte harritu Goizuetan edo beste herriren batean Alaitz ikusten baduzue.

## «HERRI GIROA ARE POLITAGO DA BARRUTIK BIZITA»

# ZERBITZUAK

## MERKATU TTIKIA

### ETXEBIZITZAK

#### ERRENTAN HARTZEKO

**BAZTAN.** Elizondo inguruan etxea edo pisua errentan hartu nahi dute. ☎622 40 21 95.


Eraikuntza enpresa batek urte baterako pisua hartu nahi du Beran, Lesakan, Igantzin edo Etxalarren. 700 euro ordaintzeko prest. Bankuko bermearekin. ☎693 69 49 76 (Jose Mari).

#### SALGAI

**BERA.** Kanttonberri karrikan 77m<sup>2</sup>ko pisua salgai, 3. solairua. Hiru logela eta komun batekin. Kanpoko aldera ematen du, argitsua. Iggogailurik gabe. 145.000€. ☎616 38 28 49.



**OIZ.** Etxe galanta salgai, bi familia-koa, 300m<sup>2</sup> eta 342m<sup>2</sup>ko lorategia. 325.000 euro. ☎687 63 27 37.



**LEGASA.** Pisu polita salgai, berritua 94m<sup>2</sup>, balkoiarekin. 120.000 euro. ☎687 63 27 37.

### GARAJEAK/LOKALAK

#### ERRENTAN HARTZEKO

**DONEZTEBE.** Autoa uzteko garajea errentan hartu nahi dute. ☎658 01 50 80.

#### ERRENTAN EMATEKO

**LESAKA.** Eroskiko arrandegia errentan emateko. ☎948 63 72 64.

### LANA

#### ESKARIAK

Bezeraentzako arreta eskaintzen duten banaketa enpresetako agente lanean esperientzia duena lan bila. ☎624 50 27 31 / 624 16 97 18.

Neska bat zaintza lanetan ariko litzateke, interna edo orduka. Langilea, arduratsua eta erreferentzia onekin. ☎604 38 95 31.

## IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 [www.erran.eus](http://www.erran.eus)

☎ 744 48 43 61

@ [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 euro** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

### ZERBITZUAK

#### DENETARIK

Ezkontza eta bertzelako ekitaldieta-rako dantzaria eta txistularia. Deitu edo idatzi konpromisorik gabe. ☎659 82 66 09.

#### ZURGIN LANAK

**ARANTZA**  
ZURGINDEGIA

Klase guzietako zurgin lanak  
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea - ARANTZA  
647 810 144 - 626 093 181

### ANIMALIAK

#### OPARITZEKO

Bi oilar gazte oparitzeko. Euskal oilo marradun arrazakoak. Hagitz politak. ☎677 70 60 32 / 628 99 65 41.

### DENETARIK

#### GALDU-AURKITUAK

**BERA.** Volkswagen auto baten giltzak aurkitu dituzte Santa Barbara mendian, Meakako lepotik hurbil. ☎665 75 27 24.

#### SALEROSKETAK

Belarra fardo txikitik salgai. ☎618 96 27 74.



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.

### MOTORRAK

#### SALGAI



Suzuki Vitara salgai. 89.000 km. 2006koa. 11.000 €. ☎620 01 12 42.

#### TAILERRAK

**GANIX**  
Tasak

948 63 06 69

Zalain Pol., 11 - BERA  
EUROMASTER zegoen lekuan

**SANTESTEBAN**  
TAILERRAK

**RENAULT KADJAR**  
1.5 DCI 115CV  
2019 urtekoa  
45.000 kilometro  
**AUKERA PAREGABEA!**

[www.taileressantesteban.com](http://www.taileressantesteban.com)  
DONEZTEBE - T. 948 450 282  
info@taileressantesteban.com

## BASERRIA

#### BEHI-AZIENDAK

##### Aretze gizenak:

##### Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 5,33 €
- 1.koa 5,21 €
- 2.koa 5,09 €

##### Urruxak: €/kg kanal

- Extra 5,44 €
- 1.koa 5,30 €
- 2.koa 5,30 €

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

##### Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

##### Aretze mestizoak

- Urruxak 125,00 €
- Idixkoak 210,00 €

##### Aretze nabarrak

- Urruxak: 50,00 €
- Idixkoak 90,00 €

#### ZALDI-AZIENDAK

##### Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 5,40/5,50 €
- Zaldi-behorrak: 2,52/2,69 €

#### ARDI-AZIENDAK

##### Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,00/8,10 €
- 8-10 kilokoak: 8,10/8,80 €

#### ZERRI-AZIENDAK

##### Zerrikumea (19 kilo): 91,50 €

##### Zerri gizona 1,651 €

##### Zerramak 0,880€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua otsailaren 2tik 9ra bitarteko prezioak)

**KULTURKARI**  
Dizionario grafikoa | Publicitatea  
[www.kulturkari.com](http://www.kulturkari.com)

**Tiketak eta boletoak**

Zozketak, tonbolak, sarrerak, loteria...

Paperean, grapatuak, taloetan...



## URTEBETETZEAK



**Aitor eta Maddi Baleztena Truebak** 10 urte beteko dituzte otsailaren 26an. Zorionak eta aunitz urtez Eratsun, Sunbilla eta Arantzako familiaren partetik.



Arraiozko **Iraia Mindegia Mortalenak** otsailaren 13an 2 urte bete ditu. Zorionak eta aunitz urtez gure etxeko ile kixkurrari. Muxu haundi bat familia guziaren partetik baina berexiki Enea ahizparen partetik.



Amaiurko **Enara Ariztia Garmendiak** 4 urte beteko ditu otsailaren 21ean. Zorionak familia guziaren partetik! Egun ederra pasatu eta muxu bat!



Amaiurko **Eider Ariztia Garmendiak** 6 urte beteko ditu otsailaren 23an. Ederki ospatu zure eguna eta merienda goxoa prestatu. Aunitz urtez eta muxu bat!



**Eder Telletxea Mariezkurrenak** otsailaren 9an urtetxo bat bete du. Muxu haundi bat etxekoan partetik.

## SORTZEAK

- **Odei Oronoz**, Sarakoa, urtarrilaren 25ean.

## HILBERRIAK

- **Milagros Chueca Iñarga**, Oizkoa, otsailaren 7an, 79 urte zituela.
- **Tomasa Castro Vega**, Doneztebekoa, otsailaren 4an, 94 urte zituela.
- **Juan Jose Sainz Irigoien**, Sunbillakoa, otsailaren 6an, 77 urte zituela.
- **Jesus Rodriguez Aznar**, Lesakakoa, otsailaren 7an.
- **Martin Jose Sagardia Otxandorena**, Oizkoa, otsailaren 7an, 79 urte zituela.
- **Miguel Angel Etxeberria Irazoki**, Lesakakoa, otsailaren 7an, 68 urte zituela.
- **Bautista Urtxegi Agirre**, Berakoa, otsailaren 8an, 93 urte zituela.
- **Tomas Sanz Hualde**, Doneztebekoa, otsailaren 9an, 92 urte zituela.
- **Joxepa Mariezkurrena Gastesi**, Elizondokoa, otsailaren 9an, 86 urte zituela.
- **Rosa Telletxea Arozena**, Doneztebekoa, otsailaren 11n, 93 urte zituela.
- **Manolo Pikabea Irazoki**, Berakoa, otsailaren 11n, 65 urte zituela.
- **Josefa Larrañaga Oliben**, Lesakakoa, otsailaren 12an, 93 urte zituela.

## Herencias y Gestión

**Herentziaren zati bat, nahitaez, seme-alabei utzi behar diet?**

Ez. Espainian eta Euskal Autonomia Erkidegoan ez bezala, Nafarroan askatasun osoa dago ondasunak nori utzi erabakitzeko. Ez dago seniparterik edo legitimarik (herentziaren zati bat, askatasunez xedatu ezin dena). Espainiako legerian, testamentua egiterakoan handiagoak dira mugak. Herentziaren heren bat, seme-alaben artean berdin banatu beharrekoa izaten da; berte heren bat, «hobekuntzarako destinaturiko herena», nahitaezko oinordeko baten herentzia hobetzeko erabil daiteke, hala nahi izanez gero. Seme-alabei utzi behar zaie, baina ez nahitaez erdibana, eta berte herenarekin askatasun osoa dago. Seme edo alaba bat herentziarik gabe utzi nahia bada, zaila da, kasu jakin batzuetan bakarrik onartzen baita, konparaziora, tratu bar fisikoak edo psikikoak daudenean. Nafarroan, aldiz, ez dago seme-alabei deus uzteko obligaziorik, eta testamentuan ere ez dago azalpenik emateko obligaziorik, seme-alaba bat edo batzuk herentziarik gabe uzten badira.

**Nafarroan herentzia bat uzterakoan seniparterik ez egoteak, zer ondorio ditu?**

Konparaziora, osaba batengandik pisu bat hartzen baduzu, saldu ahal duzu nahi duzunean. Berte leku batzuetan ez da horrela. Gufienez bi urte egon behar da (Hipoteka Legearen 28. artikulua ezartzen du hori), eta bi urte horiek pasatu arte, herentzian hartutako ebe horren inskripzioa ez da behin betikoa izanen jabetza-erregistroan.

Santiago 55, ELIZONDO ☎ 948 59 67 11 - 610 40 18 36  
[www.herenciasygestion.com](http://www.herenciasygestion.com) • [herenciasgestion@gmail.com](mailto:herenciasgestion@gmail.com)

**KULTURKARI**  
Diseño gráfico | Publicidade  
[www.kulturkari.com](http://www.kulturkari.com)

### Biniloak

Pareta eta erakusleihoetarako  
Neurrira eginak, azido efektua, elektrostatiakoak, gardenak, jartzeko errazak...

URTEURRENA

**Joxe Mari  
ARIZTIMUÑO CANFLANCA**  
Leitza, 2023ko otsailaren 12a

**I. URTEURRENA**

Beti irrifarrea zenuen lagunmin gauza denen gaitetik aitzinerat ekin bizitzari helduaz gogo guziekin indar hau utzi duzu betiko gurekin maite izan zaitugun familiararekin



**ZURE FAMILIA**



URTEURRENA

**M<sup>a</sup> Jesus  
TABERNA BEREAU**  
Irunen. 2023ko otsailaren 24an

**I. URTEURRENA**

*Gogoan zaitugu.*



**ZURE FAMILIA**

OROIGARRIA

**Migueltxo  
TELLETXEÁ SARRATEA**  
2023ko marxoaren 1ean

**I. URTEURRENA**

*Zein erraza izan den zu maitatzea, eskerrik asko eman eta erakutsi diguzun guztiagatik. Nahiz eta egunak, urteak... pasa, ez zaitugu inoiz atzenduko. Betiko gure bihotzetan, ataubxi.*



**ZURE FAMILIA**

URTEURRENA

**Juan  
ETXEBERRIA ETXEBERT**  
Elizondon, 2021ko otsailaren 26an, 74 urte zituela.

**III. URTEURRENA**

*Bihotz alaia,  
bihotz handia,  
pertsona handiagoo.  
Gure bihotzetan betiko.*



**ETXEKOAK**

**IRACHE**  
tanatorioak

**Nafarroako familien zerbitzura 1976tik**

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA  
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Iruñgo ospitaleetatik edozein herritara

 **948 63 74 04 / 948 19 70 70**  
[www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)

OROIGARRIA

**Isabel  
ETXEBERRIA AGERRE**  
Arraiozen, 2024ko urtarrilaren 22an,  
85 urte zituela

*Herri herritarra gara  
Baztango txokoan sortuak arraioztarrak  
Ez agurrik, ez adiorik, gero arte baizik.  
Gure amatxo eta amatxi.  
Beti gurekin.*



**ZURE FAMILIA**

  
**IZARRA**  
HERRI, ZURE OINOMI  
ARDEA ETXERAN

Gure barra,  
gure jendea,  
gure sustraiak








**TANATORIOAK**

- ELIZONDO
- BERA
- DONEZTEBE
- ARANTZA
- IGANTZI

 **24 h** Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

**948 05 90 90** [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

  
**BAZTAN  
BIDASOA**  
Herriola Zerbitzua

**BAZTAN: ELIZONDO**n Santiago kalea, 79  
**BORTZIRIAK: BERAn** San Jose Beilatokian  
**MALERREKA: DONEZTEBE**n Aparan ind. 1-3

**web: [funerariabaztanbidasoa.com](http://funerariabaztanbidasoa.com)**


Baita **BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK** ere

**24 ORDU | 948 48 95 50**  
**365 EGUN** | [info@funerariabaztanbidasoa.com](mailto:info@funerariabaztanbidasoa.com)

*Betiko taldea zu laguntzeko*




# HITZ GEZIDUNAK

	Fitza jokaleri	Lamu, pentze	FT. ahuntza- ren ama	1510	Misu eginez
	Aidapatsuak	Katolikismoa- ri atxikia	Ibac, haran	551	Lesakako herritarrak
	• Deitura			Kinri puntuak	
	Lurberenen india				
Beckerioa	Motuzkieta			Sute	
• Izena	Sodioa			Bi bokal	
			Hezurak		
			Lehenengo letra		
Zapaldea dagoena				Mendiko atza	
Musika neta				Gipuzkoako ibaita	
	Jardun		Ukazio		Bokala
	Lamu		Polit, ikusperti		Juan den urtean
Masurtoa	Gizon Izena			Aharine, dona	
Gipuzkoako udalerria	Ohikoakuz hitza			Izotz, horma	
		Odolaren kolorekoa			
		Kasik			
Gara			Hitz, solas		Adena eta lehena
Gipuzkoako udalerria			Kontu- narrua		Nitrogenoa
					Empiakuz, gorotza
					Bokala

◆ Aizkolari aranaztarra

## GOITIBEHERA



Goiti eta beheiti letra bat gubxiago edo gehiago du asmatu beharreko hitzak.

- [1] Oinarrizko eragiketa aritmetikoetako bat.
- [2] Arantzako mendia (1.047 m.).
- [3] Gozoak.
- [4] Barojatarren Berako etxea.
- [5] Ehun mota.
- [6] Juntagailua.
- [7] Denbora, astia.
- [8] Jai, festa.
- [9] Lapurtu, ostu.
- [10] Kanta, kantua
- [11] Notizia, berria

## ERANTZUNAK



Z A T I K E T A  
E K A I T Z A  
E Z T I A K  
I T Z E A  
Z E T A  
E T A  
B E T A  
B E S T A  
E B A T S I  
A B E S T I A  
A L B I S T E A

# PLAZAN BAZAN

## LABIRINTOA

Lotu hosto bekoitzari bere itzala



Marrakissak: Garbiñe Ubeada (Aituri)



Kontsultatu soluzioak  
[www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak](http://www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak)

**INTERNETEN ERE BAI!**


<http://plazanbazan.eus/>



## LABIRINTOA


Katagorriak Maridomingirenganaino iritsi behar du, fruitu asko baitutu saskian. Sekuentziari jarraituz, mugitu lauki, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina ez diagonalean. Bide batez, lauki bakoitzeko hizkiak agertu ahala idatzi eta esaera zahar bat osatuko duzu.

Hau da sekuentzia:



## HANDIENETIK TXIKIENERA

Ordena itzazu iratxo hauek handienetik txikienera, eta letik 9ra hurrenez hurren. Bide batez margo itzazu denak.





**Ttipi Txartela**rekin  
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...  
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA  
MUSU-TRUK  
-%80 ko DESGRABAZIOA  
ERRENTA AITORPENEAN  
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:  
TTIPI-TTAPA  
Koskontako bidea, 7 LESAKA  
T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61  
info@ttipi.eus | erran.eus  
www.ttipi.eus/ttipe-txartela

**847** zenbakiko irabazleak >



# ZOZKETAK

Donostiako Aquariuma - Bi sarrera  
Jorge Iribarren Arretxea | DONEZTEBE  
Buatxabal - Kamiseta bat  
Paula Arburua Lusarreta | LEITZA  
Zugarramurdiko lezeak - Sarrera bat  
Feliciano Zabala Zabala | HERNANI  
Giltxaurdi - Bi sarrera  
Martin Bertiz Arrastio | NARBARTE  
Barrutia 12 - Lote bat  
M<sup>o</sup> Jose Jubera Irigoien | AZPILKUETA  
Salting Iruñea - Bi sarrera  
Mika Maritorea Iturralde | ANIZ  
Martiko - Lote bat  
Pili Larretxea Errandonea | ARANTZA  
Arkupe - Lote bat  
Jose Mari Sansiñena Iparragirre | ETXALAR  
Erein - Liburu bat  
Josune Jaurena Agerrebere | URDAZUBI

**DONOSTIAKO AQUARIUMA**  
www.aquariums.com



Bi sarrera

**ONDOO TA PUNTO**  
www.ondootapunto.com



Kamiseta bat

**EZKEXA**  
www.ezkexa.com



Kamiseta bat

**BKZ ABENTURA**  
www.navarraaventura.com



Sarrera bat

**KIMETZ**  
www.kimetzbelarrenda.com



Saski bat

**SALTING IRUÑEA**  
www.saltingcenters.com



Bi sarrera

**MARTIKO**  
www.martiko.com



Lote bat

**IZAR PARK**  
www.galanpark.eus



Sarrera bat

## Sartu

[ttipi.eus/ttipe-txartela](http://ttipi.eus/ttipe-txartela)

webgunean  
eta ikusi  
abantaila guztiak!

DESKONTUAK  
ZOZKETAK  
ELKARRIZKETAK  
LAGUNTZAILEAK  
ARGIALETAK



Aprobetxa itzazu Ttipe Txartelak  
eskaintzen dizkizun  
abantailak, Ttipe Txartela  
onartzen duten denda eta  
zerbitzuetan erosiz.

## MUSIKA

Lau CD



**baga-biga**

www.baga-biga.eus



Deskontuak eta zozketa: Ttipe-Ttapa aldizkari  
guztietan Ttipe Txartelaren informazioa argitaratzen  
da, zozketa eskainiz eta aukeran dituzun  
deskontuak oroitaraziz!